

Donostia, 1979/VI/29
TXILLARDEGI
(José Luis Alvarez Enparantza)


"Azkue" biblioteka -
rentzat
Txillardi

PERU LEARTZA'KO

ELKAR

TXILLARDEGI
(José Luis Alvarez Espantoso)

PERU LEARTZAKO



ISBN 84-85485-10-6
Depósito. Legal S. S. 357-79
Irarkola: E. Icharopena, S. A.
Bíktor Pradera, 2 - Zarautz

ELKAR

BI HITZ BAKARRIK

Hemeretzi urte joan dira ene bigarren nobela hau Donostian oratu, eta Zarautz-en lehenengo aldiz argitarata zenez geroztik. Erruz salduko ez zen beldurrez, tirada txikia egin genuen: mila aletakoa, gaizki ez banago. Eta "Leturia"ren oihartzunak (1957) ahanzten hasiak zirelarik, 1960-ko udan zabaldu zen liburua.

Zabalketa nahaspilatsua enetzat, berehala; Abuztu hartantxe azaldu bainintzen Martutene-ra, neure bizian bigarren aldiz!

Eta, gartzelatik irtetean, ... hanka! Iparraldera has-teko, eta Frantziara segidan: Parisa.

Ezer gutxi jakin nuen orduan, beraz, "Peru Leartzako" jaio-berri honi buruz: baneukan katramila franko! Eta, gaur bertan ere, ezer gutxi erants nezake liburu honek Euskal Herrian izan zuen harreraz. Zinez diot. Hemen gelditu zen liburua; eta nik, Parisa heldu-berri hartan, eta neure borrokakiderik gehienak hurrengo udaran bertan presondegietan eta deserrian ikusirik, nekez izan nezakeen neure arreta "Peru" honen salmentan edo literatur-balioetan. Gero ere, berantegi, ez dut sekula ezer handirik jakin. Liburu hau ia-ia alfer-lana izan bailitzan...

BI HITZ BAKARRIK

Hemeretzi urte joan dira ene bigarren nobela hau Donostian oratu, eta Zarautz-en lehenengo aldiz argitaratu zenez geroztik. Erruz salduko ez zen beldurrez, tirada txikia egin genuen: mila aletakoa, gaizki ez banago. Eta "Leturia"ren oihartzunak (1957) ahanzten hasiak zirelarik, 1960-ko udan zabaldu zen liburua.

Zabalketa nahaspilatsua enetzat, berehala; Abuztu hartantxe azaldu bainintzen Martutene-ra, neure bizian bigarren aldiz!

Eta, gartzelatik irtetean, ... hanka! Iparraldera has-teko, eta Frantziara segidan: Parisa.

Ezer gutxi jakin nuen orduan, beraz, "Peru Leartza-ko" jaio-berri honi buruz: baneukan katramila franko! Eta, gaur bertan ere, ezer gutxi erants nezake liburu honek Euskal Herrian izan zuen harreraz. Zinez diot. Hemen gelditu zen liburua; eta nik, Parisa heldu-berri hartan, eta neure borrokakiderik gehienak hurrengo udaran bertan presondegietan eta deserrian ikusirik, nekez izan nezakeen neure arreta "Peru" honen salmen-tan edo literatur-balioetan. Gero ere, berantegi, ez dut sekula ezer handirik jakin. Liburu hau ia-ia alfer-lana izan bailitzan...

Egun hauetan, hitzurre berri hau egin behar niolaita, berriro irakurri dut; eta berriro jarraitu ditut zoritxarreko Peru anaia honen pasadizuak Zuntzarri-ko kale hits eta kabaret hitsagoetan. Irribarrez letu ditut Bego gorputz ederraren eta Monique begi tristen gorabeherak. Eta, harriturik (ez bainintzen oroitzen), gure Peru hau, jendez inguraturik ere, emakume apartek maitaturik ere, musika eta dantza-lekuetan mogiturik ere, harreman sakonik eta egiazko sendimendurik ezin lorturik aurkitu dut; eta aberats xamaturik ere, bere bizizama astuna ezin jasanik. Bere gain darama Peru honek bizi-beharraren tristura etsia. Benetan: "nausée" delakoa dario.

"Leturia"n baino gotorrago agertzen bide dira pertsonaiak liburu honetan; eta, alderdi honetatik, "nobelago" bide da LEARTZA hau, aurreko "Leturia" baino. Baina hauek ene iritziak besterik ez dira.

Dirurik eza, lan aspergarriaren hutsa, lantegietako ziztrinkeri-giro kiratsa, hemen agertzen zaizkigu, nolapait sendi-erazirik. Prozesio-inflazio betean, nabarmen agertzen dira sexu-harreman soilak, eta berauen hotz eta hutsa (biak eskomiku-iturri giro hartan).

Baina Peru-ri gertatzen zaizkion pasadizu koloregabe guztien buruan, eta bakardade guztien muinean, gero eta garbikiago agertzen zaio pertsonaia nagusiari giza-kezka nagusia: "zertarako hau guztia? zergatik ez heriotza desiratuko?"

Hastapenetan dirurik ezari egozten zizkion arazo latza eta atsekabe giroa, giza-baldinkerari berari egozten dizkio piskanaka: diru-arazoek izkutatu eta desbideratu besterik ez dute egiten gizonaren egiazko larridura.

Eta, argi bila etsian, budhismoarekin egiten du topo Peruk.

Bihotz ondoan, ordea, oso sinesgarri zaion soluzio hori nahi ez; eta, eroaldiaren ertzean, Buddha Sakyamuni berbera aurki agertuko zaiolakoan, erotzat jo bestee,

eta ero-etxera.

Peru-ren kezka nagusietan (bai Xabier adiskide minaren heriotzaren ondoren, bai bestetan), "Leturia"n, "Elsa"n eta "Haizeaz"en aurkitzen diren deihadar berberak eta antzeko oihartzunak aurki daitezke: ez da darrik. "Denboratasuna hotsean datza... Ixillak geldierazi egiten du denboraren igesa"... Eta abar, eta abar.

Zentsura-giro betean argitaraturik, nekez bil dezake irakurleak liburuan Euskal Herriko egoerari datxekion ezertxo ere. Noski! Baina materialismo prometeikoaren lurjotzea agirian dagoelarik, Peruk azaltzen digun budismoarekiko tentaldia ez zen artifiziaia; eta gaur ere, hain "modan" ez izanik ere, ez da.

Baina hau guztia, eta besterik, erabakitzea, irakurleari dagokio, eta ez egileari.

Eta PERU LEARTZAKO hau garai hartako lekuko izan dadin, agertu zen bezalaxe eman dut moldiztegira: gipuzkeraz; eta egoki letozkiokeen hizkera-aldakuntza batzuk egin gabe.

TXILLARDEGI

Donostia, 1979-ko Apirilaren 3

“Ezin diteke esan makiñak egiten ez genekienik; baiña gure asabak bazekiten arreta orrelako eginkizunetan jarri ezkerro, jopu biurtuko giñala, eta Moralaren sena arras galduko genuela. Orrengatik, eta luzaroan gogoeta eginda gero, geure eskuen eta geure oiñen bidez egin ditezkean gauzak egitea erabaki zuten. Eta ez besterik”.

(Gandhi)

ITZAURRE

Berriz ere biotzaren ikara, arimaren larri-miña, gaurko gizonaren barne-urduritasuna, darabilkigu Txillardegik bere bigarren liburu ontan.

Nobela ote dugu «Peru Leartza'ko» au? Ezin ezetzik esan; azken urte auetan era askotako nobelak idazten baitira. Egungo anitz izkribu, nobelatzat artzen diralarik ere, «nobela» egiazkoak ote diran zalantzan dabilta maiseatzailleak.

Era berean, «Peru Leartza'ko» au ere, ezta ildoaz eta egituraz batere klasikua; batere «nobela» beraz. Ahaide bat aipatu bear izatekotan, Franz Kafka datorkit oroimenera, zenbait puntutan batez ere.

* * *

Zanpatuta zeukan Leturia (lehenengo obran) «aukeratu-bear» aren larritasunak. Bide bat autatu arte, etsita dabil Leturia; eta autatu ta gero ere, etsiago. Gidari dituen absolutuak ezpaitzaizkio sasi-absolutuak

baizik. Orregatik, naiz-ta ezaguerarik argitsuenean aukeratuta ere, lokatzean finkatzen dugu oiñarria, eta bere gaiñean eraikitzen dugun guzia bereala erortzen zaigu auts biurtuta.

Alperrik dugu dana, dio Leturia'k: ezin diteke ezer absoluturik aurki: gure inguruan topatu dugunak zearo kutsatzen gaitu. Guk ez ditugu ez arazoak ez elburuak aukeratzen; baiñan bai berak gu. Ia itz oiekintze dio Camus'ek: «Guk ezin aukera ditzakegu gure prolemak. Alkargainka, berak aukeratzen gaituzte. Eman dezagun ontzat aukeratuak izatea.» (*L'homme révolté*).

Nai ta naiez, bada, sasi-elburuak dira gizonarenak.

Beraz, aukeratzeko gauza ez geran ezkerro, obe dugu geren burua eskeiñi («zakurrak bere nagusiari legez») eta geure inguruan toka zaizkigunak maitatu. Auzo da, gaiñera, bidezkoena.

«Leturia» liburuan, bestalde, irudipenetan aurkeztutzen da dana: parkea, Miren eta arekiko maiteatasuna, Paris'a joatea, eta abar, sinboloak dira.

* * *

«Peru Leartza'ko» ontan, berriz, esan dudanez, egungo gizonaren larrimin ori agertzen digu berriz Txillardegik; baiñan lehenekoan aukeratu-bearra bazan larrimiñaren iturria, oraingo ontan igarokortasunaren oiñazeak erdibitzen du Leartza'ren biotza.

Lanegin bearra sasi-kezka bat da: bereala ikasten du Leartza'k.

Dana dijoa, dana iraungitzen da, dana ahaztutzen da; dana, ahatik, alperrik da. Danak dakarki gerora

tristura eta dolorea. Orra or Leartza'ren irteera eta benetako kezka. Orra or liburuaren kakoa.

Sustraiezko sentimentu orri, beste batzuk erasten zaizkio gero; eta au batez ere: gure nortasuna, gure «nitasuna», gure «ni» au, egiazkoa al da? Ez ote gera amets bildurgarri baten jopu?

Aieru eta uste auek txit zabalduarik daude. Oso berrikitan (1960'ko Otsaillaren 21'ean) esan zuen Carlos Santamaria'k, ia Peru'k darabilzkieen itz berberak erabilliaz: «Eta, ametsetan bezela, arrigarri ikusten du nor bere burua; bere bikoitza bera baititzen gogoz eta ganoraz aztertzen du, gauza arrigarriak egiten eta esaten ditualarik. Nere kontzientziaren ispilluan agertzen dan izaki ori «nor» ote dan ere galdetzen diot nere buruari; nerekin benetako zer-ikusirik ote duenentz; ez ote dan, ausaz, bere buruari ajolarik batere etzaion ikutu eziñezko mamutzar bat».

Orrela abiatzen da Leartza ere, eta bereala ikutzen dute sorkaldeko ideiak.

Leartza'ren tentazioa guztiz egiazkoa da, gaiñerakoan.

Aita Taysmann jesuitak, etsistentzialismoaren eta budismoaren arteko gora-beherak xehetasunez aztertu ondoren, au dio: Joera bizia dago Europa'n budismoaren alde. Eta «ziorik sakonena auxe da: antz arrigarria dutela Buda'ren pentsakeraren joerak eta gaur gure erresumak astintzen dituzten pentsakera batzuk. Etsistentzialismo batzuk eta budismoak dituzten antzak ain dira aundiak, ezen batarekiko sentitzen dan atsegiñak bestera eramaten baitu».

Ez pentsa, gaiñera, au baitaezpadako asmazio bat danik, edo literaturan aurkitzen dan arte-joera uts bat. Ez.

Sorkaldeko erlijioak oso lillura sakona piztutzen dute gaur Europa'ko gizonarengan. Buda'renak batez ere (aldez aurretik anitzi besterik iruditu arren) erraietan unkitzen gaitu, giroari dagokion jokatibide bat eskeintzen digulako. Budismoaren zirikalidia etsipen osoa izanik ere, guztiz da gaurkoa eta egiazkoa.

Katolikurik geienak badute Aita Daniélou'ren aditzea: Daniélou omen da katoliku-kritikuetan fiñeneta bat. Askok, ordea, bere anai bat budista egin zala ez dakite, eta erlijio ortan kargudun ezagun bat dala.

Orixe da ere Delannoy andereñoarekin gertatua: 1954'ean, Darjeling'ko «Gandhamadan Vihara» ordena artu zuen.

Kristatu baiño lehenago, Julien Green nobelari famatuak ere, sei bat urtez lilluratu zuen budismoak; eta ala aitortzen du. «Minuit» bere obran, esate baterako, eriotzaz eta nirvanaz arduratzen da batez ere, urte aietako bere kezka ezagun duela.

* * *

Giro au nabarmenegi dago geiago ekin dizaiodan. Izpirituaren gora-beherak jarraitzen dituztenak bada-kite au sobera; eta budistak berak ere, berdin. Euskaltzaleen artean ere, bada zenbait.

Makinismoaren atsekabea eta iguiña, berriz, oso edatuta dago gure artean. Gandhi, orregatik, beste bidearen aintzindari agertzen da; eta aintzindari aparta eta paregabea dan ezkerro, askok senti dute sorkalderako deia.

Dinobá'k ere (Gandhi'ren jarraitzaileak) ez du apalago ikutzen Europa'ko gizona: ijeniero izaki, eta amabost izkuntzaz itzegiten jakin arren, beti ba-

rautan, beti oiñez, eta dirurik sekulan erabiltzen ez duen gizon argi batek, nola ez gaitu arrituko, materialistok, eta agian ere bereganatuko?

Materialismoaren nazka sentitzen duten guziak pozik agurtzen dute India. Eta, bidenabar, «Hinayanaren» dei zirrargarria entzuten.

Sorkaldearen aunditasuna eta goratasuna orain asi gera ezagutzen. India'ri batipat airegi gutxietsi genion.

Eta gaur presaren gure mundu ero ta uts onek ezin jar dezake esi gotorrik artara ez gaitezen.

Ain zuzen ere, anitzek uste du ekaldetik etorriko dala berriz gure arimaren lokabetasuna.

Gonbazio baterako, bi kristau aundik (Lanza del Vasto, «barauzale» ospatsuak; eta Albert Schweitzer, Lanbarene'ko Nobel-Sariak) sorkaldeko jakindea eta jokabidea goratzen dituzte. Eta ez sinkretismoarengatik, espada beren ustez gure izpiritutasuna Asia'ren bidez osa ditekealakoan.

* * *

Leartza'k, ortaz, joera zabal ori nortzen du bere buruan, Europa'ko kutsua eta gogoia bere biotzetik beñere erauzten ez ba ditu ere. Leartza, zirikaldi irristakor eta larrian jarrita ere, ezin eror diteke: sasi-hinayana batetik ezin aurrera. Bide erdian gelditzen da, eta etsipen osoan.

Txillardegi eztago auzian, eskierki, ez alde eta ez aurka. Aurkeztu egiten digu bakarrik, bero-beroan eta bizian nahasia, gaur Europa inarosten asi dan kezka nagusia.

A.

Donostia'n, 1960'ko Otsaillean.

OAR BAT

Euskaltzaindiak «h»ari buruz iritzi tinkorik oraindik eman ez duelako, neurekiza darabilzkit auek; eta Etxaide'k eta gaurko beste zenbait idazlek bezela, «h» ori erabiltzen duten euskaldunai irakurtzea piska bat erraztutzeko asmotan, bokale bikoi-tzetan jarri dut liburu ontan: zaharra, zuhurki, ahai-de, lehenago, eta abar. Berdin egin dut ere erderatik datozten itzai buruz, neure iritziaz baliatuz.

Liburuan agertzen diran nere irizpide auek, alaz ere, betirako ditudan iritzia ez dira, noski. Eta Euskaltzaindia'ren esanetara nago.

Egilleak.

Ostiral artan ere berandu eldu nintzan ofiziñara, askotan bezela. Ez beranduegi, egia esan: bederatziatan zan sarrera, eta bederatziak eta laurden ziran ni ara nintzanean.

Enintzan bildur. Bildurra etzan zearo sentitzea nuena. Baña bazan alako zerbait. Banekien istillurik gabe pasako etzala. Olejua erretxiña oartua zegoela eskierki nere atzerapenaz eta, oi legez, sekulako sesioa jarriko zidala.

Sartu naiz; eta, pentsatu bezelaxe gertatu. Agurtzeko bezela, ao-batez esan zidaten lankideak: «Izanduk eimen, eta ire berri galdetu dik». «Noski», nereko esan nuen.

Olejua au etzan nagusia. Baña gertatu oi dan bezela, nagusia bera baño gaixtoago zan. Gaixtoa zan, gizatxarra, zital alaena. Beti zirtzilkeriatan; beti amorratzeko zorian, edo karrasika. Eta, izan ere, zer zan ba Olejua fabrika artan? Zer zan? Ango kontakatillua besterik ez; Etxeberria gure nagusiari xurikeria egiñaz nekatzen etzan lausengari iguingarria, angu «konfiantzako» gizona; nazkagarri bat.

Orixe zan Olejua: goikoakin legun eta goxo, behekoakin berriz garratz eta zakar. Toki guzietan

ikusten dira zoritxarrez olako tipuak; eta an ere etzan falta.

Bereala etorri zan nere ofiziñara. Eta karrasika:

—Leartza: au geiegi da! Egunero gauza berberak esaten ari naiz!! Makiña bat aldiz esan dizut berderatzietan sartzen dala lantoki ontan!! Eta ez zuk eta ez nik nai dugun orduan!! —(Au esatean gorri-gorri egin zan, oi bezela, eta bestetango itxura eroa artu zuen. Dardaraz zituen eskuak, eta ortzak bein eta berriz ikusten zitzaizkion.)— Nik ez ditut gauzak alperrik esan nai: burutzak emandako aginduak betetzeko gertu ez dagoenak badaki zer egin bear duen: atea artu eta anka!!! Eta kalera joan etzeratenok, garaiz etortzea dezute nai-ta-ezkoa. Gañerako guziak ondo ulertu dute au: zuk ez beste guziak!!! Emengo kuttuna al zaitugu agian?...

—Ez. Eta ez nai ere!!! —pentsatu nuen nik nerekiko, ahapeka esanaz. Baña alere pittin bat entzun bide zan, eta zer egin etzekiela atzera eraman zuen Olejua'k burua. Olejua'ri errepikatu? An etzan sekulan alakorik pentsatu.

—Zer? —erantzun zidan— Zer da marmar ori? —Bildurtu egin nintzan. Sua zerion begietatik, eta apurtuko ninduela zirudien. Ura zan piztia! Kikildu egin nintzan, ergel au. Gaur aña jakin izan banu ostiral artan...

Nai zuen guzia esan zuen, eta ni ixildu egin nintzan; eta enion tutik erantzun. Nere ustez arpegian bertan nabarmendu zan nere bildurra eta onek arropuztu zuen. Galduta ikusi nuen nere burua. «Lana galdua dut... lana galdua dut! Zer egingo dut nik gero, gizajo onek?» nerekiko.

Nik egiten nuen lana errexa zan; edozeñek egin zezakeana. Bazekien au Olejua'k, eta nik Olejua'k ba zekiela ere bai. Ni bota ezkerro, segittuan arkituko luke ni bezelako bat. Nere betebearra neka-garria, bai, bañan errexa baitzan: etzegoen ni kanpora bialtzeko bildurrik. Zegoen zegoenean jarraituko luke denak ni gabe.

—Nola zer? —ekiten zion Olejua'k nik baño ere goragotik— Nola zer? —lepoko zañak lehertze-ko zorian aundituta—. Norentzat naukak, txoro orrek? Gaur bereon jakingo duk dana, alajainkoa! Baña bi-tarte ontan, nik agintzen diat emen. Etxe ontatik atera artean neu nauk burua, neu!!!..

Eta «neu» esaten zuala, sekulako ukaldia eman nere maiaren gañean, eta autsi egin zuen. Zulo bat agertu zan, eta onek lasaitu bide zuen pittin bat, ezpaitzuen besterik ezer esan edo egin.

—Bereala konponduko dute —esan zuen ahapeka, eta joan zan.

Nolako nazka nereca! Lagunak etzidaten ezer esaten: ezer erantsi bear ahal zan? Zuzendu nituen ahal zan bezela zuloa osatzen zuten ezpalak, eta exeri egin nintzan. Nere ezkerretan fitxeroaren ka-joiak, egunero bezela nere zai; eta eskubitan, ondo agirian ahantz etzekizkidan, Olejua'k utzitako be-rreun bat paper. Orra nere eginkizun mamitsua... Mi-lla peseta eta errietak ere doarik eta usu... Bapo!..

Uraxe bai nazka! Ezin Olejua madarikatu ura betirako ahantz! Ezin ari utz! Ezin andik eskapa! Gezurra zirudien...

Gauza batek beartzen minduen ura guzia jasa-tera: dirurik ezak. Nere bizimodua etzan oso ero-soa. Ostatu illun batean bizi nintzan, eta alaz ere bi illabetetako dirua zor nion etxeakoandreari. Beti sosik gabe, beti zorretan... eta Olejua eraman be-rra!! Geiegi zan. Baña zer egin nezakean? Zenbate-tan egin nion galdera au nere buruari?

Nekez ba zan ere asi nuen nere lana: eun da berrogei ta bost fitxa bete bear nituen. Nazkaren aundia!

Baña... etzegoen erremedirik, eta asi nintzan. Egunero bezela asi, gañera: gogait, gogoa andik at nuela.

Tinbre batek astindu minduen. Olejua zan berriz. Erlojura begiratu nuen: amarrak eta ogei ta bost. lgo nintzan bere ofiziñara, nazka eginda.

—Leartza. Pieza auetako egona edo kopurua bear dut azkar.

—Barka. Etzaitut entzun.

—Zuk ez duzu beñere ezer entzuten! Zu tontoa zera! Lerrokada ontan dauden piezetatik zenbana diran jakin nai dudala!!! Adittu al duzu orain?

—Bai jauna. Oraintxe...

Jetxi nintzan, oraindik ere bere abotsaren oiar-tzunak nigan zirautelarik, eta bereala ikusi nuen aietxek zirala ain zuzen, osatu gabe nituen fitxak. Jakiña: bezperan-edo Olejua'k fitxategia miaturik, bazekien zer zan ondo eta zer atzeratuta; eta auetakoak aukeratu zituen.

Enekien zer egin. Olejua'k jakin, etzuen ezer jakin nai; ni nazkatu egin nai ninduen. Gaurko zalaparta atzodanik zeukan pentsatuta, zerri arek. Aitzekia ederra goizean berandu allegatzean eman niona.

Luzatuko? Egia esango ote? Ortan nenbillen eta tinbreak berriz darauntsala, berak oso goraki, toki guzietatik entzun zekiokela:

—Zer gertatzen da, Leartza? Amar ordu bear al dituzu amasei fitxa biltzeko? Orren motela izanik, goizago etorri bearako zenduke goizetan. Ezta ala?

Nere barnea dar-dar. Gorroto, bildur, nazka... dena nahasita. Igo nintzan.

—Fitxa oiek atzeratuta dauzkat.

—Bearrik! Joan zaitezke, ortaz. Ez didazu ezer tarako balio. Alde, alde emendik!!

Ezin ezer erantzun. Itxuraz arrazoi zuen gañera...

Nere ofiziñara ezkerre, paretan jo nuen eskuaz nere indar guziakin, eta arriturik nago orain artan axtarrenik utzi enuelako. Ura nazka!

Erlojura begiratu nuen berriz: amaikak amar gutxi... Mantsoegi zijoan denbora...

* * *

Eguna igaro zan.

Andik ateratzean enekien zer egin. Kontua eska (nolako atsegiña, Jainkoa) eta ara sekulan ez itzuli;

Zuntzarri'tik Ameriketa'ra joan; lan berri bat Zuntzarri'n bertan arki, eta Olejua'ri utz... Eziñak iruditu zitzaizkidan danak.

Ziñera joatea erabaki nuen gau artan, zerbait ahaztu naiean. Baña dirurik enuen, eta utzi egin bear beste baterako. Ederra zegoen gaua; eta ostatuko nere gela illunera joan baño, naiago izan nuen paseo bat eman. Gau izartsua zan, epela, ixilla. Amets egin nuen beintzat, eta nere barnea baretu egin zan. Arnasa artu nezakean gogoz... Dena etzegoen galdurik.

* * *

Biamamunean, eguerdi irian, Errodrigo topatu nuen lantokitik ateratzean. Gurasoak bidaiaz zituela ta, bere etxean dantza izango zuten zortzi mutillek eta beste ainbeste neskek. Janari, kap, dantza: ots, gaur «guateke» esaten duguna.

Enuen joateko gogo aundirik, egia esan. Baña zer egingo bestela? Baietz esan nion.

—Neska legunak, artaburu, —esan zidan Errodrigo'k—. Etzaik damutuko. Ba al dakik zein dijoan? Ana Mari esate baterako.

Atsegin zitzaidan bai: neska ederra zan Ana Mari ura. Eta au gogoangarria zan: naiko errexa, naiko eskurakoia, «oso» esango nuke gaur. Zer geia-gorik bear joateko, ogei ta bost urte izaki?

Joango nintzala agindu nion, ba, eta alkarrekin piska batean egonda gero, «biar arte» esan eta despeditu genion alkarri.

* * *

Agindu bezela Errodrigo'ren etxera joan nintzan igandean. Berandu berariaz, oso atsekabeak izaten baitira olako festen astapenak; baña berandu iristeagatik ere, berdin pentsatu bide zuten geienak, eta an etziran asieran amar lagun baño geiago.

Etxe dotorea zuen Errodrigo arek, eta ni nintzan batzar artan txiroena segurki. Neskak oso apain, alajainkoa. Ana Mari ikusi nuen: ederra. Baziran beste bizpairu neska, ikustez nik ezagunak. Danak agurtu nituen irribarrez, baña zer esan ez nekiela. Geroxeago Monique azaldu zan ara, frantsez neska xarmant bat; eta beste. Monique zitzaidan guzietan maitagarriena.

Asi zan ba musika. Eta asi ere zan jatea. Danok, diximulatzekotan nere ustez, jan eta edan ari giñan jo ta ke; ez jateagatik beragatik, arratsaldeko sei t'erdiak baitziran. Baña jate berean ez omen dago itzegiterik; eta auxe zan kakoa. Zer esango genion bestela alkarri angoak?

Monique'kin atsegiñez itz egin bai, ahal ba ledi. Alere berandu nenbillen. Gero jakin nuenez Erramun'ekin ateratzen zan azken bolada artan, eta maiteminduta omen zebillen berakin. Ortaz, deus ere.

Ana Mari'kin mintzatu nintzan. Oso atsegiña bera. Baña dantzan oraindik, iñor etzala-ta enuen nik aurrena irten nai eta an ziran batzuk berakin dantzan ni baño lehenago, eta konturatu orduko bakarrik nintzan, dantzariak so, eta kopa bat eskuan lagun.

Nere txanda eldu zitzaidan noizpait, eta ango batekin asi nintzan dantzan. Ordurako nazkatzen asia nintzan, ezpaitzan an nere gustokorik Ana Mari eta Monique besterik. Gañerako guziak etzitzaizkidan atsegin, eta dantzan nerekin asi zana ere ez. Are geiago: neke egiten zitzaidan berakin egotea. Etzan egun artako kontua, ez: beti gertatu izan zait ori.

Eta nolabait jolastutze arren, gauza arrigarriak esaten asi nintzaion. Bestela, zer egin nezakean?

—«Guateketan» eta olako zeratan, biziki jolas-tuzen diranak pena ematen didate. Benetan esaten dizut.

—Zer ba? —berak.

—Begira. Alaitasunez geiegitan itzegiten dutenak,

tristerik dute barnea. Baña, zergatik izkutatu bear tristura ori? Zergatik egin bear festarik eta ezer? Esango dizut nik zergatik: tristatzeko zorian ezbaña tristerik daudelako. Tristerik egonda ordea, ez dago zer izkutaturik.

—Ez dizut tutik ulertu.

—Ez da arritzekoa. Gaizki azaldu dizut. One-lako bilkurak eta jaiak ikusten diranean, badirudi parrez eta algaraz ibiltzea zaiola gizonari atsegiñena. Alaitu egin bear dala, alaitu. Baña zergatik alaituko? Tristerik daudelako, eta tristerik daudela esateak lotsa ero bat ematen dielako. Gure tristura ori ager ez dedin joan oi gera jaietara; bizi-bizirik dugun larritasuna bein eta berriz estaltzekotan. Baña zarata aundiagoa izan, eta mingotsagoa eta sakonagoa dator gero larrimiña.

Bukatu egin zan diskoa. Nerekin zegoen neskek arriturik begiraten zidan. Pasodoble edo olako zer-bait asi zan; eta ez berari eta ez neri dantzegiteko atsegin etzitzaigulako, exeri egin giñan.

—Segi, segi —esan zidan berak. Ez alere nere solasa ajola zitzaiolako, itxura egitegatik baizik. Berari ere lotsa ematen zion aspertzen zalakoa egiteak, jendearen aurrean batez ere, eta besteak alai ikus zezaten, nere lagunak batipat, irribarrez begiraten zidan eta azalpenak eskatzen zizkidan. Baña nerea, edo beste edozeñen solasa etzitzaion ajolarik. Berak uste izan ez arren, bistan zan bere azalkeria.

—Txorora ote zeran nago.

—Ez dut uste. Zalaparten ondoren, esanai lotzeko, larrimiña darraikie. Eta anitzek uste du jaiak sortua dela. Ez orixe. Zaratak eta zarata-ondoak agertu egiten dute lehen eta gero ere dagoen illuntasuna. Besterik ez.

—Bai. Baliteke. Baña ez dakit.

Parre egin nuen. Etzekien, ez; uraxe zan egia.

—Buruari eragiten ez diozula ezagun duzu, nere ustez... —ekin nion zirika. Orduantxe konturatu bide zan zerbaitez eta oso gaingiroki, eta asarre antzean erantzun zidan:

—Naiago dut, olako txorakeriatan denbora galdu baño.

—Bapo! Zuk ere tristatzeko bildurra duzu. Eta orrela etzera ezertara iritxiko: saldukeria egiten diozu zure buruari.

—Naiago dut alere —gogorki.

—Ba, atsegin-molde bat galdu duzu. Tristatzeko eta barnea goibeltzeko atsegin bizia.

—Arroxko bat zerala uste dut. Ez besterik.

—Baliteke. Baña esan dizudan guzia egia utsa da. Ez da nik esana: askok pentsatu dute berdin. Idazlerik ospatsuenak bi atsegin-min oiek nahasiz egin dituzte beren lan ereduak: atsegiñaren irrika eta atsekabearen gogo. Biak; ez lehenengoa bakarrik. Negar eragiten duten filmak eta idazkiak arrakasta aundia izaten dute. Zuek, emakumeok batez ere, gogoz joaten zerate malkotan itotzera.

—Idea arrigarriak dituzu —esan zidan berak—. Eztakit... eztakit... Bildurra ematen didazu. Zuk geiegi eragin diozu kaskoari.

«Eta zuk gutxiegi» erantzuteko zorian ibilli nintzan. Baiña eskuratu egin nuen nere burua, eta esan nion:

—Zergatik «geiegi»? Zergatik ikusten dira gaizki «geiegi» pentsatzen dutenak; eta burua orraztutzeko besterik ez dutenak, berriz, ondo? Zerorrek aipatu duzu zioa, nik uste: gu «bildurgarriak» geralako, eta aiek ez. Guk zuen sasi-pakea astintzen dugu, eta ori etzaizue laket, etzaizue eroso. Zuek —odol-bolada bat nabaitu nuen barnean— naiago duzute trunkil bizi, zuen gezurrezko munduari eutsi, eta elizara joan. Alere askok, egiaz itzegingo ba lute, mundua gorroto dutela, eta meza^{tan}an folklore-ikus-kari besterik arkitzen ez dutela aitortuko luteke...

—E? Baiña zer diozu, ero orrek? —ebaki zuen.

—...Eta au aitortzeak urduri edo parragarri utziko lituzke —ekin nion nik, nere pentsaera ondo borobildu naiean.

Orduantxe alde-egin zidan berak. Eta bere ikararak atsegiña eman zidan. Monique'rekin ez ba zan, banuen beintzat jolas-modu bat.

Eta geiago kezkatzekotan ekin nion, besotik eskuaz lotzen nuela:

—Jainkoarekin itzegitea gauza ederra izango litzake. Ni joan izan naiz elizarik bikaiñenetara, Jainkoari entzuteko asmotan ain zuzen. Bearrak eraginda joan izan naiz ni; ez oitura zahar bati jarraitzeko.. Baiña beiñere ez dut ezer entzun; eta zuek siñistunok azterturik, azkeneko itxaropen-printzak irauungi zaizkit. Otoitz egitea ederra izango litzake Jainkoa ba...

Askatu egin zitzaidan. Neska gajo arek usandutako gorputz bati bezela aldegiten zidan.

Ni munstro kirats bat izan nintzaion. Guateke batean eta orrelako gauzak esaten... Konturatu egin nintzan, eta bere ondora joanik zirikatu naiean esan nion:

—Adizu: atsegiñago al zaizu «fox»'a ala «samba»?...

—Utz nazazu pakean, mozkorra! —Eta berriz ere joan zan neregandik.

Ordurako berotuxe zebiltzan danak. Emen muxuka, an arpegiak erantsita... Monique irribarrez. Onek mindu minduan geiena; eta arritu ere bai: Erramun'ek etzekien tutik frantsezez, ezta Monique'k euskeraz ere. Zeri egiten zioten parre, ortaz? Alkarrizketa mamitsuagoa izan uste liteke nerekin, biok dakigun izkuntza batez. Baiña nik ez dut, nunbait, Erramun'ek duen gatza... Esaera zaharrak diona; «emok horari hezurra, emazteari gezurra».

Geroz eta aspergarriago zitzaidan ura. Nor be-rearekin danak aukeran. Geienak arratsalde artan berean alkar ezagutu zutela siñisten zailla zan. Bonbillaren bat itzali zuen batek. Muzin batzuk neskak, baiña denak pozik. Guziak (nola ez!) ni ezik. Danok, alere, bat gentozen gauza batean: itxura egiteko be-arean. Alaitzekoa nik argiak itzaltzean, asarretzekoa berak. Joko bat.

Baña joko aspergarria, alajañetan! Millatan ikusiak nituen gertaera aiek. Millatan dana. Eta Monique gero ta xamurrago. Eta ni zai kopa eskuan. Zeren zai, egia esan?

«Eta biar lanera». «Olejua madarikatua berriz topatzera». Aiek neri ez oartztea etzan zailla. Eta, orretzaz baliaturik, gela apain batean sartu nintzan. Leioak zabalik ziran, eta aurre-aurrean, eta bertan-txe, zugaitz baten adarrak ikusten ziran. Arrats ederra.

Bestetan konturatu nintzanaz oroitu nintzan. Guatekeak etziran ezer neretzat: ura pasea zan. Muxu bat edo bi; edo batere ez; eta iñoxokeria batzuk bota, eta... zer? Ni aspertu egiten nintzan beti, ia guzietan. Eta nere lagunak ere ez gutxiago. Baña au danak ba genekien ere, gaizki zan ala aitortzea; eta orrela bildurrak gaillenduta, luzatuz zijoan itzurpide ura.

Eta, zergatik ez alde? Eta pentsatu ta laister, «baniak» nere buruari esan; eta...

Andik aterarik, itsaso aldera jo-nuen. Ura pakea! Nere joateaz etzan agian iñor konturatu. Naikoa zuten danak giro epel ketsu artan. Obe.

Egoaize goxoa zebillen. Lizarreta aldetik gero eta bikote xamur geiago.

Ura atsedena! Baña... berriz ere txorimaloa: biaramunean... Olejua! Eta etzi berdin, eta etzidamu, eta...

II

Gañerantzean, onela neraman bizia: elbururik gabe, neure buruaren igesi sarritan, barne-egunsentia bearrik ikusi arte. Olejua'kin izandako liskarraren ondoren, etzan ezer aundirik nabaitu, eta enuen lana galdu.

Izan nuen, bai, egunsentia.

Alako larunbat batean, lagunakin joan nintzan afaltzera. Gutxiena zan afaria: alkarrekin egote arren egin oi genituen sasi-afari aiek. Jatea bost ajola zitzaignun. Solasa, berriz, afalondoko alkarrizketa, oso mamitsua izaten zan; eta onek artaratzen ginduzan astero-astero.

Nere lagun aiek oso xebreak ziran ortan. Gauza inportantez itz egin nai zuten; eta egiazko naia zan berena. Baña itz utsetan galtzen zuten dana.

Ni enintzan iritzi artakoa: nik asko sufritzen nuen nere ideiangatik; eta Jaungoikoagan siñisten enuela aitortzean enintzan berak bezela gelditzen. Orregatik min ematen zidan askotan beren belaskeriak.

Baña, bestalde, Olejua'z ahaztutzeko, zer egin nezakean egokiagorik? Orrela, keke eta zurrumurru artan, lasaitu egiten nintzan; eta asarretzean ere, iges egiten nuen nere larrimin estu artatik.

Bazekiten danak Olejua'ren berri, eta beti esaten zidaten irixtean: «Zer, Peru? Moldatu al aiz gaur? Esaiok goraintzi Olejua'ri, niketz. Gizajoak ere, aski dik bere burua eramanez». Burla gaistogiazan; baña aiek etzuten ala uste.

Gau artan arimaren kontuak izan ziran mintzagaia. Ba al dugu arima illezkorrik? Eriotzak mugatzen ote du gizonaren izatea?

Eta (ondo gogoratzen naiz) gogorrak esan nintuen nik.

—Mundu guziko gizonak, baita atzeratuenak ere —esan zuen Kepa'k—. Jainkoagan siñistu ditek betidanik; eta orobat ere presunaren arima illezkorrean. Zergatik ala? Siñeste ori bere barruan gizonak berak daramalako; oitura edo azkuntzaren eragiña ez dalako. Gizonaren ariman zetzak ori.

—Ez diat uste —erantzun nuen nik—. Zenbat-eta atzerago jo, jakintzan ala denboran, ainbat-eta siñeste eta ipui geiago.

—Ederki —esan zuen Manu delako batek, Errodrigo'ren lagun miña, nere basoa ardoz betetzen zuela—. Ederki esan duk. Edan zak, motel, bestela ire filosofia orrek akabatu egingo au...

—Eskarrik asko —erantzun nion ozki.

—Jainkoa kentzen baduk, alere, —errepikatu zidan Kepa'k— geiago dituk sortzen diran prolemak, argitzen diranak baño.

Geroz eta gorroto aundiagoa sentitzen nuen Kepa onenganako. Kristau batek egin lezakean bezela itzegiten zuen, baña jentillen biziera zeraman itzetik ortzera. «Jainkoa kentzen ba duk», ordea. Berak bai kendu.

—Bai, ala duk —nik—. Alere gauza bat ikus dezakegu egunero ondo agirian; ez dagoela mundu ontan sobrenaturalik ezer. Gure bizi guzian zear, diruak agintzen duela, edo indarrak, edo naturalak azal dezakeanak. Gaistoena garaitzen ditek egunero, lapurrenak aberasten, eta zikoitzenak esku-zabaltsunaren eredutzat jartzen. Gure mundu ontan, zori-

txarrez, azalkeriak agintzen dik, eta ala izanik alperrik duk besterik esatea.

—Ala duk, bai.

—Ortaz, zergatik izango da gero orain ez dagoenik? Alegia: bizi geraño, ez duk ezer nabarmentzen mundu ontakorik ez denik. Mundu ontako bereko arrazoiak azaltzen ditek baita izkutuena ere. Parre egiten ziotek Jainkoari arroak, eta etzaiek alaz ere ezer gertatzen; lapurrak, berriz, denak artzen ditek prestutzat, kalterik ematen ez dielarik beintzat. Etzekiat deabrurik dagoenentz; baña mundu onek nagsirik ba du, auxe dik jaun da jabe.

—Alajaña, Peru! Gogor ago gaur. I, Kepa: emaiok edaten. —Eta eskuak igortzi zituen Manu'k, ari-talka ikustera bailjoan.

—Bai —Kepa'k errepikatu zidan—. Demagun, bai, mundu au guzia ifernu bat dela, deabrua buru. Eta, zer esan nai duk orrekin? Nik esandakoak, noski, zutik zeudek argatik ere.

—Ez. Bizi geran artean beste mundu batekoak ez, baña ontakoak berak agintzen ba dute, ezagutzen dugun guzi-guzian sobrenaturalik ezer sumatzen ezpada, nundik nora erants gero? Eskierki ezagutzen dugun guziak emen bertan dik azalpena. Besterik duk esatea gure buruari atsegin etzaiola ori. Au bai. Mundu onek bere ortan, nazka ematen ziguk. Ots: asma dezagun beste bat. Ondo duk: bañan etzegok beste mundurik... Ezetz esaten didak buruaz, Kepa? Emaidak azalpen au: bizi geran artean etzegok ezer beste mundutakorik. Il gaitezenean, berriz, askok dionez, mundu ontakorik etzegok deus ere, baña bestetakorik dena. Nola ori?

Pentsakor gelditu zan Kepa: etzekien zer esan. Eta neronek ere ez, egia esan.

—Orra, ba —segi nuen—. Gure fedea eta siñiste guziak ez dituk, agiri denez, gure arrokeriaren sor-karia besterik.

Ixildu egin giñan danok. Iñarrosi egin zituzten nere esanak.

—Ikusi duzute? —esan zuen Manu'k— Utzi egin bear zaiok filosofiari. Ez dik atsekabeaz besterik ematen... Beste gauzatxo bat aipatuko ba nizue, bereala alaituko zenituzteke arpegi goibel oiek. Ba al dakizute gutako batek izkuntza-eskolak artzen ari dala? —Lehengo solasari lotzeko iñork etzuan izan bear ainbat ausardiarik eta bere galderari jarraitu zitzaizkion:

—Zein ala?

—Peru... Peru, bai, geurekin dagoen Peru Lear-tza berbera.

Une artantxe konturatu nintzan. Etzegoen eskapatzerik: denak jakingo zuten dena.

—Bai ba... Frantsez-eskolak artzen dizkik Monique delako batekin...

Nolako zarata! Denak ezagutzen zuten Monique, eta atségin ere bati edo besteri zitzaionik enuke ukatuko.

—Da, nun ikusi dituk? Arrano pola! Zail duk ikusten da.

—Bai —jarraitu zuen Manu'k—. Ezin asma dezakezute zein ederki itzultzen zion Monique'k atzo «Cabiria'ren gauak» filma...

Zintzoago jokutzen zuen orain Manu'k. Arrigarrria. Etzan bestetara pasa.

* * *

Egia zan. Monique'kin atera nintzan batzutan aro artan. Ez nai ainbatetan. Maiteminduta? Ez dakit. Baña nere egunetan zorientzuenak dira Monique'kin pasatako aiek. Ordurarte musuak nere odola piztu oi zuten; Monique'renak, berriz, biotza. Biotza, eta odola ere bai, egia aitortzeko. Baña, beste era batera. Musu aiek ba zuten zerbait. Kupidarik? Egiazko maitasunik? Agian. Lehenengo aldiz musuak bazitzaizkidan gogoangarri. Nolako penak pasa nituen orduan beretan zuhurragoa izan enintzalako. Esnatu uste nintzan: poesia galdutako musukatze li-

zun aiek igarota, berriz sentitzen nituen atsegin sakonak eta freskuak. Auxe da itza: freskura berria.

* * *

Zoriontsu izan nintzan Monique'kin egun batzuez, bi astez agian. Ez geiago. Monique bere osaba baten etxean bizi zan.

Eta ona emen gertatua. Jakin zuen Olejua'k, eztakit nundik edo nola, Monique'rekin ibiltzen nintzala. Eta, ez bat eta ez bi, kotxea artu eta bere osabaren beraren etxera joan zan.

Zer esan ote zion xeheki eztakit: Monique'k kontatu zidanez, etxekalte bat nintzala, nerekin atarramentu onik izango etzuala, filosofia eta olako «txorakeriak» atsegin zitzaizkidala, eta naikoa zala au ni zertsu nintzan jakiteko; enintzaiola bere illobari komeni; ondo ezagutzen ninduela ni bere fabrikari «zoritxarrez» ni egonda, eta itz batez esateko, nerekin jarraitu ezkerro segira eskasa izango zuela, berak aginduta. Eta abar, eta abar.

Nolako egunak pasa nituen nik ofiziñan... Olejua'k alere, etzuen ezer egin bere bisita sala zezakeanik. Ixildu egin zan; eta Monique'gatik izan ezpalitz, enuen sekulan jakingo egun zorigaiztoko aietan gertatu zana.

Baña nik ez dut uste, Olejua gorroto ba nuen ere, asmo gaistoz egin zuena egin zuenik. Ez. Berak etzuen Monique ezagutzen, eta etzan alajainkoal, errukior errukiorra... Ni gorroto ninduelako egin zuela? Baliteke pittin bat. Baña besterik zan zioa. Zorotzat ninduen, ergeltzat, eztakit nik zertzat. Bera nere ustez, munduan dagoen gizonik arbuiagarriena zan; ni, berebat, gizonik eroena eta kaikuena nintzaion zalantzarik gabe. Cupidagarri iruditu zitzaion, seguru asko, nerekin emakume bat ezkon zitekeala pentsatzea. Orixe iruditu zitzaidan neri ere berari buruz: eniokeala orrelako senarrik desiratuko ezta deabruari berari ere, deabrurik ba lego.

Baña ala gertatu zan.

Orduan galdu nuen, nere ustez, nere biziari beste abiadura berri bat eman zizaiokeana. Urtebete pasa baño lehenago, ahaztua neukan Monique, egia esan. «Bixtatik urrun, biotzetik urrunago» esan oi da. Eta Monique xarmant eder ura, bereala itzuli zan Frain-zia'ra, eta, geroztik enuen ikusi. Badakit ezkondu zana. Baña besterik ez.

Egun aietan, siñistuta egon, goizeko bostetan jaikitzen nintzan. Eta zortzi t'erdiak arte ikasten jarduten nuen. Etsamiñatzeko erabakia artu nuen, eta kosta ala kostarik, mirikuntzaren karrera egingo nuela. Liburuetan-eta etzegoen koskarik: gidari ona nuen Mikel, miriku ikasle zan eta.

Indar berriak nituen egun aietan. Iraunduko ote zuten duda izango dut beti; eta askok gogorazi didate: nere beroaldi laburra izan zala diote. Ezta-kit. Ni, alere, gogotsu nenbillen orduan, bazegoen zerbait nere bizian, eta etorkizunean bazizekan argi printza batek.

Olejua'ri zor diot ortaz «mesede» ori ere. Nork daki andik etor zitekeana? Itxaropena galdu nuen, ilusioa iraungi zitzaidan, eta kitto. Jauste ikaragarrri batean erori nintzan, eta itzali egin ziran betirako amodio zorientsu artako garrak.

* * *

Aurrera zijoan denbora, eta nere pozak atzera. Nere biziak etzuen bixigarririk. Larunbat askotan lagunakin joan afaritxo bat egitera, eta kitto. Bestetan, geroz eta gutxiagotan, nere gurasoen etxera joan oi nintzan, igandea berakin pasatzera.

Alako batez, larunbata izanik ere, enintzan gurasoengana joan, eta «Lupiña»ra bildu giñan Mikel, Errodrigo, Manu eta ni laurok. «Lupiña» au zan gure biltokia. Zuntzarri'ko murru zaharren ondoan zan, eta ara sartzeko, bidexka estu illun batetik pasa bear zan. Atea beti zegoen zabalik. Iru eska-

llera jetxi, eskubi aldera jo, eta beste ate bat idekirik, bazkal-tokia. Iru mai luze, piano bat atzean, eta... gizonak, erruz. Gizasemeak bakarrik: emakumeak ez, inñundik ere. Sukaldariak bezeroak berak ziran. Ara joaten giñan astero esaten nuen bezela, gogoia piska bat laxotzera. Afalduta gero, asi giñan kafeak artzen, eta kopatxoak eta abar. Eta bereala nabarmendu zan etzuela guretako inñork etxera goiz itzultzeko asmorik. Egia esan au gertatzen zitzaigun astero: gogorra egiten zala etxeratzea. Zertarako? Nerekiko beintzat etxekoandrea oeratu gabe egon ezkerero marmarka egingo, eta oiean egon ezkerero ere bildurrak ibilli bear, lapur baigiñan. Ai! Orduan neure etxea moldatzeko izan nituen gogoak! Enuen, beraz etxera joan nai: Naiago nuen edozein gauza, zulo illun artan sartu baño; eta orra: zulo illun uraxe zan nere bizilekua. Beraz, «oraindik» ez; «oraindik» goizegi... Noski!

Bañan ezin zitekean egonean egon, eta zerbait artu bear zan. Jatekorik, ez; gose ezkiñan. Kafe bat, eta beste bat, eta beste bat; eta danak kopa batekin batera... Alegia, iraun egin bear zan.

Ordua begiratu eta ura ikara. Goizegi zan: amabi t'erdiak. Eta «ara» parrandan joateko beranduago joan bear. Enintzan orduan oso gautxori, eta piska bat moteldu ezkerero, loak artzen ninduen. Erne irauteko edariari eman bear ortaz.

Gaueko ordu bata aldean, txerbel giñala, artu genuen Olazarraga'ko bidea. Olazarraga'ko kaleak medarrak dira, eta, gauez batez ere itsusi itsusiak. An-emenka argi diztiratsuak, kolore askotan: kabareten ateak. Gañerako lekuan, illunpe beltza.

Gizon asko oi zebillen an gora ta behera. Gizon asko ta emakumerik ia bat ere ez. Onak arritzen zuen geiena angoa etzana, ezpaitzan kasikan gizonik besterik ikusten. Noizean bein, egia esan, emakumeren bat igarotzen zan, nasai eta narratx; edo portaletara agertzen. Bañan bakarka.

Auzo artan jolastu egiten omen zan: eta neronek ala esan oi nuen Olazarragaz itz egitan; baña

aratzen nintzaneko, enion neuk ere mamirik arkitzen libertsio-toki eskasari. Baña au aldez aurretik jakin arren, eta larunbatero frogaturik ere, astero lerratzen nintzan aruntz. Uraxe zan nere zorigaitza: ezetz esateko enuela adorerik; baña baietz esatean ere, gogo gutxirekin abiatzen nintzala.

Bazuen auzo arek alako berezitasun bat; baña tristura garratza zerion. Ura guzia, illuna zan; eta argi-aluntzio aiek sasi-alaitasunezko karrasi urragarriak ziran.

«Baiao-Dancing» zalakoan sartu giñan. Etorri berria omen zan ara emakume aparta bat, eta Manu'k nai ta naiez sarrerazi ginduzan. Gañezka zegoen tokia. Aurre aurrean tauladoa. Piano zahar bat, estalkirik gabe: ez goiko aldean, ez behekoan. Berau ere, ortaz, argiak bezela, eta ango guzia bezela, larrutua, bipildua, lumatua. Mariñel batzuk, barraren ondoan, kantari asi ziran gorrak berak ere entzuteko moduan. Alajainkoa! Izkuntza zearo arrotza; itxura ere ez gutxiago.

Sei «gorri» eskatu genituen, sei koñak alegia. Eta, nork ordainduko pokerrean aritu giñan. Manu, Mikel, Errodrigo, ni, eta an topatu genituen beste bi, Errodrigo'ren lagunak segurki. Ez dakit zenbat ordaindu nuen: asko... Baña ordu bata t'erdiak ziran, eta artista famatu ura etzan oraindik azaldu.

Egon ortan geundeala, sua eskatu zidan ango p... igar batek. Manu'k eta Errodrigo'k bazuten bertatik zertaz itzegin. Negargura ematen zuen bere arpegiak: bere begiak etzuten argirik, eta otz-otzak ziran. Ura etzan emakume bat. Eskatutako sua eman nion. Labainkeria bat egin zidan eskerrak ematean. Berriz ere, ardo eta ke usai artan bertan, goragalea nabaitu nuen. Eta, nerecasa, adiskideai kasorik egin gabe koktel luze eta bizi bat eskatu nuen.

—Ahalik eta fuertena izan dedilla.

Zurruz batez edan nuen: sutan jarri zitzaidan eztarria, sutan gero urdailla. Alaitasun zoro bat asi zan nere buruaz jabetzen; eta obetoxe sentittu nin-

tzan, frankillago, alaiago. Olazarraga ere alaiago zitzaidan.

Asia zan dantzan Rose Duclair. Soñeko luze-luzea zeraman, eta mikrofonotik xentimetrorik batera urrundu gabe kantatzen zuen, eta alere sobera entzuten etzitzaiola. Mozkor-abotsa zuen. Entzuleak asarre, entzule ez-baña ikusle izan nai baitzuten. Ni neu ere berdin.

Goitia eta Mendieta ara azaldu ziran ere. Manu eta Errodrigo, berriz, orduan galdu ziran. Alkarrekin joan giñanak sakabanatu, eta an topatuakin alkartu: auxe zan legea.

—I atera itzak onera sei whisky. Aguro —Goitia arek esan zuen.

Etzegoen ukatzerik.

—Istimatzeagatik artuko diat —esan nion—. Baña alkola darit.

—Zer estimatu eta zer estimatu-ondo! Edan egin bear duk. Gizon gizonak ez titek estimatzeagatik edaten, txoratu gabe patxaran edan dezatekelako baizik. Zortziña whisky artu dizkiagu dagoeneko onek eta biok, eta emen gaituk: erne, eta beste ainbeste edateko gertu.

Zalaparta ikaragarria jarri zan bapatean. Berriz ere atera zan Rose zalakoa, eta angoak begi uts egiteko asmo tinkoan... Asi zan kantatzen eta mugitzen; bere lizunkeria zabarrak izkutatu egiten zuten bere edertasuna. Txorabio betean ala igarri nuen. Eta narda sakona eman zidaten bere kiñadak eta likiskeria eragabeak.

Alde egin nuen. Bakarrik. Itzali egin bear nituen zuhurtasun printza aiek. Ezertaz ere konturatu bitartean, amorratzen ibilliko nintzan. Ots, mozkortu egin bear nuen geiago, oraindik ere geiago, zearo.

«Hollywood» en sartu nintzan. Rita Smith dalako bat. Beste koktel bi edan nituen. Eztarria sua zan. Burua zearo nahastua. Eortua nuen: enintzan nere buruaren jabe. Ametsetan bezela konturatzen nintzan gauzez; eta ametsetan bezelaxe, erdizka konturatu bai,

egunez baño zorrozkiago agian; baña an irauteko egoki. Bestela, itzarrik, encukan Olazarraga'n gelditzerik.

Marisa topatzea erabaki nuen: auxe zan ango nere laguna; eta maite ezpanuen ere, atsegiñago zitzaidan gaba berakin igarotzea, beste edozeñekin baño. Zergatik ala? Adiskidetasun pitin bat bage-nuelako.

Neska arek, nere ustez, suerte txarra izan zua-lako. Ez au bakarrik, noski. Berak aitortzen zuenez, lizunkoia izan zan oso gaztetandik; baña ezkontzeko agindua batek eginda gero, aurdun utzi zuen. Eta bizitzeko gogoia galdurik, artara jo zuen gero, bere sorterrria betirako lotsaz utzita. Berak zionez oso familia aberatsekoa gizona zan bere senargai ura, eta aurretik ezerk etzuen salatzen lotsagabe arek nai zuena. Baña, gero, Kolonia'ra joan zanean etzegoen ezer egiterik.

Nere adiskideen ustez au ipui bat zan. Baiña nik ez dut uste. Obeto esan: nik eskierki dakit ezetz, ipuia ez dala. Marisa'k etzidan neri gezurrik esaten.

Aurreko larunbatetik enuen ikusi. Bere etxerako bidean eskallera zabal bat jetxi bear zan aurrenik, ogei edo ogei ta amar mallatakoa, bere portalera iris-teko. Eta, aietatik jeistera ninjoalarik, burutapen bat izan nuen: «eta nik nere burua emendik behera bo-tako ba nu, zer? Zergatik jetxi bear ditut banaka-banaka?». Enuen nabaitzen pixutasunik eta andik behera jaurtitzea etzitzaidan astakeria bat. Botatzeko zorian ibilli nintzan, beraz; eta ez dakit nolatan enuen egin.

Gerozkorik enaiz ia ezertaz oroitzen. Marisa'kin oeratu nintzala bai: oroitzapen atsekabea dut gau artakoa. Ardo geiegi sabelean.

* * *

Biamamunean gaizki, oso gaizki nintzan. Gaxorik edo, pentsa liteke. Sekulako errita Loren nere etxe-koandreak; eta etzan arritzekoa: oka-egiñaz pasa

bide nuen gaua. Lekuko iguingarritzat nere maindireak.

Buruko miñaren aundia! Lehertzear irudiz. Eta igande txarra, alafede, biaramun artakoa...

Zorigaistoko larunbat ura ere, ez ote zan negargarria? Bañan etzan ez lehenengoa eta, ez azkena, zoritzarrez.

* * *

Urrengo astelehenean nekez jaiki nintzan.

Loren'ek esnatu minduenean, ametsetan ari nintzan. Eta nolako ametsak! Enaiz gogoratzen zeatz. eta gertaera ez dakit; baña algaraz esnatu nintzan. Bakarrik egon arren parre egiten nuen, nai ta nai ez bezela. Alai nintzan, eta zerbaitek parregura aundia eman zidan.

Gutxi iraundu zuen alere alai-aldi arek. Astelehena zan. Begiratu nueneko zortziak eta ogei ta bost, eta ofiziñara joateko bazegoen kilometro bat. Beraz errieta Olejua'kin. Aginduta.

Kolpe bat eman nuen nere kamain itsaskorrean. Beranduegi zan, bai, baña nerekiko asi nintzan pentsatzen: Sei egun pasa dira, zazpi egun obe. Badator berriz ere eguneroko zurrunbilloa: jaiki, lanera, bazkaldu, lanera, gaua eta berriz ere dana. Beti bat. Goizean esnatu, eta arratsaldeko zazpitan go-go; egun guzian bizi ezbaña iraun eta itxoegin. Eta zazpitan, berriz, bereala aspertu, zer egin jakin gabe askotan. Eta bereala gaua; eta afaldu bearra, eta abar. Eta berdin ere biaramunean. Bein eta berriz eta milla bider berdin. Astean bein atsedenalditxo bat: igandekoa. Segundu motz bat; eta mende bat gero Olejua eramaten, paperak kopiatzen, txatxukeriak entzuten... geroz eta azkarrago zijoazkidan egunak. Biziera jiraka ari dan kurpil ero bat iruditu zitzaidan goiz artan, geroz eta ariñago dabillen zirimola bat. Igandea tximista labur bat biurtu zan. Laister egiten zan kurpilla, amets izugarri bat bilakatu arte.

Eguzkia atera berria zan. Itxaropenez beterikako eguna izan liteke asten ari zan ura; eta askok olakoa izango zuten bearbada. Nik ez: atera berria nekusen eguzki ura, izkutatuta edo izkutatzeko zorian egongo zan ni ofiziñatik irten orduko. Nik ikus nezakeana auxe zan: egun ura, zoragarria izan, edo okaztagarria, galduta zegoela alde z aurretik neretzako. Eguzkia ateratzen ikusi nuen bezelaxe, sartzen ere ikusiko nuen. Baña bietan Olejua'ren jopu naizela. Egun ura derrigorrez zimelduko zitzaidan esperantza bat zan: alperrik zan.

—Berrera, Peru. Berrera! Berandu duzu —ekiten zuen Loren'ek, atean joka.

Ura nazka!

Kontsolamentuak asi ziran berriz. «Egia esan —nere artean—, sei egun ez dira orrenbeste. Erraz igarotzen dira. Bereala elduko da asteazkena, eta biaramuna osteguna da; ots, astean behera goazke... Gañera... ahaztuta nengoan: ostirala jai da. Beraz, astelehena, asteartea... asteazkena aldapan behera da... Larunbata bereala pasako da ere. Motel: ez duk orrenbesterañoko!».

Baña, ortaz, sei egun orren erraz igarotzen ba dira, zer da urte bat? Edo bi? Edo berrogei? «Bereala joango duk» esaten ari naiz, tonto au. Oarkabean indar aundiagoa eman zio edo kari orri, eta zer gerta dadi nere bizieraz? Laburrago egin astea, eta laburrago egingo ere neure bizia. Geroz eta geiagotan zetozkidan pentsamentu illun auek.

Nazka sentitu nuen. Neronen akabatzea zitzaidan kontsolagarri... Ura astakeria! Olejua'ren arpegi gorrixka gogoratzen nuen, eta bere begi urdiñak; eta goragaleak zetozkidan. Goragaleak, bai, berriz ere aguanta bear... aste osoaz... Bere abotsa gogoratzen nuen, bere karrasiak bere arrokeria; eta lanera joango enintzala pentsa zitekean. Nolako gorroto etsia nerea!

Bederatziak amar gutxi ziran. Berandu. Iskanbilla seguru Olejua'kin: beranduegi zala, astelehena

zala, eskutitzen bat... zerbait bazuen ordurako pentsatuta. Seguru.

Enaiz oroitzen; baña oso berandu iritxi nintzan astelehen artan ere ofiziñara. Olejua'k beti bezela, ergeltzat eta zozotzat artu ninduen noski; eta ondo goraki jakiñerazi ere, neri buruz iñor gezurtara etzedin... Baña ainbestetan gertatu ezkeru, etzuen astelehen artako erritak aztarrenik utzi, eta enaiz ezertaz oroitzen.

Eta ez dut ezer galdu.

III

Alako batez, jaiegunen batean, Xabier nere laguna topatu nuen. Bakarrik zetorren; eta bakardade-
tik. Nik aginduta. Ura poza! Xabier onek nik baño
gauza geiago siñisten zuen, eta bazuen kristau fe-
dea. Bañan alere, itzegin egin zitekean berakin: Ja-
kinduria aundiko gaztea zan eta nolanaiko iritziak
entzutea gustatzen zaien oietakoa.

—Kaixo, Xabier, zer dugu? —Esan nion nik—.
Aspaldi ontan alkar ikusi gabe. Zer abil motel?

Eta, segittuan, bere besapetik liburu bat kentzen
niola:

—Beti bat i. Ikusita zegok; i bizi aizeño, ortan
egongo aiz.

—Bai, Peru. Arrazoi duk. Etzeukeat erremedio-
rik. Bazekiat.

Titulua begiratu nuen.

—Alajainkoa! Bergson! Ez aiz ortaz makaldu, e?
Beti ari zan irakurtzen. Nere ustez egiteko on-
tantxe pasatzen zituen egunak eta urteak.

—Eta i, zer? —galdetu zidan— Zer egiten duk?
Orren arrigarri ahal zaik ba Bergson edo nornai ira-
kurtzea? Orreraño jetxi ahal aiz?

—Ba, egia esan —erantzun nion nik— naiko
eskastuta negok alde ortatik. Etzaidak oraindik ira-

kurtzeko gogoa aitu. Au ez. Eta auxe duk nere ondamendia. Baña irakurri, oso gutxi irakurtzen diat bolada ontan. Are geiago: lerrorik batere ez ikusten saiatzen nauk. Badakik esacra famatua: aberetu egin bearra zegok. Beste biderik ez.

—Baña zer ari aiz esaten? Ori guzia oben larria duk; eta igan arrigarri gañera. Zer gertatu zaik motel, orren illetari egoteko?

—Ezer ez. Zenbat denbora da azkeneko aldiz alkarrekin izan giñanenetik? Bi illabete? Urtebete? Zer ajola! Ori ezer ez duk, ezpaita dana. Alaz ere, ni joan nauk.

—Ori ala duk, ortantxe negok ni ere. Baña, utzi egin ahal diok irakurtzeari? Ori bildur utsa duk. Eure buruaren bildur aiz i...

—Ez, ez. Pasa diat aro ori.

—Ez diat uste. Lehen, orain dala gutxi arte oker ezpanago, berandu arte gelditzen intzan irakurtzen. Jakin min ikaragarri ukan, eta ori ez duk bapatean asetzen. Ori ez duk egarria. Edo, naiago ba duk, egarria baldin ba da ere, etzegok berarentzako edari egokirik. Egarriak egon bear bizi artean.

—Ala duk —erantzun nion—. Egarri duk bizia, ezin asezo egarri legorra. Egarriaren egarri. Gure eztarri egartsua asetzeko, ondar kiskalgarri bat daukagu emagarritzat: bizi-naia. Bizitzen segitzeko nai diagu bizi. Baña bizi geraño, aspertu egiten gaituk, edo larritu. Beraz, etzekiagu zertarako bizi geran; baña bazekiagu larrimiñetik ez dagoela iges-egiterik. Orrela, oitura atsekabe bat egiten duk biziera; eta iltzea bera zail gertatzen.

—Ik ez dakusak bidea. Kupidagarri aiz, benetan.

—Ala negok, bai. Baña i eu ere bai; eta ez aiz oraindik konturatu. Ori ez duk larrimiña. Ire fedea tentazio uts bat duk. Ez al duk ikusten? Nik, berriz, desegin egin dizkiat nigan lillura guziak. Erauzi egin diat dana.

—Eure burua il duk ik, eta ori obenik izugarriena duk. Enikek naiko nere gain ire erantzun-bearra. I eraille aiz, Peru.

—Nik ez diat il. Kolpatu egin diat bakarrik. Baña zoritxarrez ez diat akabatu egin.

—Etzak ba akaba. Garaiz duk oraindik. Salba adi, lot akio Jainkoak bidalitako azken aukera orri.

—Ez, etzegok salbatzerik, ik nai dukan eran beinpein. Ik nai duk, ots, siñisten duk: Unamuno'ren itzurpidea. Nik, aldiz, naiko nikek, euk bezela: baña ez diat siñisten. Ik falta duan ausardia diat nik.

—Arrokeria duk ori. Musika ez diat sentitzen; ots, musikarik etzegok. Auxe diok ik.

—Ez orixe. Musika entzun egin diteke, eta bazegok. Baña zergatik ez diogu Jainkoari entzuten? Jainkoa ez dalako.

Kolore guziak ziran zeruan. Illunabar ederra. Nik esaten nuenaren kontrako deadarra zirudien ikuskari zoragarri arek.

—Begira zak, Xabier. Ederra, ez da? Ba, dasta dezagun, goza dezagun. Etzegok besterik eta.

—Zer nai duk, ba, Peru. Pena ematen didak. Ikusi arren, i itsua aiz. Ire elburua ez duk iñundik ere ohea, begietan itsutasuna duenarena baño.

—Ez diat uste. Ai, zuek, xingleok, ilda gero berriz miñutu baterako piztuko ba ziñate... Damua-ren aundia! Ezerk ez dik merezi. Eroak gaituk gizon guziok, eta onek kontsolatzen gaituk. Askok eta askok, geienak eskierki, naiago ditek eroso eta segur bizi, zuhurki baño. Are geiago: zuhurtasuna deitzen ziotek erokeriari.

—Etzekiat nola esan dezakean ori guzia. Bistan duk betebear batzuk merezi dutela; eta anitz gauza, berriz, deus ez dirala: eure teoria ero oiek, gonbazio baterako.

—Ori etzegok garbi iñundik ere, Xabier. Nik ere, amalau edo amabost urte nituela, mixiolari joatea pentsatu nian. Ura bizia! Dana eman, dana eskein... ederra benetan. Baña gero konturatu nauk etzala mixioa ederra, etzala bidezkoa alegia; enuela egin nai nere betebearra ura zalako, ez; ura aundia zalakoan baizik. Egiak eninduen deitu, ba; anditasun-lillurak egin zidakan dei. Baña mixiolaritza etze-

gokan oñarririk, etzegokan asmoa egian finkatuta. Bikaña uan, au bai, Jainkoaren ideia bezela. Besterik ez.

—Beraz, zerk eusten au i? Zeri lot akiok?

—Atsegiñari. Gide egoki iruditzen zaidak. Oraingo une laburra diagu. Goza dezagun, ustia dezagun.

—Eta biziaren bidaia nahasi au bukatzean? Ez al duk zerraldoan amets-egiteko bildurrik?

—Lo... Lo... Amets agian... Hamlet'ek zalantza ori zian oraindik. Nik ez. Bidaia bukatuta, ezta lo ere. Akabo!!!...

Illuna zan dana, eta Xabier'en barnea ez argiagoko agian.

* * *

Udaran asko nozitu nuen. Emakumeen bearra etzan neregandik urruntzen. Andragaia bear nuen, bistan zan.

Noizik bein Monique'z gogoratzen nintzan. Urruti zan ura; baña bazirudien Monique'k nere biziera alda zezakeala. Maite izan nuela iruditzen zitzaidan.

Orduan, berriz, igartuta-edo nintzan: enintzan maitemintzeko gauza. Neska asko ta asko, biziki atsegin zitzaizkidan ezagutu artean; bañan ezagututa, beren ondoan izketan egon da, lan alperra zitzaidan maitemintzen saiatzea. Itsusi ere ematen zuten bertatik, eta arrotz batipat.

Arratsalde batean, ofiziñatik aterata, D. topatu nuen kale nagusian. Freskagarri bat artzera gonbidatu ninduen, eta istimatu egin nion.

D. ezkondata zegoen: ogei ta bederatzi urte izan arren, bazituen bi seme. Irmo itzegiten zuen, eta bazirudien gizon interesantea. Nere ustez, alere, etzuen ezer tinkotasun aren atzean. Polliki esaten zituen gauzak. Biajantea zan, eta bazuan automobilla eder bat. Emaztea eta famelia Bartzelona'n zituen. Ezkondu baño lehenago Zuntzarri'n bizi izan zan; baña, lau urte artan, udaran etorri oi zan bizipairu aste pasatzera, eta berriz Bartzelona'ra.

Bereala ondoratu zitzaizkigun Ana Mari eta bere lagun bat. Ana Mari zoragarria zegoen; baña, nik banekien, itxura utsa zan. Neska arek etzuen giarrik: kaskariña zan, txoriburu, ergela ere noizean bein. Baña ederra benetan. Errodrigo'k etzidan beñere ezer esan berari buruz; baña alkarrekin ibilli ziran lau illabetez... Naiago dut beraz ez segi; Errodrigo'k, ondo ezagutzen dut nik, etzekien eta ortzeko izarrez itzegiten...

Dana zan irribarrea.

—Zer moduz, Peru? Aspaldi ontan alkar ikusi gabe?

Eta segittuan:

—Ona emen X.X. (Enaiz bere izenaz oroitzen).

Nik enien entzuten; baña ura mintzo bear amorratua. Eta zearka D.'i begiratzen zion Ana Mari'k. Garbi zan eginkizuna: aurkeztu egin bear nien D. Bekaizkeriak autsiki ninduen.

—Emen duzute D. nere laguna... Ana Mari... eta...

Berak moztu zuen, bere izena emanaz.

Exeri egin ziran gurekin, eta asi giñan izketan. Ura itz-jarioa! D.'ek zirkiñik egin gabe entzuten zien, lasai, berak zekien bezela.

Bapatean zearo aldatu Ana Mari'ren arpegia; eta ixildu egin zan. Arrigarria.

—Goazen —esan zuen orduan. Eta biak joan ziran, D. parrez asten zala.

—Zer gertatu da, D.? —galdetu nion arri-turik.

—Gauza parragarri bat...

Nolako poza berea!

—Asi zait Ana Mari edo dalako ori geiegi alegeratzen, eta ezkondata nagoela esan diodanean arri-turik gelditu da. Eztu esan bear ez danik ezer, baña berak besterik uste du nunbait, eta zearo lotsaturik gelditu da. Gajoa.

Begiratu nion eskura: D.'ek etzeraman eraz-tunik.

Parrez asi nintzan ni ere.

Baña, bereala, pentsakor jarri nintzan. Bost ajo-la zitzaizkion emakumeak D.ï: auzi ori guztiz ahantzita zeukan. Eta ortatik zetorkion oreka arek kezkatzen bide zituen emakumeak. Bera etzan arroa eta etzidan ezer esaten. Baña banekien nik bere arrakastaren berri.

Bekaizkeria nabaitu nuen arekiko. Nigan emakumeak istillu nagusia ba ziran, beretzat entretenigarri ziran... eta orregatixek agian lilluratuta uzten zituen. Itzalarekin gertatzen dana: «segi zazu, iges doa; iges egiozu, ondotik duzu».

Artuko nukean. Baña, ikusten danez, nik enekien iges egiten. Eta egiten nuenetan ere, igartzen zidaten emakumeak sasi-igesa zala bakarrik nerea, eta xeletan begiratzen nuela ondotik ote zetozenentz...

* * *

Aro artan maiz orditzen nintzan. Batzutan kordea galdu arte; bestetan, berriz, berotuxe gelditu artean bakarrik. Naiago nituen erdi-mozkortze auek, guztizkoak baño. Mozkortzen astea gustatzen zitzaidan, batipat. Baña oso etsita nengoenetan, eta au sarritan gertatu oi zitzaidan, zero mozkortzeko gogoak ematen zidan: dana ahantz, nere egiazko biziera alde batera utz, lillurak berriz senti, gezurrezkoak ba ziran ere; bizitzeko alaitasuna berriz nabari... Are geiago: serioegia nintzan ni (besterik iruditu arren), eta nerez ez nuen alegerantzia ardoaren bidez eskura ahal nezakean ezker, zergatik esan ezetz?

Ni mozkortzen nintzanetan oso berritsu biurtzen nintzan, eleketari porrokatua, itzontzia. Ao batez esaten zidaten au lagun guziak. Baña, entzutea alere, laket zitzaidan: ez edozeñi, «xelebreak» ziran nere kuttunak gau aietan. Oso atsegin zitzaidan berakin jardutea. Une oietan gizona ari da, eta ez bere eskola itxura. Mozkorren bidez ikusi izan dut nik garbi, gizon guziak pairatzen dutela. Askori, mozkor

daudelarik, entzun izan diot lehenengo aldiz egiazki mintzatzen: arimako oñazeak gau-miñean entzun ditut, ez eguerdi aldean.

Gizon zentzudunak gutxiesten nituen orduan ere. Eta poziago joaten nintzan gauez etxekalte eta alprojakin itzegitera, nere lagun geienakin baño: beren istorioak entzunaz zorionsu nintzan ia. Beretako geienak mundu guziak arbuaiatuta zeudean. Guzien ustez gaistoak ziran, alper lotsagalduek, edo gizar-teko ondakiñak... Askok etzuten lanik egiten, eta gurasoen edo fameliakoen lepora bizi oi ziran. Lanegin bearraren gogorra etzuten sekulan ezagutu, eta bekaizkeria apur bat ematen zidaten: ni baño argiago ziran alde ortatik. Alegia, lan egiteko gauza etziran, eta kitto: lanik egin ez, eta or konpon. Olejua ezagutu ba lute...

Gau izartsu artan nerekin zegoenari, bere bi arrebak ematen omen zioten jaten, etxeko gañerantzekoak, ezer etzekitelarik. Etxearen atzeko aldera joaten omen zan arratsaldeko irurak aldean, eta an, izkutu izkutuan, janari batzuk ematen omen zizkieten platera batean; eta onela, eskale baiiltzan, iraunduz zijoan; eta biziko ba zan, ortan egon bear-ko...

Askok aldegiten zioten gizajo ari. Mariñela izan omen zan gaztetandik. Eta gerratea iritxi zanean, itsasoan egin omen zituen ere gerrako bost urteak. Eta geroztik omen zebillen ain eskas.

Urpeko ontzi edo sumariñoan pasa omen zituen iru urte t'erdi eta Walcheren'go batalla, berak ikusitako azkena, etzitzai on beñere ahaztu. Gizajoa! lzerdi patsetan jartzen zan kontatzen zuenean; ots, gertakari izugarri ura berriz gogorazten zuenean, bizi egiten zuen berriz dana.

Bere ontzia urpetik omen zijoan. Ondorago jetxi bear omen zutela, ba omen zekiten danak: oartuak zitzaizkion alemanak, eta pittin bat deskuidatu ezkerero, sakon-bonbaka asi, eta kitto. Zirkiñik egin gabe ba, begiratzen omen zioten danak alkarri. Ordu geiegi omen ziran urpean, eta bero izugarria omen

zan barne eze artan. Izerdi tantoak bereala egiten omen zuten bere bidea masallean zear. Dana ixillik. Beherago eta beherago. Eta bonba lehertzearen zai. Ikararen lazgarria! Biotzeko taupadak geroz eta asal-datuago nabaitzen omen zituen. Eztarria, berriz, estuegi omen, eta ezin txistua irents.

Ortan zeudela, dunbada izugarri batek. Danak zerraldo erori omen dira. Oartuak dira alemanak; dudarik ez. Eta eskapatu egin bear da urpetik eta egiñaletan. Ura ito-bearra! Ezin bizi, ezin arnasa ar, ezin zutik segi. Makiñen usaia, gero eta biziagoa eta sarkorragoa, kea, beroa, ezatasuna; eta dunbadak eten gabe. Batzuk asneke bezelako min batek jota bezela dautzaz, nekelarrian. Bera ez asieran, zionez; baña alako ordubete ilgarria pasa ondoren, asi omen da ere arnasa ezin artuz, eta itotzeko zorian bezela. Il pentsatu omen zuen irmo. Arnasa bear omen zuen, aidea, aide bolada fresku bat... Baña ezin...

Atera omen ziran bizirik. Bañan ordutik onuntz ezin omen zezakean ordu erdi batez ere irauan toki itxi batean. Kanpora atera bear omen zuen nai ta naiez; ala il.

Ez au bakarrik. Neronek ere askotan ikusi nuen gero kaleko izkiña batean, geldirik, eta arnasa bapatean asnekeak emango ba lio bezela artzen: iltzear diranen gisan betetzen zuen bularra, biriketean miña nabaitu arte, nere ustez. Eta geroz eta geiago, geroz eta geiago altxatzen zituen besoak. Orrela minuturen bat pasatzen zuen, eta gero bideari ekiten zion, jendeak ikusi zuela nabaitu ere gabe.

Édatea bearrezkoa omen zuen. Ez, alere, trabena batean gelditzeko: ez orixe. Edateko bear aña irauten omen zuen bakarrik barruan. Gero, kalera, egurastera, larritasuna as baiño lehenago.

Alpertzat zeukaten errian, eta berak izugarri sufritzen bide zuen argatik. Bera ez omen zan alperra: Ito egiten omen zan, eta onengatik ez omen zezakean lanik egin.

Pena eman zidan. Eta pena onek biziki larritu ninduen. Xabier'i esan nion bezela, il egin nai nituen.

nigan sentimentu guziak, kupida guziak, errukiak oro, kezkek, gorago-naiak, dana. Ilkintza ontan saiatzen nintzan aspaldidanik; baña agirian zanez, oraindik bazan nigan gizontto bigun bat, belaxka bat: erdi-kristau bat. Eta akabatu egin nai nuen ura. Baña... urruti oraindik.

Mariñel izandako gizajo ura etzan ezer nere bizian. Mozkor-gau bateko laguna, besterik ez. Gogortzat neukan nere burua, emakumeetan soin uts bat ikusten nuelako. Baña zorigaistoko biotz bat neukan ere, sentikor, errukior, besteren zorigaitzak oraindik ikutzen zutena.

Bigunkeri printza aiek itzali egin bear ziran ere; baña enekien molatan.

Dana dala, aitortu egin bear zan: Gizon ura etzan alper bat. Eta eroa ahal zan?

* * *

Kepa eta Manu topatu nituen «Lupiña»enean andik egun gutxitara, eta artaz itzezin nien. Ots, zer ote zan mariñel ura? Baita eztabaida beroa sortu ere!

Manu'k, beti bezela, arinki ikusi zuen auzia; eta alperra zala esan zuen. Bere ustez etzegoen erdian geratzerik. Eroa zan ala alper utsa. Eroa baldin ba zan, nola etzuen ezer okerrik esaten? Ezagutzen omen zuen berak; askotan itzegiten omen zuten alkarrekin, eta ez omen zitzaion erotasunik inundik ere nabaitzen. Noizean bein xelebrekeriren bat esaten omen zuen, bai. Baña eroa? Ezta gutxiagorik ere. Gogor artu bear zan, besterik ez. Arrebak omen zuten errua, jaten emateagatik. Gogor, gogor egin eta aurrera. Dagoeneko sendo egongo omen zan.

Kepa'k alderantziz ikusten zuen. Ura etzan alperra, onen iritziz, eroa baizik. Etzuen ezagutzen, baña entzun zuena aski zuen zertsu zan jakiteko. Astakeria nabarmenak egitea etzan bearrezkoa bere erotasuna arkitzeko. Ondo agirian zegoen gertatua: «Walcheren»go batallak zearo ikutu zuen, eta zoratu

egin zan aren ondorioz. Orrengatik etzuen lanik egiten: barne-oreka galdua zuelako.

Ondo zegoen au. Manu'ren azalpena baño zorrotzagoa zan. Batallako «shok»ak geiegi astindu zuen.

Baña lehen esan dudan bezela, eninduen onek ere bete. Bistan zan gizajo ura etzala alper bat. Bere erotasunaz, bestalde, zer pentsatuko? Ez dakit.

Agian erotasunak azal lezake dena: eroa zan, besterik ez. Baña neri etzitzaidan uste au gustatzen: xinglegia iruditzen zitzaidan.

Mariñel arek etzuen lanik egiten; alegia, asko lan egiten zuen bere barruan, baño diruaren aldetik, etzeukan bizimodurik. Jendeak bezela itz egin ez-kero, etzuen «lanik» egiten, ezpaitzuen sosik irabazten... Demagun.

Baña, zein zan karia? Zergatik etzuen mariñel arek lanik egiten? Sasoiean zegoen soiñaren aldetik: sendoa zan eta berrogei urte ere etzituen. Alde ontatik, ba, etzuen aitzekiarik: egin nai etzuela pentsa liteke, Manu'k uste zuen bezela. Baña entzun ditzagun mariñelaren beraren itzak;

—Ezin dezaket lanik egin. Ito egiten naiz, Walcheren-ugartearen ondoan geundean egun artan bezelaxe. Kanpora atera bear dut nai ta nai ez. Bestela, ito egingo nintzake.

Beraz lanekoa baño egiteko premiazkoago bat zuen mariñelak: ondoratze izugarri artatik libratzea. Pena ematen omen zion lanik ez egiteak; baño beste gauza ura egin bearrean zan: itotzetik begiratu. Orrengatik pausatzen omen zan kale-izkiñetan: arnasa sakonki artu bearrez. Eta, orain ez: baño asieran ba omen zan danaz konturatzen; jendeak ikusi eta parregiten ziola eta abar. Baña Welcheren'go oroitzapenak menderatzen zuen dana, bere barrunbea, zoko guztietaraño edatzen zan; eta azkenean etzegoen ez kalerik, ez jenderik ez ezer. Izerditan asten zan, gero antsian eta azkenean... Walcheren'en zan berriro. Bizirik atera bear zan, baño aizerik etzegoen. Eta berriz orduko larritasun ilgarria.

Baña etzan egiazko ondorapen bat: etzegoen itsa-

sorik, ez ontzirik. Walcheren'go gudua sei urte lehenago gertatua zan, eta Zuntzarri'tik milla ta bosteun kilometrotara. Alaz ere gizajo arentzako naikoa: izan, ura etzan ondorapen bat; baña bazitzaion berari. Besteentzako ezer etzan gertatzen; baña bera an bertan, uriaren erdian, ito egiten zan bere ondoratze izugarri eta eguneroko artan.

Batek esango dit agian: Kepa'k bezela: «eroa zan: ondoratzeke arriskurik etzegoen an». Baña orduan elegoke ondorapenik. Oso gutxi baitira itsaso egiazkoan ondoratzen diranak; danok, berriz, ondoratu oi gera geure barne-itsasoan. Negoziotako gizonak negoziotako kontuetan itotzen dira egunero, eta gau guzia lorik egin eziñean pasatzen dute; bestek famaren kezka bizian; eta beste askok amorraien munduan: biar orrelako arrapatu bear dute, eta ortarako au ta ura eraman behar dute... Are geiago: egiazki mintzatu ezker, eta orrela ari naiz, zenbat ikaratzen dira pekatu egin dutelakoan eta Jainkoaren zigorraz oroituta? Baña Jainkoa ezta, mariñelaren itsasoa ez dagoen bezelaxe.

Ez, ez. Ura etzan eroa. Gañera berak bazekien beintzat zertan zan bere kakoa. Zoro argitua zan: ba-zekusen zerbait. Zerbaitez konturatzen zan eta senda zitekean agian.

Gu, besteok, ez: ez zuk eta ez nik ere. Ezin dakikegu guk gure erotasuna zertan datzan. Gure baitan omen gaude.

Ots, okerrago gabiltza gu, ura baño. Mariñela irudi argitsua zan guretzat. Bere itsasoa gizonaren asmamena da, eta bere ontzia guzion biotza. Ots, danok gaude bere artan.

Eta burutapen arrigarri bat izan nuen orduan: eta, itsasoa eta ontzia mariñelaren burutik ken ba litez, zer gerta ladi beregan? Pakea, pakea nunbait...

Enekusen ondo. Baña ideia ontan bazegoen asaldatzen zuen zerbait. Eta asaldatu ondoren, ideia orrek berak lasaitzen ninduen. Izugarria zan sumatu nuena!!!

Itsasoa eta ontzia gugan akaba ba genitza...

IV

Olejua'ren istilluak etziran bukatzen, jakiña. Egun askotan banuen nik nere sesioa berakin. Lehen aña gorroto minduen berak, eta nik bera geroz eta geiago.

Tinbrea jo zuen egun artan. Igo ni eta galdera xehe bat berak: «zein egunetan jaso genituen olako tamañatako barautsak?». Baziran almazen artan mota guzietako tresnak, eta neurri guzietako barautsak. Nola jakin nezake, danaz gañera, onelako xehetasun bat?

—Barka zazu —esan nion—. Berealako batean begiratu, eta esango dizut.

Alajainkoa! Bere zaiñak lehertzeaz jarri ziran, bestetan bezela:

—Kaiku kirten zozo ori: irakurtzen ere bazekiat nik! Apurtu egingo induket!!!

Etzegoen erremediorik: muturrak nik berari auts, ala berriro ere ixil. Au aukeratuko al nuen?

Ez dakit zer esan nuen. Nazka; nazka, nazka: auxe zan gañezka bete minduena. Gaizki egiñen nuen ura berriz ere eramanaz. Desmasia geiegi ziran. Barnean sua, galda gorria! «Noiz arte iraunduko, Peru?» Odol olatuak loetan.

Olejua'gana igo mintzan lehertu bearrez. Ennintzan nere buruaren jabe; nazkaren orditzea zan. Eza-

gutu duenak ba daki zer dan: sukarra, urduritasuna, eskubitara edo ezkerretara jo-bearra, ezin iraun bat, ercaldi bildugarria.

—Adi zak —nik berari—, emendik aurrera egin zak ire ama eure oakide, baña nitzaz ez duk parrerik egingo!!!

Eta, esate berean, sekulako ukaldia eman nion sudurrean, atzeraka lurrera botiaz.

Eldu egin ninduten. Odoletan zan Olejua. Odola ikusita geiago sutu nintzan, eta kolpe batez elduta ninduten bi lagunak jaurtiki nituen atzera, eta alki bat artu nuen bi besoez. Jotzera ninjoalarik berriz lotu ninduten lau edo bosten artean. Ezin arnasa ar. Indarka egin nuen, baña ezin aska. Behera jetxi ninduten danen artean. Dendako guziak eta Etxeberria bera ere, an ziran neri so. Piztia iguingarria bide nintzan ni.

—Kanpoan zaude oraindik beretik —esan zuen Etxeberriak. Nere lagunak izuturik begiratu ninduten, baña etzuten txintik atera nere alde. Ni mutu nintzan, noski, eta lerde-jario; eta tutik ateratzeko alde egin nuen andik.

Enintzan geiagotan itzuli, eta beñere azalduko naizenik ez dut uste.

* * *

Loren nere etxekoandreari enion ezer esan: is-tillu galanta zetorren, eta etzan presarik. Lehendik ere, dirua zor nion. Beraz lanik gabe gelditu nintzala ba leki, kanpora. IXildu egin nintzan, egun batzuez, beñipein, luzatzekotan.

Baña gauean etxera iristean, sobre bat arkitu nuen neretzako oearen gañean: «Peru Leartza-Eskuz esku». Ideki egin nuen. Beñere etzait ahaztuko andana ura: 1.362,35 pezeta. Gutxiago ezin eman: ala progatu nuen kalkuluak egiñaz. Zitalak!

Alere etzan ura arritzekoa. Alderantziz gertatu izan ba litz, orduan bai arritu bearra. Paga zitekean

gutxiena eman zidaten. Noski. Besterik egin ahal lezake ba Olejua madarikatu arek?

—Ba dakit dana —esan zidan Loren'ek, nik us-terik gutxienean—. Goitik behera kontatu dit dana. Etzaitut espantuakin ikaratu nai; baña uler nazazu: irabazpidea galdu ba duzu, eta ordain ezpadizaidakezu, nik ez daukat irauterik. Epe bat emango dizut; baña ura amaituta konpondu ez ba zera, kalera joan bearko duzu.

—Ondo da —erantzun nion. Eta gelako atea itxi nuen.

Etxera joan bear. Etzegoen beste erremediorik. Etxera joan, egia esan, erdizka beñipein, eta beste bizibide bat arkitzen saiatu. Fameliakoak etzidaten noski dana sinistuko; eta erritan egingo zidaten. Baña etzegoen gustoko biderik; eta ahal zitekean artatik jo bear. Baña joan baño lehenago, nere gogara bizi nai nuen egun batzuez. 1.362 peseta etziran asko; baña aste oso bat primeran pasatzeko aña bai. Eta nik uraxe nai nuen, uraxe bear nuen.

Dantzara joatea erabaki nuen aurrena. Nora? «Soloarte»ra, Lizarreta'ko bidean, ots, itsasoari so.

Ahal nuen dotoreena jantzi eta aruntz abiatu nintzan ba. Bidenabar, alere, loteria erosi nuen: bosteun peseta artu nituen. Beñere etzitzaidan ezertxo ere irtetzen; baña berriz ere saiatu bear nuen; tokatzekotan aberats. Astakeria zan agian ura; baña nere onetatik aterata nintzan, eta enuen iñolako neuririk nai. Dana lor, ala deus ez.

«Soloarte»ra iritxi nintzan. Gaua ederra zan, eta andiko ikuskaria ederragoa. Dantza lekura sartu nintzan: neska franko, eta gizon asko, geiegi. Flirt bat bear nuen, ahalik eta eroena. Enuen nai beraz emakume seriorik: emakume gazte eta ugaritsu bat bear nuen. (Egia esan, beti nai izaten nuen alakoa; baña egun artan gogotsuago).

Eta orrela ezagutu nuen Bego. Gero ikusi dut etzala ain joria, baña egun artan besterik iruditu zitzaidan.

Otzean jokatu nuen asieratik. Iruna whisky artu genituen biok, eta alaitu egin zan bera... nola ez! Gauza arrigarria: asieratik izan bide nintzaion atsegiña (gutxitan gertatzen zaidana), eta beregan ezpide zegoen neretzako esirik. Ezagutu eta ordubetera, ezpaitan eman nion musu aragikoi bat, gau artako lenengoa, pistan bertan; eta andik aurrera esan nizkion xurikeria guztiak ontzat artu zituen.

Atera egin giñan. «Soloarte»tik Zuntzarri'ra ba ziran bi bat kilometro. Bide illuna zan, bikoteak maite zituztenetako bat. Oñez joatea erabaki genuen.

Kamiñoaren alde batean, ba ziran piñuak, eta an geratu giñan berriz abiatzeko presarik gabe. Ni pozik, noski, ezpainuen besterik billatzen. Bera ere, atsegiñez, iduriz.

Toki itzaltsu batean exeri giñan, eta bere bu-larren xarma dastatu nuen.

Berandu iritxi giñan, baña patxaran alere. Bera ordituta bezela zijoan etxera. Siñistu eziña zan: arratsalde artan berean ezagutu alkar, eta arañño allegatu?

Biamuneko bostetan alkarrekin ziñera joatekotan gelditu giñan; eta piska bat ahaztu zitzaidan nere egoera. Baitzerdi!

Zer ekarriko ote zidan biaramunak?

* * *

Urrengo egunean ondo apain jarri nintzan Be-go'gana joateko. Urrinzatu ere egin nintzala gogoratzen naiz.

Bera etzan asko berandutu: bereala azaldu zan esandako biltokira. Blusa urdiña zeraman, eta gona estua. Ederretsi egin nion.

Urduri zetorren; alegia lanetik lehenago ateratzeko asmatu zituen gezurrak, ez-pide zuten sobera lasaitzen. Bearbada norbaitek ikusiko balu... orduan konponketa txarra izango luteke berak kontatutako ipuiak.

Bego jostuna zan. Neskazar errabiatu baten menpean lanegiten zuen, eta, esan zidanez, ordu geiegiz aritzen zan egiteko artan. Oso gutxi ordaintzen omen zioten; eta bereala konturatu nintzan bere egoeraz.

Ziñe batera joan giñan bost'et'erdietan, ez dakit zer ikustera. Illuntasun artan doi-doi agertzen zan bere begitartearen isla, eta arrotz gertatzen zitzaidan. («Zein ote da au?»). Bestetan, berriz, segittuan agian, adiskide eta ezagun. («Bai, bai, Bego da»). Geiegi itzegiten zidan: dana zan galdetzeko zio. Batzutan lilluratua bezela arrapatu nuen neri so: printziperen bat ahal nintzaion? Azkenean, ainbeste galdera eta erantzun ondoren, enuen pelikula ulertu; eta gogait xamar irten nintzan ziñetik.

—Zer iruditzen zaizu Arduaga aldera joatea? —galdetu nion—. Itsasertzetik zijoan lehenbizi, Lizarretan barna, eta gero bide txigor eta illun bat zan, Anduaga'ko parkeruntz. Bazter polita, benetan.

—Ederki, bai —erantzun zidan.

Nere biziera piska bat azaltzeko eskatu zidan. Eta azaldu ere nion. Baña, nolako azalpena! Nere ustez, esan nion guzti guztia, itzetik ortzera, gezurra zan. Berari esan nionez, maixu nengoen eskola batean; eta txolarteetan Filosofia ikasten ari nintzan, karrera ontan lizentziazteko asmotan... Umezurtz nintzan umetandik, eta emakumeak etzitzaizkidan ajola... Alaxe zan azken bolada artan; eta berdin ere Bego'rekin; arek aragikeriarik izan ezpalu, akabo: enukean berakin ordubetez ere iraungo.

Nere burua geiago apaindu naiean, gauza arrigarririk asko esan nion gajoari, idearik arruntenak eta jakiñenak bailirakean; eta bera lotsaturik zegoen, bere ez-jakiñean.

Lizarreta'ko paseua bukatuta, Anduaga'ko parkearen ondoan geratu giñan. Gaua zan: udazkeneko gau epel eta ixil bat. Denboraren arnasa etena zan an, bañan ez Zuntzarri'n: denboratasuna otsean datza. Ixillak geldiarazi egiten du denboraren igesa.

Debeku zan arrats ondoren Anduaga-Enea'ra sartzea. Orregatik sarrerako atea, egunero isten zuen

parke-zaiñak, aurretik tutu batez iru soñukada emanda gero. Baña parkea zabala zan, eta aurreraxeago Lizarreta'tik beretik aixa pasa zitekean barrura; sasiak eta baziran tartean; baña pasa egin zitekean, piñadia bukatuta.

Eta sartu egin giñan gu biok. Enborren eta adarren artetik Zuntzarri'ko argiak diztiratzen zuten, eta itsasoa lotan zetzan... Musu luze bat eman nion, eta eze xamar arkitu Bego'ren ezpañak.

Giroarekin batera zijoazen nere itz legunak, eta egiazkoak ziruditen, eta bero-beroak; baña, otxak ziran eta gezurrezkoak. Alarik ere miztoari darion pozoiak bezela, nere ao faltsutik ixuritzen ziran eleak zearo xoratu zuten. Eta, indarka labur baten ondoren, nereia izan nuen...

Anduaga'tik itzultzean negarrez asi zan bera.

—Egiña damutu ala? —galdetu nion.

—Enauzu maite, Peru —berak erantzun—. Ba dakit enauzula maite. Are geiago: nere bizia oraintxe emango ba nu zure maitasuna inguratzeko, badakit alperrik izango litzakeala. Alperrik da, eta dateke: igarri egin dut. Zu etzera sekulan nere izango...

Zoratu baten itzak zitzaizkidan aiek.

—Nik ostera, zu arkitzean, seguru nago, maita dezakedan gizon bakarra topatu dut. Ez dut zalantzaren arrastorik. Zeu zera, Peru, eta betirako gañera, nere maitea.

Eta zotinka asi zan, bere indar guziez ni besarkatuz.

—Ezin a!! —ekin zuen.

Eroa iruditu zitzaidan. Etzidan kupidarik ematen, zeatz gogoratzen naiz: ikusgarri bat bezelaxe nekusen bere negarra, eta zorionak eman nizkion nere buruari: gogorturik ote nengoen? Ba zan garaial Bigunkeria txiki bat izan nuen bakarrik, naiz osoa ez izan, neure buruan pentsatu bai nuen. Etxerako bidean, ostegunean alkar ikusiko gennela agindu nion, zeren pena-ixpi bat nabaitu nuen bere malko etendu-eziñak ikusita.

Bere etxean utzi nuen. Beste musu bat eskatu zidan joaterakoan. Nere gorputzak etzuan ia sukarririk: lasai zan. Ots, zegokionez, musua ere otza izan zan, nere animaren oztasuna baitzeraman utsik.

Berriz ere negarrez ari zala uste dut, bañan ezin esan, korrika joan zitzaidalako.

Nere gogortasuna arrigarria zan, benetan. Aurre-
rapenak egiten asia nintzala zirudien.

Garaille nintzan. Lasaitasun fisikoa nabaitzen nuen, lazotasun epel batek artua zuen nere soñia. Zalantza au bakarrik: zer nintzaion ni: neu, ala beste bat? Egia esan, zer ajola neri? Baña «beste bat» izan nintzala jakin ba-nu, nere arrokeria minduko zan, eta naiago nuen garaillea neronen nortasuna zala siñistu. Enindun besterik ezerk kezkatu gau artan.

Agian, seguru asko obeto esan, komeria utsa ziran bere egiñak oro; eta ain gogorki jokatu ezpanu gogoz joko zidan adarra... Zeren, ezin siñets zitekean berak egiña egia zanik.

Pentsamentu auek, alabaña, itsusiak ziran, eta enituen aintzakotzat artu.

Gero, noiztanka, oean nintzala batez ere, nere egoera kezkarria bururatu zitzaidan. Gogorra zan nere inka. Nundik joko?

Gogorra zan, bai.

* * *

Osteguna iritxi eta enengoen ahaztuta: uraxe zan Bego'ri esandako eguna. Joateko gogo-arrastorik ere enuen. Zer egingo ote nukean nik bostetatik amarrak arte? Izugarri luze gertatzen zitzaidan epea, ezpainezien inñundik ere bost ordu aiek zertan erabil. Tontotzat artu nuen berriz nere burua: eroa al nengoen, ba, alkarrekin bost ordu oso pasatzeko moduko zita bat antolatzeko? Pikoan ahal nintzan agian alako ergelkeria erabakitzean? Bostetan Bego topa, eta seirak jo, eta zazpiak eta zortziak... eta oraindik alkarrekin? Zertaz itzegingo nion orrenbeste den-

boraz? Nora abiatuko? Txorakeria, bai, eta txorakeria galanta gañera, biguñaldi artan egin nuena.

Eneukan joaterik, garbi zan. Baietzik eman ezpanio, obe; baña, emanda gero ere, uts egin bearko nion. Kupida zirudien zerbaitek ikutu ninduen; baña parregura eman nion nik neure buruari, eta erabakian finkatu nintzan: bostetan enintzan ara azalduko.

Gandera-mendira joan nintzan. Olazarraga ikusteko gogorik enuen, eta atzeko aldera abiatu-rik, itsaso zabala ikustekotan, Xabier nere laguna topatu nuen. Ederki bizi zan, benetan: lanik gabe nengoe-lako ikus nitzakean nik Gandera'tiko bistak. Baña bera, agirian zan, noiz-nai joaten zan nora-nai. Lehenengo unean eninduen ikusi: liburu batean murgil-duta zegoen, kanpoko edo inguruko ezertaz kontu-ratzen etzala.

—Kaixo, Xabier —agur-egin nion, ia bertatik.

Pittin bat arriturik gelditu ondoren, eta gerta-zen zanaz kostata oartuta gero, erantzun zidan:

—Zer da?... Kaixo, Peru! Ustekabean arrapatu nauk, eta ezin nindekean ortara itzul. Zer moduz?

—Ementxe ba, paseatzen. Au ederra zegok, eta tokia ezagutzen dukala bistan duk. Zugaitzen itzala ez duk falta emen, eta ba duk, batera, exeritzeko be-lar gizen xamarra. Ondo zegok, bai!

—Alaxe duk, Peru. Exeri adi i ere. Bazegok ire-tzako leku txukuna eta eroso, ikusiko duk.

Arrazoi zuen.

—Nola emen i? Utzi ahal diok lanari?

—Ez, baña libre negok; eta nere azkatasun ori gozatzen ari nauk. Azkenik eta era txarrera ba da ere, lanik egin gabe bizitzea zer dan jakiten asia nauk. Eta egia aitortuko diat: ederragorik ez!

—Bai, ortantxe negok ni ere. Baña, nola bizi aiz? Zertaz alegia?

—Ezertaz ez. Naiago diat goseak il, il arte ortan biziaz ustia ba dezaket.

—Bai: txantxetan ari ba aiz, ondo zegok. Baña arrituta naukak. Bost et'erdia-² dituk; eta onelako garaitan ez aut emen beñere ikusi.

—Ala duk. Baña lanik ez diat. Zer nai duk egi-tea?

Gure aurrean itsaso zabala.

—Egitan? Zerbait gogorrik i.an ahal duk ba Olejua edo delako orrekin?

—Orixe bai. Eta lanetik bota nautek.

Keñu bat egin zuen.

—Enauk alere arritzen. Arekin gaizki konpon indekean i, nik dakidanez. Olejua ura, oker ezpango, goikoen alde zegokan beti, eta i, beti ere goikoaren aurka. Ura dagoen guziaren aldeko bide duk, eta i kontrako. Munduaren alde ziaak ura, eta i kontraka. Eta etzeneukaten ondo konpontzerik.

—Guztiz ondo azaldu duk.

—Eta orain zer?

—Etzekiat. Oraingoz ondo bizi. Banian gogoa orain bizi naizen bezela, bizi ahal izateko. Eurea bai mauka! Goizetan eskolak eman eta arratsaldetan ire kasa. Ori bai mauka ederra!

—Nerekiko ala duk. Baña aspertu egingo lirake asko nere ontan ba leude.

—Ni ez, siñistuta egon. Pozik artuko nitek nik ire biziera ori.

—Tira ba. Asi adi, eta nai izan ezkeru eskuratu egingo duk; lehendabizi zail xamarra izaten duk; baña bizitzeko aiña bear ba duk, bakarrik, moldatuko aiz denbora gutxitan.

Nolako poza nuen erraietan!... Baña nik enuan titulurik, eta ez ezer... Amasei urte nituela asi mntzan lanean. Muitza'n lehendabizi, nere erritik iru kilometrotara, zapatari zahar batekin eta gero Zuntzarri'ra, ogei ta iru urterekin etorrita, Olejua mardarikatuarekin. Ots, nik nekiena, neronen aldetik urakurri nuenari eskerrak nekien. Elburua ederra zan, bai, baña alperrik zan. Noiz ikasiko? Nolatan? Nola lortuko nuen eskolak emateko bear dan legezko gaitasuna?

—Etzekiat ba, Xabier. Etzekiat. Berandu duk. Epe bat bearko nitek ortarako. Edo... etzekiat!

—Zer egin bear duk, ortaz?

—Etzekiat. Etzekiat ezer, ezer ez diat ikusten, enauk ezertarako gai, etzeukeat laguntzarik batere... gurasoak ere probe dituk... Aidean negok.

Eten egin zan solasa, eta biok itsaso aldera begiratu.

—Ikusiko diagu. Itxaron egin beariko, —nik.

—Ez uste izan gañera —ekin nion nik— oso etsita edo nagoenik. Ez, ez. Alde batetik pozik negok. Barkaziorik ez diat beñere izan...

—Eta, legeak?

—Legeak ondo dituk. Baña bizi egin bear duk. Eta Etxeberria arek, biotz-biotzean miña artuz atsendenaldi bat ematen zigunean gurasoen etxera joaten nindukan ni beti; udaran baitziran beti barkazioak, eta lanik aundiena orduantxe baitzan nere gurasoen dendan.

—Gogorregia benetan.

—Bai, eta erants egiok orri guziari, arimaren kezka, eta egia ezin arkitzea. Eta ondo ulertuko duk orduan lehengo egunean esan niana: mundu ontan ez dagoela ezer bidegabekeria eta indarra besterik; indarrik ez duenak, ederra egin dik. Eta auxe duk nere kaso.

Xabier'ek etzekien zer esan.

—I oso ederki bizi izan aiz beti, Xabier. Gaztetan karrera bat egin, istudianteen bizimodua eramane bost edo sei urtetan... Primeran! Besteon bizia ezagutu ez duzutenok bakarrik; uka dezakezute zuen gaztaroaren zoragarria. Zuek, dirudunok, minkatza zer dan ez dakizute.

—Esajeratzen dukala uste diat. Nik ere bazekiat ondo lanaren bearra zer dan.

—Ik ez diok antzik ere ematen. Eguneroko arratsaldeak libre dituan batek, jakin dezakeala uste al duk ausaz? Ez, Xabier, ez. Zazpi urte jasan bear dituk aurrena zapatari baten istilluak, eskaretze estu eta illun batean; eta gero, lau urtez Olejua'ren zitalkeriak egunero eta ordu oro zanpatzen auela ikusita; eta amaika urte pasa bear dituk onela, no-

rarik gabe, are geiago: sosik gabe! Ire barruan osasuna nabaitu, bizi-gogoa, maite-miña, zeruaren urdiña sentittu; eta alere, egunero, kaiolan dagoen txoria bezelaxe, egunero piska bat itzali, egunero piska bat zimeldu. Eta itzali eta zimeldu ala, eman zaikan aukera bakarra galtzen ari aizela ikusi... ori izugarria duk, izugarria. Nere biziak ez dik gaztetasunik ezagutu... Beste batera esateko: izan diat, bai, baña kaiolan gazterik iltzen dan txoriaren gaztetasuna izan duk. Siñis ezak: sarritan probeok gaxorik egon bearko genukeala pentsatu diat. Ik eure erosotasun ortan, onelakorik suma al ezakekan?

—Zer nai duk esatea. Bai eta ez.

—Ez, eta ez. Agian nik aukerarik izan ba nu, zerbaitetara iritx nindekean. Baña, uskeriatan akabatu zaidak gaztaroa. Orain, ogei ta zazpi urterekin, berandu duk edozertarako. Geienez kaiolan zahartutako leoia izan naiteke. Besterik ez. I ez aiz konturatzen: ik ez dakik «berandu duk» esatea zer dan!!

Ixillik berriz biok. Itsasoa urdin.

—Gero, berriz, onela gaudelako, nora eltzerik ez dugulako, ezertarako betarik arkitu ezin dugulako, gogoaren iturria agortzen zaiguk. Neri, neroni ere, naizen bezin kezkatu izan arren, naikoa eskastu zaidak gogoa fitxen artean. Gogortu egin nauk irudimenean, eta kaskagortu. Janari egoskaitzak artu dizkiat betidanik, eta gorputzarekin batera, burua ere aztundu eta kamustu egin zaidak.

—Bai, Peru, baña ez duk orrenbesterañokoa. Irakurri ere egin duk ik.

—Bai afalonduan, oso berandu arteko epea artuaz, eta euk utzitako liburuetan. Eta biaramunean berriz goiz altxa bear.

Unkituta zirudien Xabier'ek.

—Ez duk ezin jatea, ez. Biziera goitik behera galtzea duk, Xabier. Eta bazekiat ire barruan ari aizena: «Bai, gogorra duk, baña fedea ez duanarekiko bakarrik». Eta egia esango diat: zeruan siñis-

teko, zeruaren urdiña gozatu bearra zegok beñipein. Jainkoagan siñisteko, bere obrak ikusi bear dituk beintzat; zeren, gizonenak bakarrik ikusten baldin ba dira, deabruan siñes diteke geienik.

—Bai, arrazoi duk. Orixe ari nindukan pentsatzen. Gizona eskas duk bizi-mailla guzietan. Baña guztiz errukiorra izan bear duk Jainkoa txiroakin; etzegok zalantzarik.

—Errukirik ez, Xabier. Bi munduetan ezin kondena diteke iñor. Ots, beste mundurik baldin ba dago, artan ezin diteke txirorik kondena. Baña, betikoa, ez dakit beste mundurik dagoenik. Beraz, nereak egin dik; eta txiro eta errumes guzienak ere bai.

—Kupidagarri ago, benetan.

—Zer da liburu ori? —moztu nion nik.

—Thérèse Desqueyroux.

—Eta liburuaz itzegiñaz jetxi giñan biok Zuntzarri aldera.

* * *

Amar egunen buruan, loteriako lumero-lerrokada ikustera joan nintzan. Beñere enuen ontako itxaropena galdu, eta gertatzeko oso zaila izan arren, zerbait toka zitzaidalako ustetan joan nintzan. Begiratu, ba, eta... ezer ez. Bosteun peseta alperrik xautu. Pena emateko aiña ba zan, nere egoera artan batez ere; baña gogor egin nion nere buruari, eta esan: «ez bekik sekulan egiña damu».

Poltsikuetan miatu nuen, eta kontatu: guzira 341 pesta neuzkan. Urbil zegoen nere auziari arpegi emateko garaia. Bildurra eman zidan, nazka obeto esan.

Irureun eta berrogei t'amaika pesta... Gutxi zan. Bai azkar joanak zirala gañerako millak! Zer egin bear ote nuen? Diru ura luzatu? Zertarako luza gañera? Egun batzuez irauteko? Ez. Asi nintzan bezela bukatu bear nituen txanpon aiek.

Eta liburu-denda batera joan nintzan, zerbat erosteko asmotan. Sartu, eta etsita gelditu nintzan: mota guzietako liburuak ziran, eta askoren egilliek aipatzen ere enuen beñere entzun. Palakatzen saiatzen nintzan sukar bero ura, tinko zegoen. Apal guziak miatu nituen lasterrean; irentsi egin nai nituen izenak eta tituluak oro, baña ezin. Geiegi zan ura guzia. Aukeratu egin bear. Ura etzan gañera, nere astotze-ildoan... baña tentazioa bizia zan; eta nere gogoak bein eta berriz zapaldu ondoren, sei liburu erosi nituen: Camus'en «Atzerritarra», eta Gide-ren «Janari berriak» aien artean, frantsesez auek biak. Esan nuen bezela, umetandik bainekien izkuntza ori, iru urtez Baiona'n fameliarekin bizi izan nintzalako.

Egun aietan irakurri nuen «Thérèse Desqueyroux». Xabier'ek utzia; eta onengatik eta gauza askorengatik, lanik gabe egondu nintzan egun aietxek zaizkit guztietan zoriontsuenak, beteenak, eta dana dala, gogoangarrienak. Tentazioan erori nintzalako, bai. Baña zoriontsu izan nintzan: neure mundura azaldu nintzan berriro.

Mauriac'en liburuak zoriontasun ortan murgildu ninduen ere. Etzan geiegi, ez, Xabier'ek ari buruz esan zidana. Nobela ederra da: ez dakit nola esan. Aguro gertatzen da dana, bizian bezelaxe; atsegiñez nabarmentzen dan une mamitsuari, segittuan darraikio beste bat, atsekabez beterik. Pena eman zidan Therese gajoak.

Baña ni geien ukitu ninduena Acevedo da. Bazirudien Mauriac'ek liburua idatzi baño lehenago nerekin itzegin zuela-edo. Azevedo'gan neure burua ikusi uste nuen. Zuzenki ikusita? Oker? Ez dakit. Acevedo ni baño geiago zan, noski. Baña ez al nintzan ni bere antzekoa beintzat?

Literatura mundu geiago ezagutzeko irrika piztu zitzaidan berriz. Zer interesanteagorik? Ainbeste illabetetan nekez iraungi nuen gogoak (irakurtzeko gogoak ain zuzen) berriz ere, liburu bakar bat dastatuta gero, bizirik zirakien berriz nigan. Alperrik zan ura iltzen saiatzea: neure burua akabatu artean,

etzan ura ere itzaliko. Agirian zan. Xabier'ez gogoratu nintzan: ein berean giñan biok.

Eta etxera joan nintzan. Kepa eta Errodrigo topatu nituen bidean. Errodrigo, beti bezela, neskari buruz itzegin zidan bereala! au zala, ura zala, beste guateke bat egitekotan zebiltzala... Beti bat, urteak eta urteak alaxe.

Kepa'k bazekien neri gertatutakoa, eta etorkizunaz galdetu zidan. Errodrigo'k ere ala egin zuen. Baña ondoegi bizi zan au batez ere, nere egoeraz konturatzeko. «Lanik ez?» Ainbat obe pentsatu zuen seguru asko.

Eta orrela, bereala asi ziran txantxetan, eta nik neraman liburu-mordoskaz gaizki esaka. Eta orregatik aitzekia bat jarririk aldegin nien eta nere gelara sartu nintzan.

Ikusle zoro bat iruditu zitzaidan Gide, baña zoragarria. Zoratzen irakurri nuen! Eta bat nentorren gañera. Camus'ena ederra ere, baña arrotza oso personajea. Oker ezpanago, biak irakurri nituen gau artan berean. Nolako egarria!

Gañerako liburuak geroago irakurri nituen, Barrtoa'kin asi ta laister. Nagasena'ren «Milindapanha»k batez ere kutsu sakona utzi zidan. Oso sakona.

V

Dirua bukatuta, gurasoen etxera joan bear, esan bezela. Beste biderik etzegoan. «Pixkor»ek ezagutu ninduen aurrena, zaunkaka asiaz. Mendiko pake ura lasaigarri zitzaidan, nere sorterrria. Gantzai, erri koskor bat baitzan, Muitza'ren ondoan. Utsa iruditzen zitzaidan nerekin neraman katramilla; ez dut lanik... Olejua oso gaistoa zan... etxekoandreak au eta ura esan dit... Utsa! Txorakeriak! Zelai zabal artan, besterik bide-zan dana. Malda batean Gantzai ikusten nuen, nere oroimenean bezela, txikia, eta pakea zeriola.

Baña baziran an ere zikoizkeriak eta jokabide gaistoak. Ondo nekien nik.

Pozik artu ninduten aitak eta amak. Dударik ez: gizajoak azken bi illabetetan etzekiten nere berri. Dana azaldu nien. Berak, lau urte artan, oitu egin ziran Etxeberria'renean ni lanean izaten; eta gogor egin zitzairen ideiaz aldatzea. Bazekiten, alabaña, ni oso gaizki konpontzen nintzala Olejua dalako arekin; baña... lanik gabe ni ikustea...

—Urteak badituk ik —esan zidan aitak— egin bear dukana jakiteko. Eure kontu ortaz ondo ala gaizki jokatu dukan. Baña: badakik: mundu ontan «nork bere opillari ikatza», eta etzak pentsa bestek

irea egingo duenik. Euk egin ala kitto. «Jo ta autsi» oiek ondo zeudek garaiz egiten diranean; baña garaiz jokatzea ez duk aski. Jakin egin bear duk ere gero nora joko dan.

—Ba orixe da nik ez dudana. Ezin nezakean geiago ura eraman, eta aurrera jo nuen.

—Gaizki egiña ortaz. Oso gaizki egin duk. Ume-keria bat egin duk, eta arrazoi dudala ikusiko duk.

—Nik ain zuzen, iñor ez dut an ezagutzen; eta berorrek lanen bat ingura dizaidakeala pentsatu det.

Ama asi zitzaidan orduan maxioka.

—Ori aurrena jakin bear ukan, txotxolo. Lehendabizi txorakeria burutu, eta gero besteengana laguntza eske. Etxeberria ura gizon prestua omen duk, eta ezin siñets dezaket ik diokana.

Etxeberria, nere irtiziz, etzan Olejua baño obea. Baña argiagoo bai; eta onen atzean izkututzen zan. Olejua etzan ezer berez, eta Etxeberria'k nai zuen punturaño irits zitekean bakarrik. Beraz, Etxeberria prestua ba zan... Alere aberatsa zan. Erruz ematen zien dirua elizako gizonai; eta, mojak eta prailleak onez tratatzen zituen, eta oiekiko oso esku-zabala izaten. Orrela jokatuaz begiramentu aundia artu zuen jendearen artean, eta bere pekatuak, asko eta lotsagarriak izanik ere, zearo jautzen zituen erremusiñen bidez. Etzan tontua, ez.

Zertarako asiko ni eztabaidan? Lehendabizi ondo artua izan zan nere berria, gero okerrago jarri ziran gauzak, eta, azkenean, sekulako sesioa nere aurka.

—Ik ez dakik bizia zer dan. Dana eman diagu beti erosoan, eta ez dakik ezer egiten. Liburuak eta beste txatxukeria asko alde batera utziko baitu, obeto ibilliko intzake. Eta, gañera, ori bai: arrokeria baldin baduk hidegabekeriak ez jasateko, dirua irabazteko ere izan bearko ukek: ez ire gustoko gauzetarako bakarrik, ez; danetarako.

Eta aitak erantsi:

—I gaztea aiz oraindik, eta ez dakik biziaren berri. Edozein txatxukeria, eraman eziñezkoa iru-

ditzen zaik. Biguñia aiz, oso biguñia. Ai! nere gaztaroa ezagutu ba ukan, emen, baserrian... Orduan etzegokan ez urik, ez erradiorik, ez tratorerik... Orduan lana ukan, lan utsa... Artuko nukean nik orduan Etxeberria'ren azpian lanegitea!...

Gogoz erantzungo niokean, eta bera kontura zedin bildur nintzan ortzak estutzen bai nituen nere alegin guziakin.

Gero gertatu zana, ortaz, ez da itz gutxitan esatekoa.

—Barka beza, aita —esan nion— baña nere lanaz edozer gerta dedin ere, gauza bat zuzendu bear da azkar; nere etxekoandrearena. Bi illabetetako kontua zor diot.

Urte batzuk gutxiago baldin ba nitu, zigor ederra artuko nukean, nik aginduta. Baña ogei ta zazpi urte nituen, eta etzan karrasiaz besterik gertatu.

—Lotsagaldu ori! Ez ahal duk ezer aurreratu? Bederatzi urtetan ez diguk xentimorik bidali, eta orain denboraren buruan zorrak erantsi? Zer uste duk ik?

Zertarako segiko. Ordurako gurasoenganako amodioa naiko oztuta nuen; baña egun artan, bere jokabide eskas eta berekoi ura ikusita, zearo galdu nuen berekiko konfiantza.

Etenduak ziran beraz azkeneko loturak...

* * *

Etxekoandreak jarritako epea bazijoan aurrera, ain zuzen ere bost bat egun falta ziran bakarrik bukatzeko. Eta orduantxe deitu ninduen Loren'ek.

Peru: zure aitak bidali dit zor zenidana. Beraz: illabetez luzatuko dizut esan nizun epea. Zer moduz zoaz? Zerbait arkitzeko bidean ahal zaude? Itxaropenik ba ahal duzu beñipein?

—Bai, bai aste ontan zuzenduko da dana.

Gezurra zan. Lehenengo egunetan enuen ezertxo egin lana billatzekotan; eta azkeneko aietan, bai, baña neronen buruarekin solasean bakarrik. Fran-

tsesez banekien, eta ajentziaren batera-edo joan ote nindekean pentsatu nuen; baña enekien nora, edo nundik asi. ladanik urduri xamar nintzan: gurasoak ere etzuten txintik esaten; eta lagunai ezer eskatzeak lotsa ematen zidan; bai-bainekien, bestalde, negoziotako kontuetan koxkorrak zirala oso.

Eta, alako batean, nere osaba Joxe Migel'ek otsegin zidan: baomen zuen neretzat «lantxo» bat. Ez omen zan aukerako lana. Baña, nere artan, ez omen neukan kutixiatan pentsatzerik. Gañera toki askotan saiatura ere, Olejua'k emango zuen txosten txarra naikoa omen zan nere adiuntza onak ondartzeko. Ez omen zegoen txikikeritan ibiltzerik, eta Barrota delako batengana joateko esan zidan.

Barrota'gana joan nintzan ba, eta oso ozki errezebitu ninduen.

—Zu aha! zera Leartza'ren illoba? Goazen arira. Nik emen kopiatzeko lan izugarria dut: alegia, epeka saltzen dut nik. Eta bezero guziai, nori bere tokamenaren arabera, txartel bana egin bear zaie: illero batzuei, bi illabetetan bein besteri... Lan aundia da; eta aspergarria, badakit. Alere, mesede bat egin naiko nioke Jose Migel nere adiskide onari, eta gertu baldin ba zaude, badakizu. Nik lan au, andanaz ordaintzen dut, ots, segun-eta egiten duzun kopura edo lumeroa; eta eun txartel edo bale oiek egiteaz amar duro ordaintzen dut.

—Maite! —otsegin zuen— Erakuts egiozu Leartze jaunari gure txarteletako bat, bere lana nolakoa datekean ikus dezan.

Begiratu egin nuen.

Ene! Milla gauza bete bear ziran an! Ura bai burokrazia! Baña zer egin ote nezakean?

—Beno —crantzun nion, piska bat pentsatzen nuetakoa egin ondoren—. Egiña dago.

—Langille oikoak, crantzun zuen berak, eun peseta, eta geiago irabazi izan dituzte omen bederatzi orduz lanegiñaz.

Etxera itzuli nintzan.

Pozgarri izan liteke ura. Baña etzan. Alako lana izan nuen nik Etxeberria'kin, eta banekien zeñien motela eta nekagarria zan. Baña nere ein artan, besterik aukera ahal nezake?

Ez.

Beste erremediorik etzegoen.

Pena artu nuen, nere atsedernaldi zoriontsu eta betea bukatzen zalako. «Zoriontsu» esan ahal dut? Ezetz esango luke norbaitek; baña nik baietz diot, eta gezurrik ez dut esan. Illabete ura kezka arren, gogoangarria da.

Eta askotan gogoratu naiz geroztik orduko bolada artaz.

VI

Lehengo egunean, oiturarik ezagatik edo, ogei ta bost orri bete nituen bakarrik, eta leher egiñik amaitu nuen eguna. Ikusi ez duenak ezin dezake alakorik siñets: izelombrea, jaioteguna eta jaioterria, gurasoen izenak, bizilekua, lantokia, egindako eskolak. Nik dakita? Gero erosketaren gora-beherak, xehe-xehe azalduta: zein fabrikatako zera zan, zein egunetan saldu zan, nor izan zan dendako saltzaillea, zenbat epetan ordaintzekotan, noiz ordaindu zan lehenengo epea eta nork kobratu zuen; eta bigarrena, eta irugarrena... eta amargarrena askotan... Izugarria zan ura!

Gero bazekarren zerbait ere, enaiz gogoratzen.

Ogei ta bost bale; ots amabi pesta t'erdi. Ondo jaioa nintzan! Loren'ek, eta ori aspaldidanik eta fameliakoen laguna zalako, ogei ta iru peseta kentzen zizkidan egunean. Beraz etxekoandreari ordaintzeko bakarrik, berrogei ta sei txartel bete bear egunero. Alajainkoa! Eta bestek eun peseta irabazten zituztela egunean? Luma-korrikalari bikañak ziran, ba...

Andana bat erabaki nuen, andanaren arabera pagatzen baitzuten: egunero irurogei txartel bete arte geldituko nintzan.

Baita asi ere ori egiten. Goizeko zortzietarako an nintzan jo ta ke; eta gaueko bederatziaik aldean,

leher egiña, irurogeigarrena betetzen nuen. Batzutan, irurogei oiek bukatu bearrez, gaueko amaikak arte gelditu nintzan.

Ura etzan bizitzea. Lehen baño ere okerrago ez ote nenbillen zalantzan asi nintzan: Olejua madarikatuarekin zortzi orduz lanegiten nuen; emen, ez dakit: bederatzi, amar, amaika orduz. Eta an baño gutxiago irabazten nuen.

Etsipenak arrapatu ninduen. Baña biziaren pirrita ariñago zebillen lehen baño, eta eneukan ezta etsitzeko ere denborarik. Eguna zerraikion gauari tarterik gabe, eta berdin gaua egunari. Tximista bat zirudien egunak; eta asteak etengabeko kliska bat.

Nekatzen asia nintzan. Zeatzago esateko, neure gorputza asi zan nekatzen. Ezin iratzar nindekan goizetan; eta lanean ari nintzala, askotan kulunkatzen nintzan logurak.

Jai egunetan enuen iñora joateko ez dirurik, ez astirik, lotan pasatzen bainuen eguneko ordu asko. Sortaldeko erlijiuak ezagutu nituen orduan, berriki erositako iru libururi esker; eta sakonki ikutu ninduten. Munduari uko egiteko joerak batez ere, dena itxura dalako temak alegia, min eman zidan, nere arimak danaren aurka uraxe eskatuko bailuan.

Loren'ek esan zidan nere galtzetiñak ezin konpon zitezkeala, xaretuegiak ziralako, eta onek izugarri mindu ninduen. Beñere enuen nik diru «askorik» izan... Baña, alere enuen sekulan olako gauzarik entzun. Baña Barrota'kin aldapan behera ninjoan; eta, etxeoak ere, nerekin pittin bat asarreturik batetik, eta nik ogei ta zortzi urte betetzeko zorian nengoela ere bestetik, etzidaten ezer laguntzen bolada artan. Eta nik enuen iñundik ere bizitzeko aña; eta are gutxiago galtzetiñak dotore eramateko. Eta, dana-dala, munduko errumesik urrikalgarriena etzan, nik aginduta, ni baño okerrago bizi.

Igandeetan eguzkia itsasoan sartzen ikustea zan nere atsegin bakarra. Beste gozorik enuen. Lagunak galduak nituen, gurasoak etzuten konfiantzarik ni-

gan; eta berak ere, nereko, naiko tontuak ziran. Aitaz gogoratu nintzan pittin bat: oraindik biziaren atsekabea ezagutzen enuela esan zidanean, ez ahal zuen arrazoi piska bat?

Baña, ez, ez. Zalantzan egoten nintzan apur batez; baña, ez berriz, eta ez. Ura agure guzien seta iruditzen zitzaidan: gure aroetan, gure zeretan...

Dana galdua nuen. Marisa ere, eta giro ura, aspaldidanik enituen dastatzen dirurik ezaz. Lanetik oera, eta oetik lanera; besterik deus ez.

Bizirik iraun arren, ni enintzan bizi. Illik nintzan eta neronek enekien. Orain badakiket; orduan ez.

Enuen argatik iltzeko bildurrik. Noski!

* * *

Igande arratsalde batean Gandera'ra joan nintzan, nere atsekabeak ahaztu nairik, eta Iturbeltz deritzan punttan gelditu. Arratsalde goibela zan, zerua orixka, giroa epel, eta dana paketsu. Atzeko mendiak odeiak erdi estalirik ikusten ziran, urrutian urdinduta. Zuntzarri'n ere, nere aurrean, eta larogei metro beherago lausotan agertzen zan, meatillaz jantzita.

Nere atzean, ikusten ez ba nuen ere, itsasoa nuen. Aurrean ere itsasoa; baña Anduaga'ko puntak mugatuta. Olaburu'ko astigarrak eta Lizarreta'ko piñuak uztai berde bat osatzen zuten. Mariagora zan, eta olatu txikiak ormaren kontra leherturik, marra extu-extu erasten zioten arku berdeari.

Nere ezker aldean Olazarraga'ko etxe zaharrak eta itsusiak; eta urrutirago Urrez'ko tontorra, zarrakatutako murruean isla zeruan nabarmentzen zalarik. Une artan beltz agertzen zan, bere oroitzapenak bezela...

Uraxe zan aste guzian ikus ezin nezakeana. Uraxe. Edertasun ura nuen Zuntzarri'n bertan, baña ezin dasta. An, aurrean, oso oso urruti, lañotan galduta Matxixako igartzen zan doi-doi. Baña enuen nik ainbeste eskatzen: Anduaga'ko punta bakarrik. Zen-

bat kilometro zan? Bi geienez? Alere, nere aurrean une artan izan arren, noiztanik enintzan an izan? Bego'kin da gero, bai?

Nere gartzelatik ikusten zan paisajea zan ura. Besterik ez. Katibu nintzan.

Nere gogarteetan barrera minjoala arrapatu ninduen Xabier'ek. Igandea zan eta bakarrik, berriz ere; eta liburu bat eta aldizkari batzuek besapean zeramazkiela. Egun artan Graham Greene zan liburuaren egillea. Ura bai zala irakurle porrokatua!

—Kaixo, aspaldiko. Zer dugu?

—Ementxe ba. Arratsaldea bezela, piskanaka amaitzen.

—Alajañetan! Ortan al ago oraindik ere? Zer ba? Gaizki irten al zaizkik gauzak? Eskola aiei buruz eta, zer? Badakik zertaz ari naizen.

—Bai. Bazekiat. Deus ez, noski.

Exeri egin zan nere ondoan.

—Ortaz, lanik gabe oraindio?

—Ez, asia nauk... asia nauk iltzen!! Ik, Xabier, nai izan dukalako etorri aiz gaur onera. Ni, berriz, ezinbestean. Ezertarako dirurik ez diat, eta gogorik ere deus ez. Zaletasun onek kontsolatzen nau bakarrik: alegia, eguzkia iltzen ikusteak.

—Beraz, baduk lanik, ala ez?

—Bai, badiat.

Eta azaldu egin nion nere lana itz gutxitan.

Azaroa zan, eta konturatu orduko eta bereala, etzan ia ezer ikusten, eta Olaburu aldera jo genuen aldapa txigorretan behera eta ostoa igartuak zapalduz otsa egiten genuela.

—Orra nere motorra —esan zidan.

—Baña motorrik ba al duk ba?

—Bai motel. Orain dala illabete batzuk erošian.

—Zorionak, ba.

—Neguan etzidak asko laguntzen. Baña udaran bai. Neri gañera, iri bezela, biziki atsegin zaidak toki bakartitara joatea; eta onen bidez joan naiteke... Ezagutzen al duk Ause?

—Zer da Ause ori? —galdetu nion antzik ere ematen eniola.

—Goazemak eta ikusiko diagu.

Zuntzarri'tik amar bat kilometro ibilli ondoren, eskubietara jo genuen; aldapa gogorra asi zan, eta bost bat minuturen ondoren, baserri zahar bat topatu genuen. Ause zan. Bisarrak ere, nik uste, ezertxo ere ikusten etzutelarik ere, token ari ziran oraindik bospasei baserritar. Ahaztuta neukan zimaurrearen usaia sentitzen nuen berriz.

—Sagardo bikaña duk emengoa. Erorrek egiztatuko duk orain —esan zidan Xabier'ek.

Zakurra zaunka asi zan baserrira gu sartzera-koan. Barruan kupela aundien artean galdurik, mai batzuek ziran. Bi edo iru bonbilla ere bai, baña argi eskasa ematen zuten, eta dana bide zan itzala eta illunpe beltza.

Sagardo botilla bat eskatu, eta zurezko mai luze batean exeri giñan. Asi baño lehenago ere bazirudien sagardoa edaten asiak giñala. Katu beltz bat pasa zan gure ondotik eta ondoko maiean exeri zan. Aurrean lau baserritar sendo, musean ari ziran.

Arrigarri zitzaidan ura, mendiko bizimodua, alegia. Nere igandea, egia esan, etzan oso diztirantea; baña lizifriña geiegi iruditzen zitzaidan alere nekazari bakarti aiena. Nere aurtzaroa gogoratu zitzaidan.

—Auxe duk ba Ause. Sarritan motorrari esker-
rarak, onera natxetorrek bakarrik, eta ementxe, bati so eta besteri adi, igande arratsalde asko pasa ditut. Garbiago iruditzen zaidak giro au.

—Gantzai gogorazten zidak piska bat. Baña ni, jaiotzez eta etorkiz baserriko semea ba naiz ere, beti, umetan ez ba da, kalean bizi izan nauk. Eta giro au, benetan, arrigarri zaidak; eta nere amona zaharra gogorazten. Bera bai, onelaxe bizi izan omen ukan, Gantzai'ra jetxi arte.

Gero ixilik egon giñan apur batez. Nere gurasoez gogoratzen nintzan nai ta naiez, eta etzitzaidan ura atsegin. Enuen ura nai.

—Orra zuen tortillak. Gibelurdiñak besterik ez genituen, eta ori sartu dugu —esan zigun emakume batek, ogi pusketa aundiak eta bi plater aundi eta ondo beterik gure aurrean uzten zituela.

—Baña, nola au? —galdetu nuen nik arriturik.

—Neuk eskatu diet lehen. Emen ezaguna ez ba nintz, eliguteke egingo. Emen edaten eman oi ditek bakarrik.

Dirurik eneramala pentsatu nuen lehenengoz; eta lotsaz beterik, gorritu egin nintzala uste dut. Olejua'ren garaitan eskas nenbillen; baña Barrota'kin ezta eskas ere: guztiz tturrinduta, sosik batere gabe. Lotsaren gorria!

Merendatu ondoren obeto nengoen, askoz ere obeto; eta izketa mamitsuan asi giñan.

—Zer moduz kezka oiek? Oraindik ere, eure burua iltzen saiatzen al aiz? —galdetu zidan Xabier'ek.

—Ez, bearrik ez diat. Illik negok nere ontan. Barrota'k il nauk.

—Beraz...

—Orixe... Beraz, ez diat ezer irakurtzen; eta ez diat irakurtzeko gogorik ere. Are geiago: ez diat iñorekin itzegiten, eta emakumeak ahaztu egin zaizkidak. Egia esango diat gañera: dagoenezkero enegok sasoiean. Galtzen asi nauk. Emakumeenganako nere eiñean nabaitu diat.

—Baña, zer esaten duk, motel? Zenbat urte dituk?

—Ogei ta zortzi betetzeko zorian.

—Eta...

—Egia esan diat.

Irri egin zuen. Baña serioago jarri zan, gaizki egiten zuela konturatu bailitzan. Eta moztu egin zan izketa.

«Ordago» entzun zan goratik. Gure aurreko katura erdi lotan bide zegoen maiaren gañean, eta bellarria piska bat igitu zuen abots ura entzutean. Baña antxe gelditu alere.

Giro ura atsegin zitzaidan.

—Zein aldizkari da ori —galdetu nion, liburua-
ren azpian ikusita.

—«Figaro Littéraire».

—Eta zer moduz dator?

—Utziko diat nai ba duk.

Enuen nai, ta nai nuen. Eta uzteko esan nion.

—Bai, bai. Iretzat. Goitik behera irakurri diat.
Bi artikulu, batez ere, oso jakingarriak dituk: «Oreo-
pithekoari» buruzkoa bata, eta «Qumran»go izkri-
buez bestea. Badakik: esenioak, San Juan, eta abar.
Ez al dakik ezer?

—Ez —erantzun nion.

—Irakur ba. Etzaik damutuko. Eta, etzak esan
gure burua akabatzea dala-ta, ez dukala nai. Irakur
itzak biak.

Enekien ezer: inpresio ura nuen.

—Alere, beste gauza bat arkitzekotan erosi diat
nik; baña etzatorrek zera ontan.

—Zein gauza?

—Orra: osagille batek bere esperientzia bat kon-
tatu omen dik. Biotza gelditu omen zitzaion berari;
eta gero, masajeari eskerrak, abiatu omen zitzaion
berriz biotza, eta orrela erdipurdi beñipein, piztu
egin dala esan diteke.

—Eta zer dio?

—Etzekiat, Peru. Baña esan didatenez, au zio:
ez dala norbera konturatzen bere larritasunaz.

Ixillunea egin zan.

—Interesantea duk —erantzun nion biziki un-
kituta—. Noizpait inguratzen ba duk, ez ahaztu ema-
ten.

—Ez, ez: utziko diat.

Eta, ziplo, argiturik bezela, erantzun nik:

—Zergatik ez dute illak piztutzean ezer esaten
beste mundukoaz?

—Baña au ez duk il. Ortaz, etzegok zer miretsi-
rik.

—Noiz asten da, ahatik, eriotza? Noiz il da gi-
zona?

—Etzekiat. Baña miriku ori, segur egon adi, ez

duk il. Etzekiagu nola egon dan, baña bere arimak ez dik gorputza utzi.

—Baliteke —nik, eztenka gaistoan.

—Eskierki —berak—. Biotza gelditzea ez duk aski, nik uste.

—Ilda gero utsera ba ginjoaz, ez genikek itze-gingo. Ez al duk uste? —galdetu nion kezkatu naiean.

—Ala duk, —berak.

—Eta biotza gelditu zaienak ez ditek itzegiten...

Kezkatu egin zan. Bistan zan.

Eta nik, biotza arintzen zitzaidala, eta amorruez beterik bezela orduan:

—Eta Lazaro'k ere ez!!!

Izutu egin zan Xabier.

Eta nik bukatu, bere zirrara goxatuz:

—Jesus'ek piztu zuanean, alere, iru egun artan eortzia zala piztu zian!!: Eta ez-pide zian alere tutik esan beste munduaz... zergatik?

* * *

Bein edo bitan Bego azaldu zan nere etxera. Itsusia iruditu zitzaidan. Eta bere itsustasun orrekin batera, atzera jotzeko gogoia sentittu nuen, ustekabean arrapatua ninduen-eta.

—Arratsalde on, Jainkoa'k —esan zidan, nere kiñadarik ñimiñoena ere aztertzen zuelarik.

Etzegoen iges egiterik: orixe pentsatu nuen nik. Etzan bildurra, ezta nazka-nazka ere; baña Bego'rena obeto zan oroimenak gordeta, geiagotan alkar ikusita, lardaskatuta baño. Alegia, enuen nai egun arri-garri aietako usai gozoa kiras zedin: gertakari aiek guziak, eta Bego'renak bereziki, giro atsegiña gordetzen zuten bere artan. Baña etziran ezer aurrera segitzeko. Agian au zan atzera eramane ninduenena. Enuen nahasi nai, enuen oroitzapen gogoangarri bat lardaskatu nai. Enituen-eta sobera alakoak...

Bestalde Bego etzitzaidan gustatzen: auxe da egia. Bi gautan iraun ba zuen «lillura» arek (eta

siñistuta egon, ura etzitzaidan iñoiz ere lillura izan) odolak eman zion berotasunari eskerrak iraun ahal zuen. Ederra iruditu zitzaidanean, nere soiñari zitzaiion eder. Zirrarak sentittu nituen bein edo bi aldiz; baña odol-zirrarak ziran.

Au guzia ikusi nuen lipar labor batean.

—Gezurra dirudi —esan zuen berak—. Bai laster ahaztu zerala nitzaz! Gezurra dirudi, benetan!

Ni oso otzean entzuten nituen itz aiek. Egia zan, bai, ahaztuta nengoela. Baña, zer?

Eskaratzaren ondoan giñan, zutik, eta ibiltzeko eskatu nion. Enekien zer esan: itzik batere etzetorkidan burura. Enuen ala segi nai, baña igarturik zegoen nere asmamena.

—Zer? Ez ahal duzu ezer esan bear? Orrenbeste egun alkar ikusi gabe igaro ondoren, onetzaz besterik ez ahal zaizu bururatzen? —ekin zuen ni zirikatu naiean.

—Bada... ez dakit... ez dakit zer esan benetan. Oso eskasa naiz gauza auetarako.

—Zein gauzatarako? —maitekiro.

Nolako nazka nerea! Alki batean exeri giñan, berak ala eskatuta. Ezetz esan ba nio, obe, baña...

—Gau ederra da, Peru... Goazen Lizarreta aldera!

Eta esanda gero asperen egin zuen.

—Zenbat aldiz gogoratu naizen zutzaz... Zenbat eta zenbatetan pentsatu dudan oraingo une zoragarri ontan! Bear zindudan...

Ez dakit zer erantzun nion. «Bai», agian, edo orrelako zerbait. Etxera joan nai nuen.

Musu bat eman zidan masaillean, oso polliki, eta negarrez asi zan. Eskua eldu nion, baña... Orrela egon giñan bost bat miñutuz, eta gure aurretik pasa ziran batzuk begiratu egin ziguten.

Bere boltsa iriki zuen, eta kajatxo bat eskeñi zidan.

—Tori, diru geixeago ba nu, beste zerbait bikaiñagorik emango nizuke. Baña txiroa naiz. Alere, or duzu nere oroigarri bat, nitzaz noizean bein bederen

oroit zaitezten. Eta, bidenabar, zuk eta nik biok bear dugun Ama Birjiñaz.

Berriz ere gogait nintzan. Ama Birjiña... txatxukeriak!

Baña nola uka ere, ein artan, oraindik ere malakoak bere arpegian dizdiratzen zutelarik?

Iriki nik, eta asieratik igarri nuena: zillarrezko katea bat, bere domiñarekin.

Parragarria zan... Jarri egin bear zidala-ta, jarri egin zidan. Dotore ni domiña arekin... Botatzeko gogoa eman zidan; baña pentsamentu bakar batek atzeratu ninduen: erregalu ura asko kostatu zitzaion Bego'ri. Eta Bego'k bizimodu zailla zuen jostun amorratu arekin. Gorriak ikusten nituen nik ere bolada artan bizi ahal izateko, eta Bego ni bezin gaizki zebillela jakitea, ura etzitzaidan beñere ahaztu.

Zenbat neke pasa ote zituen gajo arek erregalu ura neri eman ahal izateko? Auzkalo! Eta orregatik bakarrik ezin arbuia zitekean; eta onartu egin nion.

Bigunkeria ahal zan berriz ere? Baliteke: Peru biguñak betiko iraungo du nigan, ikusten danez.

—Zurekin gelditu nai nuen gaur. Baña alperrik dala ikusia dut. Nekez arkitu zaitut, baña bistan da zuri galerazten ari natzaizula. Ortaz, banao. Baña, jakizu au, eta siñets: maite zaitut.

Eta alde egin zuen.

Alkian exerita gelditu nintzan eta, medalla kendu nuen. Argi artan ezin irakur zitekean ondo, baña, oker ezpanago, au jartzen zuen letra txiki-txikitan: «Argiloain'go Ama Birjiña». Eta, atzekaldean, «Peru-Bego».

Irribarrez asi nintzan bakar-bakarrik izan arren, eta andik zijoan gizon batek nere aldera begiratu zuen. Lotsatu egin nintzan.

Etxera elduta, domiña utzi, eta kartoiezko kajatxo batean gorde nuen. Bere erlijioa zelebrea zitzaidan...

Eta etzidan penarik eman. Alere, egia esan, berak jasandako doloreez egunen batean-edo pentsatu nuen, larri oso ibillia baitzan luzaro nere billa; baña geroztik ahaztu zait, eta etzait ardura.

VII

Bolada artan, baña zeatz noiz gertatu zitzaidan ez dakidala, buruko min izugarria izan nuen egun batzuez. Gauean asi zitzaidan, esnai gaueko lauak jo zutenean. Alde batetik bestera igaro ninduten bi tximistak bezela: eta, nere ustez, kordea galdu nuen une batez. Gero, munstruak ikusi uste nituen, eta argia piztu bear nuen derrigor.

Urrengo egunean berdin zirauen buruko miñak; eta otzikara nabaitu nuen. Barrota'ri begiratzean, bazirudien bapatean nere aldera zetorrela, bere tamaña andituz zijoakidala.

Oso gauza arrigarriak nabaitu nituen ortaz: leher-tzeaz zan kaskoa.

Baña ura ere pasa zan eta enion garrantzirik eman. Miña igesi ta laster, lorik ezin egitea eta munstrokeriak ere itzali egin ziran.

Eri egon nintzan, nik uste; baña iñork etzuen ala uste, ezta neronek ere oraintsu arte.

Noizean bein Olazarraga'ra joan nintzan; oso gutxitan, dirurik ezpainuen, eta gogorik ere ez geiago. Marisa ura ere etzan Zuntzarri'n, eta geroz ta neke-zago oera nindekean beste emakume batekin. Neure buruaz errukitu nintzan sarritan.

Olazarraga'ko auzo ura Zuntzarri'ren beraren irudia zan. Gizonaren eskasia nabarmenago zan, egia esan, Olazarraga'ko zati artan, gañerakoan baño. Baña dana bat zan.

Bego noizean bein ere topatu nuen. Oztuko zala uste izan nuen nik aurrenik; baña oztu bearrean, berotuz bide zijoan nereganako bere amodio zoroa. Zerk maitemindu zuen ainbesterañoko? Nere ausardiak eskierki. Baña zearo aspertzen nintzan berakin eta bera ere konturatu zan. Gajoa!...

Iltzea bera ere, etzitzaidan orduan ajola. Nere ustez illai etzaie eriotza ajola. Eta neuri ere berdin. Iltzeko gogoa nabaitu nuen; il eta dana akaba... Zertarako bizi? Irauteko? Irauteko iraun? Bestetango ideiak bein eta berriz bururatzen zitzaizkidan...

Xabier'ekin egon nintzanean (bizpairu aldiz Ause'n bere motorrean; eta zenbait aldiz beste tokitan) gogor egiten zidan nere etsipenarengatik. Eta bere esanai kaso aundirik egiten ez banien ere, biziki eskertzen nion nerengatik larritzea.

Besteak, Manu, Kepa eta abar, oso oso gutxitan ikusten nituen bolada artan: astegunetan oso berandu irten oi nintzan ni lanetik, eta igandeetan berak etzebiltzan, noski, bakardade-billa...

Apurtuta nengoen bada, eta pentsamentu beltzez beterik, eta gaur Barrota'ren aro artaz oroituta iltzeko nere gogoaz batez ere, ikarak artuta au esan oi dut orain nerekiko: «eta il ba nintz? Dagoeneko, akabo. Baña, zer izan ni? Zer izan gizonok? Agian orduan il izan banintz, penatik begiratuko nintzakean. Baña, agian soillik: agian bearbada, ausaz».

Eta zergatik ausaz? Zergatik beti zalantzaren menpean?

Ez dakit. Dana dala bost ajola zitzaidan neri iltzea orduko artan. Salbabidea ere zitzaidan.

Baña enintzan il. Eta egunero, litroka edaten nuen Barrota eneko ospiña.

* * *

Biziera ustekabezko kate bat da. Biaramunaz ez dakigu tutik; eta nik orduan ere enion antzik batere ematen urrengo egunean gertatuko zitzaidanari.

Egun artan, azkeneko zortzi illabetez bezela, Barrota'enera joan nintzan; an galdu nuen eguna, lan aztun izugarri artan; eta baninjoan etxe aldera, etsita, amorratuta, nazka jario,... egunero bezelaxe.

Ateratzekoan asi zan euria. Gaueko zortziak eta ogei ziran. Etixerako bidean beste askotan alperrik egin oi nuen bezela, Jesusa'ren dendan aurean gelditu nintzan. Loteria zerrenda berria zan; patrikatik txartela atera, neure lumerua ikusi, eta zerrendan begiratzen asi nintzan. Bereala, molde aunditan, neronen lumero bera zekarren lerrokadak!! Ezin siñets! Berriz ere zabaldu nuen txartela, eta begiratzen asi nintzalarik itute artako tanto tzar batek papera astindu, eta busti egin zuen dana. Baña berriz sikatuta, berriz sospresa: neurea zan, bai: «18.751»-Milloi bat pesta!!! Lau amarren neuzkan nik; beraz: laureun milla pesta!!!

Siñistu eziña zan ura. Bein eta berriz eta oraindiodio berriz ere begiratzen nuen; eta okerrik ez: uraxe zan, bai.

Euri-jasa galanta asi zan.

Nere poza ez da itzetan azaltzekoa. Egun egin zan nere baitan, eta illunak aldegin zuten bapatean. Diruketa ura izugarri aundia eta ugaria iruditu zitzaidan: asko zan 400.000 pesta. Enintzan oraindik konturatzen: gertatuaz oroitu, eta olatu batek arintzen zuen nere odola. Baña, segituan, atzera berriz: gezurra bide-zan ura, edo ametsa edo alako zerbait. «Ezta posible» nerekiko bein eta berriz.

Baña, bazan, bai. Eta, bapatean, argi-printza batek gidatu ninduen: Barrota'gana joan, eta bereak eta host entzun araziko nizkion.

Bar batean sartu nintzan eta koñak doble bat zerbi zezan esan nion. Zurrut batez eran, eta geiagotrikatu gabe, gaueko bederatziak baitziran, nere oizña zatar artaruntz abiatu nintzan. Ai! Barrota an topatuko ba nu...

Eta, nai bezela, antxe zegoen. Nik gizajo onek asko lanegiten nuen; baña berak nik baño geiago ere. Beti an zegoen, beti an; ni allegatu orduko, an bera, ari ta ari; joatean berriz, an ere.

—Gabon —esan nion besterik gabe.

Antiparrak kendu zituen arriturik.

—Ez al zera oraindik joan. Zer dugu?

—Ezer ez dugu. Orixe esatera nator: aurrera-koan ez dugula ezer izango alkarrekin. Gorde itzazu zure maukak ni baño inoaxoago dan besteren barentzat... Ni banao.

Lehenbizi arritu egin zan Barrota; baña gero su eta gar jarri, eta: «Ua emendik lotsagaldu ori!» esan zidan asarreantzean, «Zer dira era oiek».

Baña ordurako irtena nintzan ni, atea danbaka ixten nuela; marmarka kanpotik entzuten zan. Arrezkero ahaztu egin zait bere abotsa.

Afari naro bat egitea pentsatu nuen, eta «Intziart-Enea»ra joan nintzan. «Lupiña»ra ez ala? Noski. «Lupiña»n agian (larunbata ezpaitzan) enuen inor topatuko. Baña bada-ezpada, naiago nuen ez saiatu ere. Bat bakarra maite nuen: Xabier, eta etzan koadrilla artakoa. Gañerako guziak neretzat utsa ziran. Illabete asko pasa nuen «Lupiña»ra azaldu gabe, dirurik ezagatik, alere Xabier alegindu zan bakarrik ni nun nintzan edo zertan ari nintzan jakiteko. Besteak naikoa edo zuten beren zirtzilkeriak... Egia esan Kepa bein ikusi nuen, Olazarraga'n; eta bere saltsan zebillen an. Dudarik gabe toki uraxe zegokion.

Dotore jantzi, ba, eta amar terdietarako bazkaldegian nintzan.

An ziran Duhalde jaun-andreak, eta Azkoitia ere, ezagutzen enuen emakume gazte eder batekin. Nazka eman zidan berak ikusteak: astegun zan, osteguna, astelehena, ez dakit zer. Eta jenderik bazan aiere, ura egiteko gauza zana; egunero uraxe egiten zuten agian: aukeran jan eta erruz edan. Bekaizkeria ote? Ez, ez, baña Jainkoa ez dagoelako segurantzia geroz eta garbiago azaltzen zan egunero, fededunak berak ala naita... nunbait...

Neskameari ots egin nion.

—Neretzat iru gauza: lanpernak aurrena, xan-gurrua urrena, eta legatza prejitua amaitzeko. Ardo gorria.

—Ondo da; eta Jainkoari eskerrak gaur zatozela. Biar eguraldi kaskar au asi dala ta, etzenuke oiako afaririk izango.

—Bai, ala da —erantzun nion—. Orregatixek aprobetxatu bear da.

Bapo jarri nintzan eta aspaldi danik nabaitu enuen gorputz-alaitasun lodi batek bete ninduen. Zoragarria iruditzen zitzaidan aparria ekarri zidan nes-kamea. Alajainkoa!

Trumoa geroz eta gogorrago ari zan; eta tasi bat deitu nuen, «Intziart-Enetik» irtetzean, erruz zetorren eta euria. Ura gaua! Nolako jasak!

Etxera joan nintzan artez tasi artan: alaiegi bai nintzan Olazarraga'ra joateko.

Berriz jaioa nintzan. Biaramonean jai... Ederra zan etorkizuna, benetan!

Eta lareun milla pesta! Ezin loak ar, ezin... Nolako artegatasuna! Alde batera eta bestera... Eta lorik inñolaz ere ezin egiñean.

Goizargian-edo lotan asi orduko, siñistua nuen gertatua, nere gardiz. Baña ondo kostata, alafede!

* * *

Biaramunean eta berdin ere urrengo egunetan, oso eguraldi ona izan zan.

Ni berandu xamar jeikitzen nintzan, nekaturik bainengoen, eta patxaran apaindu ondoren, Ganderamendira joaten nintzan. Itzalean illun ozkirria zan: baña Azaro arek egun ederrak ekarri zituen. Mendi batzuk gorri ikusten ziran, eta beste batzuk ori; itsasoa urdin-urdiña. Eta koloreak ain bizi izaki, gezurrezkoak ziruditen, eta amets egiteko bide eta aukera zekarten.

Aize fin batek xautzen bide zuen aidea, eta dena garbi agertzen zan, xau, garden.

Urteak baziran alakoaz gozaten enuela. Jaio berria nintzan 28 urtetan eta zorutzen joaten zitzaidan goizak, an urrutian begirada, ezer egin gabe, ezer pentsatu ere gabe. Jende gutxi izan oizan; eta pausuak, igarota ere, denbora luzeaz entzuten ziran, geroz eta gutxiago, azkenean otsa itzali arte.

Arratsaldeetan kalez kale ibilli eta liburutegitan pausatu.

Nere gela illuna utzi nuen. Bestea, aurrekoa alegia ez ematekotan, alde egingo nuela esan nion Loren'i. Geiago ordaintzeko gertu nengoen.

Eta ala egin genuen. Loren'en senarra eta bera bizi izan ziran gelara pasa minduen; eta ordutik kalea ikus nezakean goizero; eta eskubi aldetik, Azazeta'ren kale-buruan, itsaso puska bat agertzen zitzaidan ere, zugaitzen adarren artetik...

Zoriontsu izan nintzala dirudi gaur.

* * *

Egun aietako batean, lareun millak koberatu nituen. Gogoangarria benetan!

Alere etzan lehenbiziko egun aren poz eroa: lareun milla peseta naiko ziran, egia esan; baña danaz ahaztutzeko aña, agian etziran aski. Ajola aundia etzitzaidan; baña gaztetan bezela enuen pentsatzen. Garai artan pentsatzeke aurrera jotzeko enintzan gauza; lareun milla pesta aiek Barrota eta Etxeberria alde batera uzteko lain baziran; baña nere ustez etziran aski besterik gabe aurrera jotzeko. Besteenez, noski, are gutxiago: enuen oraindio iñorekin itzegin; baña orixe zan iritzia. Zalantzarik ez.

Gero nere lagunak edo ezagunak berri ura jakin-ala, danak ziran aolkulari iaioak, eta bere kontsejua eman gabe etzan iñor gelditzen.

Au egin bearko nukean; ura egin bearko nukean, au ez, ura ez... Orduan gañera egun guziaz kalez-kale ibiltzen nintzalako agian, lagun anitz topatu nuen;

eta gutxi gora behera beñipein, danak zekiten dana: gertatua, gertakizuna eta ondore guziak.

Orrek iguin eman oi zidan.

Xabier ere topatu nuen, bera irakurtzen ari zala (nola ez) Gandera'ko ttonktor batean. Eta, beti bezela, alkarrekin itzegin genuen luzaro arratsalde go-goangarri artan. Biotz-biotzetik esan zidan nere loteriarena jakitean: «Zorionak, motel!». Eta etzidan aolkurik eman. Baña dirua zertañ enplega aipatu ez ba zidan ere, beste gauzatan gogoa zuela esan zidan: «Enikek nai nere gain ire kontu-errendatze izugarri ori. Geiegi lausengatzen au Jainkoak».

* * *

«Oreopitheko» dalakoa, Xabier'ek esan zidan bezela, modaz jarri du Hurzeler'ek, paleontologoaren artean; eta eztabaidan bide dabiltza jakintsuak tximua ala gizona ote danantz. Nik enekien tutik gauza aietzaz, baña burutazio asko ekarri zidan. Ortzak aztertuz, erdi-gizona omen da «Oreopitheko» dalako tximu zahar ori; baña gizon-gizona goitik behera eta ziurki gure anaia bat, ez omen da.

Zer da bā? Au diote jakintsuak: gizona sortu baño lehenago mota batzutako erdi gizonak sortu ziran, eta auetako bat omen dugu «Oreopitheko»a. Noiz bizi zan? Orain dala amar milloi urte? Ortxe nunbait omen.

Beraz eta auxe da ni geien ikutu ninduen, adimentua, ezagumena, munduaz eta norberaz konturatzeko ahalmena, ezpide zan ziplo jai. Gizona baño lehenago beste «saio» franko izan ziran: «Oreopithekoa» oietatik bat.

Teilhard de Chardin bururatu zitzaidan. Baña enuen astirik izan beñere ezer ikasteko, eta dolorez aitortu bear nuen beranduegi zala.

Baña interesante zitzaidan eztabaida ura.

Nortasunean, ikusten danez, ezagutzen eta «Nitasun»ean, mallak dira. Agian zerbaitez konturatzen zan «Oreopithekoa», baña zerbaitez bakarrik; ez gu aña, tximuak baña geiago ordea. Beraz, orain dala

amar milloi urte, era batera beintzat, mundua sortzen asi zan. Bazan mundua, pentsa dezake batek. Baña bazan eta etzan. Mundua orduan itsua zan, bere baitan itxia... Etzekien zenik ere. Ots, ba al zan? Ez. Ezagumenak sortu zuen mundua: «Oreopitheko» orrek agian: nekez, eta piskanaka-piskanaka berak atera zuen gaia bere itsutasun osotik; eta ala egiñaz, berak sortu zuen mundua egiazki.

Mundua, «Oreopitheko»a baño lehenago (edo gizona baño lehenago, igual zait) zer zan? Ba al zan zerbait? Ez ote zan ezereza bera? Iñork begira eta ikus ez ba zezakean, zer zan? Deus ez? Gizonik sortu ez balitz, mundua etzan ezer izango. Jainkoa ba litz, bai, noski. Bera ikusle.

Gauzak eta Naturalezak, ezagutza sortu dute. konturatu gabe; eta sortze berean berak sortu dira ere. Baña aurrean ba al ziran berak? Bai eta ez. Zergatik bai ala ez? Lehen esan dudana. Alimaliak ez du adimenik; «Oreopitheko»ak bai eta ez, edo erdizka du, eta gizonak bai, badu. Nik ere batzutan loak artu baña lehentxeago esate baterako, badakust eta ez dakust; konturatzen naiz eta enaiz konturatzen, bai eta ez... Eta norbaitek galdetuko balit: «konturatzen al zera ala ez?», au erantzungo nioke: «zu etzera mundua entenditzeko gauza». Bai eta ez. «Ulertzean, etor berriz».

Mundua ortaz bazan eta etzan. Izate itsuan zetzan, lo zorroan gaudenean bezela. Bizi guzian lotan ba giña, biziko al giñake? Ken ditzagun ametsak, eta egiazko biziera ez dala esan genezake, eriotza eta utsa izan ez arren.

Erdi-izateaz konturatu nintzan. Eta ezdeus osoak bildur ematen ba zidan, erdi-deustasun onek eninduen oso lasai uzten.

Ni noizpait agian, gauean lo nagoela jaiki ba nendi, «Oreopitheko»a munduan zear bezelaxe ibilliko nintzake...

Otzikara batek iñarrosi: nundik nora pentsamentu aiek guziak?

* * *

Famelia ikustera joan nintzan. Pozjario ninjoan gañera, aspaldi artan ezpainintzan etxe aldera azaltzen; eta, gañera gañezka mengoen pozez.

Baña, ara iritxita, bereala itzali zitzaizkidan alaitasunaren garrak. Gaizki egin nuela esan zidaten danak ao batez: 400.000 peseta etzerala orduan ezer, orrelako erabakiak artzeko. Lanean segi bear izan nuela Barrota'rekin, eta abar.

—Zer uste duk ba, gizajo orrek? Diru ori ez duk gaur deus. Bereala ikusiko duk, baña, ez gero onera itzul berriz laguntza eske: bi aldiz ondatu duk guk lortutako bizibidea. Beraz or konpon emendik aurrera. Nai dukana egin zak, baña baita guk ere irekiko. Txotxolokeria geiegi egiten dituk gartetan; eta etzegok erremediorik, ikusten danez. Lanari berriz ere beroaldi batean utzi... Ene, Jesus, Maria eta Jose! Txoro ori!

Mallu bat izan ba nu an, malluka asiko nintzakean segur aski! Astakerien aundia!

Eta gero ekin zion aitak zirika:

—Bestalde, ikusiko diagu. Orain arte ontan asko gogoratu aiz gutzaz... larri enbillenean, jakiña. Iku-siko diagu orain.

Betikoa. Ia noiz «pagatzen» didaten semeak berakin «gastatu» dudana...

Ainbestetan zarrakatu zan gurasoenganako lillura edo ilusioa, berriz ere artezitu zan goitik behera; eta erori ziran puskak kolpatuta min artu nuen biotzean.

Etxera geiagotan ez joatea erabaki nuen. Eta denbora askoz ala egon nintzan, gurasoak ikusi gabe, eta jaiotetxeko guzia zearo baztertua.

VIII

Bein batean, nere gelan nengoela, aldameneko etxekoa etorri zitzaidan: «Zurekin itzegin nai du jaun batek. Gauza premiazkoa eta pixua dala dio.»

Joan naiz eta Luzarraga delako batek, telefonoz:

—Zeu al zera Leartza? Begira, Luzarraga naiz. Zuk enazu ezagutzen, eta alperrik da nik orain telefonoz azaltzea. Obe dugu alkar ikusi, eta alkarrekin moldatuko gera.

Bereala giñan alkarrengana.

Itxura atsegiña zuen, eta bereala igarri uste nion egitezko gizona zala. Itz gutxi baña erabaki asko eta aguro.

—Jakin dut loteria toka izan zaizula. Zure adiskide batek esan dit.

—Zeñek ala? --nik.

—Ezin esan. Ala agindu diot eta ez daukat esaterik. (Zeñek esan ote zion oraindik ez dakit. Egia esan jende askok jakin zuen au, nolatan ez daki-dala). Gaur lareun milla peseta ez dira deus, eta, nere ustez obe zenuke peseta oiek negozioren batean sartu...

(Neregana diru billa... Mundu au!...)

—Ots, itz gutxitan esateko: nik orain arte burnitegi batean lan egin dut, eta alako txiki bat jartzekotan nabil. Diru-apur bat badut, eta geixego ingura dezaket. Zu ere nerekin etortzeko gertu baldin ba zaude, gauza bikain bat egin dezakegu.

—Zer baldintza edo kondiziotan sartuko nintzake ni?

—Begira, tratua atsegin bide-zaizun ezkerero, garbiago mintzatuko natzaizu. Salerosketa kontuetan neu jarriko naiz buru. Ondo ezagutzen dut dagoena eta bear dana; sal ditekeana eta ezin sal ditekeana. Dirua zuk eta nik biok; oker ezpanago 400.000 ekarri ditzakezu zuk; nik berriz 300.000 guzira eta tokia. Ez da asko baña bai asteko aña. Zuk, azkenik, ortan trebe baitzera dakidanez, aministrazio-gorabeherak eramango dituzu.

—Eta tratua egin ezkerero zein izango litzake tokamena?

—Au da nere asmoa: nik irutatik bi, eta zuk bat.

—Mmmm! Ez dakit. Utz ezaidazu epe bat, pentsa dezadan.

—Bai, otsegidazu nai duzunean. Baña ez geiegi luza.

Ortan gelditu nintzan beraz.

Etxera joan nintzanean enuen onetzaz ezer pentsatu nai, pakea galduko nuelakoan.

Baña bein eta berriz zetorkidan burura itzegin genuena. Bildur ematen zidan berakin asteak. Baña, egia esan, ni enintzakean langille gisa sartuko: sozio bat izango. Desberdiñak ziran oso, nik uste, lehen Barrota'kin eta Olejua'kin izandako egoera, eta Luzarraga arek eskeintzen zidana; eta zer bildurturik etzala siñistu nuen.

Gañera, au bistan zan, lareun milla aiekin eta lanik sekulan egin gabe, ezin nindekean segi. Eldu egin bear nuen nora edo ara: ez gurasoak ziotenagatik, ez. Baña, alaz ere, zerbait egin bear nuen, ein artan ezin nidekean betirako gera.

Eta pentsamentu auetan pasa nituen bi egun, zer egin enekiela.

* * *

Luzarraga ikustera joan nintzan azkeneko. Baietz esatea erabakia nuen; nik nekienaz irabazpide errexa zan ura; eta bereala aberats biurtzekoa.

Beraz aukera egokia iruditu zitzaidan Luzarraga'rena. Gañerantzean, ez dakit nola gertatu zitzaidan; baña diru ura enekin izanda laster, burutsuago pentsatzen asi nintzan. Ausardia galtzen nuen egunetik egunera, eta beñere baño kikilduago nintzan. Zergatik, ordea? Beñere nabaitu enuena nabaitzen nuen egun aietan: dirua galtzeko bildur ikaragarria. Sobera ezagutzen nuen, zoritxarrez, dirurik gabe bizitzea zer zan; eta berriz artara nindekean bildurrez, bildur izugarriago batek arrapatu ninduen, diru ura amaiturik zer gerta zitekean pentsatuz.

Bildur nintzan ba, eta Luzarraga'gana abiatu nintzan egun artan, tratua egiteko irrikitzen joan nintzan. Bazirudien egin ala akabo zala aukeraketa.

—Piska bat aztertu ondoren lehengo egunean esan genuen iguala egiteko gertu naukazu —esan nion.

—Baita ni ere —erantzun zidan berak—. Idazki bat egin bear dugu orain onetzaz; eta ia ahalik eta azkarren lanean as gaitezkean.

—Ori da —erantzun nion.

Lasaitasun bare-bareak bete ninduen.

—Ez uste izan, alere, astapenak errexak izanen diranik. Ez orixe. Gogoz asi bearko dugu negozioa abiatu arte.

—Badakit —erantzun nion. Alere, aitortuagatik ere, alegia, enuen gogor egiteko asmorik. Itz utsak ziralakoan nengoen.

Gero puntu xehe batzuei buruz mintzatu gihan. Eta bukatzeko, esan zidan:

—Gaizki iruditzen ez ba zaizu, eta aurrerakoan lankide izango geran ezker, ika itzegingo dugu. Ezta ala?

—Bai, bai.

Tokia, ots burnitegi izanen zana ikustera joan giñan. Utsa zegoen eta oso itsusia iruditu zitzaidan. Abotsaren oiartzuna ozenki entzuten zan. Alere, zer geiago eskatuko? Burnia gordetzeko naikoa eta sobera.

Etixerako bidean pozik nijoan. Olejua'z oroitu nintzan, eta Barrota'z; eta barneko pakean murgiltzen nintzan laku epel batean antzo. Lanegiteko gogoa izan nuen ere: sekulan sentittu enuena.

Noizean bein ara uts egitea pentsatu nuen. Sarriegi ez, noski, neure negozioa baitzan ura; baña noiztanka, zergatik ez? Olejua'rik etzegoen indarrik, ezta Barrota'rik ere. Nere buruaren jabe izateko atsegiña dastatzeko gogo bizia nuen.

Gañera, neronen etxean izanda, ordu gutxiago lanegitea pentsatzen nuen: Barrota'nean amaika-amabi orduz ari ba nintzan, nercan zazpi edo zortzi orduz baño geiago iñundik ere ez! Gañera agirian zan nere lan arek etzidala emango ezta Barrota'renak eman oi zidanaren laurdena ere. Ura poza!

Diru ugariago bestalde... edozein tokitara joateko aukera ohea izango nuen.

Pozik nintzan. Abenduaren batean asi bear nuen lanean. Eta, egia esan, urduri nenbillen oraindik ere bost egun falta ziralako!

IX

Lan berrian asi eta ni arrituta nenbillen: Luzarraga arek goikoa eta behekoa nahasi, Urlia'kin eta Sandia'kin itzezin, an-emenka ibilli, eta aste gutxitan abian jarri zuen saltzea. Dudarik gabe asko balio zuen arek artarako.

Nere lana etzan zailla eta poliki moldatzen nintzan. Kupidagarri izan zitzaidan batzuetan Allande (onela deitzen nion nik, eta berak Peru neri, jakina) bere lana neurea baño garratzagoa baitzan. Geiago kobratzen zuen, bai, baño merezi ez ahal zuen nik baño geiago?

Eguberritan jaija zala ta, lehenengo kontu-garbi-keta egin genuen: galantzia larri bat izan ez arren, ongi xamar zijoan ura. Andik laster, udaberrian, oker ezpanago, ondo irabazten genuen. Etzan gauza tinkorik; baño alako illabete batean, zortzi milla pesta eramane nituen etxera.

Automobilla bat erosi genuen, bearrezkoa baitzitzaigun. Astean bizpairu egun bidaian igaro oi zituen Allande'k. Almazenerako bi gizon artuak genituen, eta ni oso ederki moldatzen nintzan. Au enuen orduan aitortu nai; baño, egia esan, almazene artako aministrazioa eramateak etzidan ia lanik ezer ematen: irakurri ere egin nezakean, eta liburu ederrak

irakurri ditut an, tarteka-marteka. «Platero y yo» esate baterako; eta beste.

Bizia goxoa zitzaidan. Eta udaberria etorri zanean olerki-mena piztu zan nigan. Beñere baño bi-ziago piztu gañera. Burnitegia etzan urian bertan, kalean alegia, Zuntzarri'ko inguruetan baizik. Ber- atetik Urrez'ko mendi bildurgarria ikusten zan urruti xamar, murruak eta guzti, eta fabriketako otsa izan ez ba litz, umetango nere Gantzai'n nintzala pen- tsatuko nukean.

Askotan atera oi nintzan kamiñura, eta egu- rasten gelditu. Egun eguzkitsuetan amets egiten nuen an bertan: fabrikak aurre artantxe izan arren, en- tuen ikusten, eta gañerako paisajea begiratzen nuen bakarrik. Atzean, andik 200 bat metrotara, arrobi bat zan; eskubi aldean, Olazarraga aldera, Otaño'ren tximinia agertzen zan. Urrez'ko pareta zaharrak, zemai. Urrez aldera, berriz, baserri franko, alde gu- zietatik sakabanaturik. Ezker aldera fabrikak, otsak, mallukadak, tutuak, kaia...

Nik Urrez eta Soraluze aldera begiratzen nuen, Anduaga eta itsasoa ikusteko; baño andik beretik ezin ikus zitekean, baño amets egin nezakean. Al- diz, usterik gutxienean, eta beti desgogara, gamoi bat azaldu, edo norbait galdezka, edo zana zaia, eta bearrera berriz, eta ke-usaiez betetzera.

Diru franko xautu nuen liburutan udaberri ar- tan. Ez ditut aipatuko. Danetatik irakurtzen nituen; dena zitzaidan atsegin; India'ko erlijioaz batez ere, asko irakurri nuen. Baña, agian, gutxiago kezkatzen nintzan lehen baño... Bolada artan, ots, lau edo bost illabete artan, irakurtzea laket zitzaidan, enuen iges egiten, aspaldian bezela; agian, atsegin zitzaidalako, eta ez kezkabide. Seguru bezela nenbillen eta gau- zak eta katramillak berak gaingiroki aztertzen ni- tuen. Segurtasun ura etzan normala, nere ustez.

Olazarraga'ra enintzan ia joaten: ango batekin laguntasuna egiñik, alkarrengana biltzen giñan as- tean bi aldiz, baño bagenuen gaua pasatzeko gela polit bat. Nik enuen emakume ura Marisa baño geiago

maite; baña alkarri komeni gintzazkion, eta biok pozik. Askoz ere otzago tratatzen nuen.

«Lupiña»ra itzultzen asi nintzan. Urtebete edo geixago bazan ara agertzen enintzala. Zergatik? Zergatik utzi nion joateari? Ango nere lagunak nitzaz nere ezbearrean oroitu etziralako? Bai, ala zan, minduta nintzan. Baña, bakarrik.

Eta orduan, dirua banuela-ta, besterik pentsatu: nik adiskide egiazko bat nuen: Xabier. «Lupiña»koak etziran ezer; eta banekien betirako bost ajola nintzaiela ni. Bide-lagunak ziran ba, besterik ez.

Eta, zer ajola neri alako «sasi» adiskide aiek? Ni bost ajola aiekiko; zergatik ez, berebat, berak nerekiko?

Alere, besterik arkitu artean «Lupiña»ra itzuli nintzan.

Eztenka eta eztabaidak izaten ziran, lehen bezela. Kepa, nere ustez, arroagoa zegoen lehen baño; eta sekulan baño bekaiztiago. Bera asarretzea gus-tatzen zitzaidan, eta au errexa zan: zerbait egokirik nik esan, edo zirto asmotsuren bat arrapostu, eta begiradan nabarmentzen zitzaion bereala nereganako erra eta inbidia.

Errodrigo eta beste berri batzuek (Gabriel, Andoni eta beste bi edo iru) utsa; munduan emakumerik ez ba lego, akabo. Emakumeak etziran oiekiko, beste mundu bat, mundua bera eta osoa baizik. Xabier etzegoen an.

Igande batzutan, irutan agian, aiekin izan nintzan. Baña aspertu egiten nintzan zearo.

Era artara pasa ziran illabete batzuk, bost geenez. Eta bazirudien nere elburua lorturik nuela, eta antziñako irrikak eta ioranak sekulako itzaliak zirala.

* * *

Eta orduantxe gertatu zitzaidan kinka.

Lehendik ere zerbait sumatua nuen nere barnean, baña etzan nabarmendu. Nere bizimodua la-

saia zan, baña asia nintzan artaz nekatzen. Utsa nabaitzen nuen berriz ere nere baitan; oraindik oso arinki, eta gertakari latz batek, zulatu ninduen ziplo.

Alako batean, lanerako bidean «Zuntzarri'ko Deia» irakurtzen ninjoalarik zirrara batek astindu ninduen goitik behera, eta sekulan baño bortizkiago: Xabier'en izena zetorren eskela batean!! Ogei ta amar urtetan illa zan Xabier. Bein eta berriz irakurri nuen: «Atzo ixtripu batean zentu da». Ezin!!! Xabier, nere laguna il!!!..

Zergatik jakin gabe autobusetik jetxi nintzan urrengo geldi-lekuan. Apirrilkeko egun zoragarria zan: bizi berri bat iragartzen zan nun-nai; baña, Xabier, nere bizian geien maite izan dudan adiskidea, illik zegoen, betirako illik. Ez bide zan posible!!! Berriki ikusia nuen eta beti bezela itzegin genuen, konfiantza guziaz. Ezin!

Miña jarri zitzaidan eztarrian: gora ta behera zetozen motorrak eta automobilak egiñaletan Txaho' ren kalean, Ganderamendi eta Olazarraga-beitia' ren artetik, alkar aurreratuz eta presaka gorrian. «Bernardo Deuna' ren Ikastetxe»tik igarotzean aur taide bat kantari entzun nuen:

*«Goizian argi hastian,
ene leiho hegian
xori bat pausatzen da eta
goratik hasten kantan.
Xori eijerra, hain alegera
entzuten haitanian
ene bihotzeko tristura
laster doak aidian...»*

*«Ene xoririk maiteena,
zertaz jin hiz nigana,
iratzarazi naialarik
ametsik eijerrena,
jinik hain goizik, uste hiena
nik baniala hanitx pena?
Ez, ez, abil kontsolatzera
malerusago dena»...*

Goiz ederra eta are ederragoak kanta eta bere olerkia. Ura bai pausalekua! Bekaitza sentittu nuen aurrenganako...

Bukatu zutenean, boziña-soñu zorrotz eta luze batek urratu zuen kanta ondo paketsua. Urratsak noruntz eman enekien. Xabier! Xabier il da! Lizarreta aldera jo nuen, itsasoa ikusi naiean; jende gutxi zebillen, banaka batzuk bakarrik.

—Betirako bukatu da, betirako bukatu da, eta sendo zegoen gizajoa... Nork daki ezer biaramunaz? Bere abotsa entzuten nuela zirudien, eta edozein izkiñatetik neri agur egiten azalduko zala.

Neure biziera aztertu nuen begiratu batez. Barrota'kin nintzalarik, nork pentsa lezake Luzarraga'rena? Usterik gutxienean toka zitzaidan loteria; Bego'rena ere, zero izan zan ustekabekoa, sopsresa utsa... Eta Xabier gizajoak ere nola pentsa lezake ain ustekabean akabatuko zanik? Nola etor zekiokan onelako burutazio zororik? Baña egin du bereak. Dagoaneko mundu au eta bera ere kitto.

Izugarria da gizonaren eiña. Goiz artan konturatu nintzan.

Enuen malkorik ixuri; baña negar egin nuen egun artan.

Bapatean utsa iruditu zitzaidan nere sasi-pake erosea; Allande Luzarraga ero bat, eta ni neu ere, zer? Utsa.

Ordurako banekien nik nere bizimodua eskasa zala; baña neure burua engañatzen asia nintzan, crosokeriak irentsi ba nindu bezela.

Alere, edozeinek ikusita, ni gizon zoriontsua nintzakean, eta barne mamitsukoa: irakurle amorratua, aberats xamarra, erdi amorante bat nuelarik, zer geiago? Ez ote nuen danetarik?

Baña utsa zan ura guzia. Goiz artan nabaitu nuen ondo xamar lehenengo aldiz. Lehenbiziko astindua besterik etzan; astindu ederra alabaña.

* * *

Egun guzian enintzan lanera azaldu. Zearo unkiturik nengoen eta enintzan gauza ezertarako. Bazkaltzerakoan jangar nintzala nabaitu nuen.

Biamamunean azaldu nintzanean eztabaida bizia eta atsekabea izan nuen Allande'kin. Zergatik joan enintzan azaldu nionean, nere kariari gutxi iritzirik nunbait, gogor artu minduen, eta nik ere ez legunkiago ari erantzun.

—Begira —esan zidan—, orain dala oso gutxi nere osaba bat il duk, nere aita zanaren anaia, ain zuzen; eta naiz neronen etxean ogei urte pasa ba zituen ere, ni onera etorri mindukan. Eortzetara joan mindukan, noski; baña alperrikako alakak eta asperenak gerorako utzirik, segittuan itzuli mindukan.

Piska bat ezagutzen nuen Allande ordurako; eta banekien besterik aitortuagatik ere, etzuela arek segurki deus ere sentittu. Arek etzekien biotza zer dan.

—Alere, kontuan izan zak; etorri ez ezen, esan ere ez diat, lanegin bear danean, lanegin egin bear duk eta.

—Baña zer da ortaz lana ire ustez? Ik ezer ere sentitzen ez ba duk maite ukan norbait iltzean, nik bai. Besterik ez.

—Besterik bai —errepikatu zidan goratik—. Kobratzekotan parean ba gaude, lanean ere parean egon bear diagu. Orain arte ez diat ezer esan; baiño nainko asarre negok ire ajolagabekeriagatik.

—Ik zazpi orduz lanegiten duk juxtu-juxtu, erdia edo geiago nobelak letuz eta txatxukeriatan galtzen dukala, eta or konpon. Eta ori ez duk burubidea. Negozioak urbil urbildik eraman bear dituk, ala utzi. Gau eta egun egon bearra zegok gain-gaiñean; eta ik ez duk ori inñundik ere egiten. Nik bai ordea. Nik (eta ik ba dakik au egia dana) ez diat emen ordu tinkorik; goizeko zortzietarako emen izaten nauk, eta gaueko amarretan ere ementxe oraindik. Ortik zear noanetan berriz, orixe egiten diat, eta fameliari eta danari uzten diodala. Beraz ik iku-

siko duk; baña onela etzegok segitzerik. Ni beintzat enegok gertu segitzeko. Orain arte alperrarena egin duk: astean bein gutxienez ez aiz onera etorri. Zer uste duk ba? Enaizela konturatu?

Gauzak tankera artara ezkerro, etzegoen erdian geratzerik: jo ta autsi azkeneraño, ala atzera. Gogoz artuko nukean lehenengo bidea, baña arrisku geiegi zitzaidan, eta, bestetik, egun artan zearo etsita nengoen.

—Gañera ni beti izan nauk oso nagia edo bildurtia erabakiak artzeko. Intuiziorik ez dut, alegia; eta neure kasa eta polliki aztertuz ez bada, ez dakit ezer erabakitzen ziplo.

Jasan egin nuen ba, Allande'ren zaparrada gais-toa, eta besterik erabaki artean beñipein, bere erara astea erabaki nuen.

* * *

Amets lazgarri bat izan nuen alako gau batez, eta ikarak arturik esnatu nintzan, eriosuar, dardarka... Xabier zan, Xabier ber-bera.

Eta bizirik zan. Trankil mintzatzen giñan alkarrekin. Bera oso sendo eta lasai. Geldiro mugitzen zan, bestetan baño geldiago. Auxe zan arrigarriena. Ikuskari arek nekatu egiten ninduen, izugarri nekatu: Xabier'ek besoa altxatzean, bazirudien zama eskerga bat jasotzen zuala; eta nik neronen eskuaz eldu ez arren, bera ainbat akitzen nintzala. Itza ere motela zuen; eta kezkatu egiten ninduen ezin mogi arek... Bazirudien, alde batetik, pelikula nagitan ikusten nuela Xabier, «Kamara lentan» alegia. Oinkada bat ematera ba zihoan, milla lokarritatik askatzen ari zala zirudien lehenengo pausua eman aurretik.

Berak, ordea, etzuen nekatzeko edo larri ibiltzeko kiñurik egiten. Eta bere nagitasun arrigarri eta nekagarri ura ikusita, ziplo konturatu nintzan: txorakeria zan ura. Xabier illa zan.

Baña konturaturik ere, asaldatu egin nintzan, geroz eta sakonkiago. Xabier nunbait etzegoen illik;

ara porogu bat: neurekin mintzatzen baitzan. Banekien nik Xabier illa zana; baña batera ta ametsen bertan enuen siñistu nai, eta ortik tiraka unagarri ura.

Alere, bapatean, oi bezela asi zan Xabier igitzen: nagitasun ura gallepduta, bizirik zan eta normal. Eta bizi zala siñistu nuen. Nere neke aztun ura segittuan itzali, eta berakin solasean ari nintzalarik, au esaten nuen nerekiko:

«Noski. Bizia duk. Nundik atera dut ba nik il zalako albiste ura?».

Eta lasaitu egin nintzan. Eta solasean berakin segi, ainbestetan bezela.

Eta ortan giñala, aidean asi zan Xabier ibiltzen, egaz ba lijoa bezela, baña alaz ere besorik eta ezer igitu gabe, eta begitarte ezertan ere aldatzen etzuela; eta berdin entzun nizaiokean alere, aidean zear bere goraka artan zijoanean. Geroz ta gorago bera, eta berdin entzun nik; eta sobera ni, asieran beintzat, arritzen ez nintzala.

Gero, bai; gero arritzen asi nintzan, eta kezkatzen, arrigarria baitzan ura ametsetan beretan ere. Nola edo zertan ibil zitekean Xabier era ikusgarri artara? Oso goian zebillen, amar metro gora bai, baña ibiltzen astean parean ginjoazen biok: ni behetik, bera goitik.

Bapatean izutzeko arpegia ikusi nion, eta neu ere ikaraz bete nintzan. Nere gañera erortzen zan, eta segundu labur artan, katabu biurtu zan Xabier bera, il-kutxa beltz aundi bat!! Erortzen ari zalarik.

Bere soñeko beltza kaja biurtu zan, eta irribarrez zituen bere ortzak metalezko kirtena. Kajarren oholak, alere, taupaka dardaratzen zirala gogoratzen naiz, lehertzera baitzijoazen. Onek bildur guttizkoa eman zidan. Bizirik lurperatu dituzten gizajoez gogoratu nintzan; etsi bear ura! Ixil ura, taupadak urratuta! Eta Xabier, bere zerraldoan agian... agian... bizi zan! «Ez al duk zerraldoan amets-egiteko bildurrik?» —Sekulan etzait bere ori ahaztu! Ene!! Agian,... amets... Agian... amairik ez...

Eskerga egin zan katibu beltz ura.

Eta bere irudiak zeru guzia estali zuen beltzez, artaz besterik enekusela.

Iges egin nai izan nuen, baña alperrik. Baña etzan alere zerraldoa niganaño iristen; nere gañean zan, erortzear, bai, eta egiñaletan urbiltzen zala; baña eninduen alere ikutzen.

Xabier illa zala antzeman nuen berriz, eta eroaldi betean nenbillela. Bildurrak artua nintzan; baña ezin eskapa, ezin aldegin. Likaz bezela loturik, ezin urratsik eman. Nolako larriak nereak!

Xabier'en itz batzuk entzun nituen, bein eta berriz, geroz eta goragotik: «Eskolara itzuli nai diat... eskolara itzuli nai diat... eskolara itzuli nai diat...». Zerraldoa bera mintzo zala ematen zuen.

Azkenean esnatu egin nintzan. Illunpe artan argi printzak ikusi uste nituen, eta egiñaletan piztu bear izan nuen gelako argia, begi izutuak baitziruditen. Argi argitsuago bear nuen!!!

Taupadak etziruditen taupada, zuraren karraska baizik. Armairuaren taupada sentitzeko ikara pasa nuen, barruan biotzik ba lu bezela... Otzak nengoen eta izerdi patsetan.

Baña Xabier illa ahal zan, ala ez? Zalantzan une batez egon ondoren, eskierki ikusi nuen: «Bai orain dala egun batzuk il duk. Amets zoroa izan duk au».

Ezin berriz lorik egin ordea gau asaldatsu artan.

* * *

Xabier'ekiko amets ura izan ondoren bildurrak egoten nintzan oeratzeraoan. Etzitzaidan orrelakorik sekulan gertatu. Baña alako larrikara pasa ondoren! Egia esan, txikitan bai: Baiona'n onelako ametsak esnatu oi ninduten, eta amaren oean ez ba zan, ezin nindekean lo gelditu. Baña ahaztuta nengoen.

Zerk unkitu ninduen ba ainbesteraño?

Auxe nere ustez: bere lekuan jartzen nintzala. Xabier'ek etzuen inñundik ere pentsatu bere eriotza ain urbil zanik. Alabaña bere akabera gertu zuen. Orobat nik ere eriotzaz bolada artan oroitu ez arren,

bertan nukcan agian, Xabier'ek izan zuen bezela. Banekien au lehenik ere, baña orduantxe konturatu.

* * *

Bizkitartean Allande'kin obetoxe jarri ziran gauzak. Kontrarik ez egitea erabakita, bera bezin goiz joan oi nintzan burnitegira; eta atarramentu oneko gizonaren biziera zer dan, lehenengo aldiz bertatik ikusi nuen. Nazka izugarria ematen zidan berak, noski, baña artan segi bear nuela siñistuta, onetara artu eta miriku batek eria dakusen bezela aztertzea erabaki nuen. Amorraturik ere, entretenigarri zitzaidan Allande'ren zorakeria galantak miaztea.

Bere etxea ikustean igarri nuen dana ederkienik: bere gelan etzan apaindurarik batere. Oso garbia eta berria dana, baña kuadririk esate baterako, ez. Otza, jela obe. Bi seme zituen; bost urtetakoa bata, eta irutakoa bigarrena. Bada ondoratzen zitzaizkionean, etzekien berakin jostatzen. Agirian zan, oso gutxitan ikusten zituen segurki, eta ikusten zituanean ere, etzuela denbora geiegi arlo artan enplegatzen.

Nik, beintzat gauza bat esan dezaket eskierki: beñere ez dudala bere fameliarekin ikusi.

Igandetan ifernuko suak kiskaliko bailuan, alde egin oi zuen Zuntzarri'tik. Jaiegunetan aspertu egiten zan, nik aginduta. Astakeria aundia iruditzen zitzaion igandero jai egitea. Zertarako? Obe genuke egunero lanegin. Berak zionez, «Alperrak asmatu zuten jai egitea»; eta Jainkoagan siñistu omen zuen zazpigarreneko eguneko kontua jakin arte bakarrik...

Besteakin gogorra zan Allande; baña oso gogorra ere bere buruakin. Sei bat orduz lo egiten zuen; eta bistan zan egia zana. Ez omen zan beñere nekatzen; eta esnatu ta laister, asten omen zan negozio-kontuak aztertzen, eta urduri jarririk, ez omen zitekean ocan pausa eta zortzietarako bazetorren almazenera.

Au nik progatuta, gutxi iraunduko nuela uste nuen. Nabarmen nekusen egia au, zeren Allande'kin noski, etzegoen lanean aguantatzerik.

Arriturik bezela begiratzen nuen nik askotan,

piztia arraroren bat legez, eta arrotz zitzaidan goitik behera: berak etzekien, gombazio baterako, gogokezka bat zer dan, edo biotz-miña, edo arimaren larrikara. Besterik uste zuen berak. Baña bera arri gogorra zan auetarako.

Noizean bein arratsaldeko bederatzietan, alkarrekin joan oi giñan itzuli bat egitera. Eta alako batez esan zidan:

—Begira, begira. Ikusten ahal duk ortik pasa dan ori?

—Enauk ondo konturatu. Zein da ba? —nik.

—Orixe duk Ugarte famatua.

—Ara! Entzutea badiat, bai —erantzun nion.

—Noski, Paris'en egon duk ori pintura ikasten.

—Bai, bai, bai.

Oso ezaguna zan Ugarte ura Zuntzarri'n. Eta, askok ziotenez, kanpoan ere bai. Ona omen zan pintatzalle: ez dakit nungo bigarren saria irabazia zuen. Eta artan eta artarako bizi zan: diruz oso eskas zebillen; eta aunitzekin zorretan.

Egitia zan beintzat; eta onek bere kulpa asko kittatzen zuen nere iritziz. Jendeak ordea kasu aue-tan gertatu oi dan bezela etzetorren bat nerekin; eta dirua zor zuen ezkeru, ots munduan dagoenik inportantiena, gaizki kontsideratzen zuten urian, eta bere «xelebrekeriak» etziran oso atsegin.

—Orra or, ik bezela biziera nahasten eta zailtzen duzutenotako beste bat. Bizimodua bear bezin gais-toa ez iruditurik edo, istillu berriak asmatzen dizkitek bere burutik... eta, ikusten danez, obeto bizi dituk onela, dirurik gabe, eta bere zentzugabekeriai iñork ere jaramonik egiten ez dielarik...

—Zer uste duk ba ik? —erantzun nion nik bizi xamar—. Asmatu egiten dutela oiek ezer? Ez orixe. Oiek artista dituk. I ez izatea besterik duk.

—Utikan, utikan!

—Baña gogorra aiz! Ori bere mundu ortan bizi duk. Eta dirurik ez izatea, artista egiazkoa bada biñipein, etzaiok ajola. Bizitzeko lain emaiok eta kontent saiaturko zaik onela edo ala pintatzen.

—Begira: alperrik duk eztabaidan aritzea. I bera bezelakoa aiz, eta alkarri laguntzen diozute. Zuek txorakeria geiegi duzute buruan, besterik ez.

Zer itxaron diteke onelako gizon batengandik? Negozioz kanpo, edozein gauza, txatxukeria, ergelkeria. Dirua eta diru-bideak, berriz, mamitsu eta interesante.

Neke bat omen da lanegin bearra. Baña-orduan ikasi nuen guzientzako ez dala ala: lana batzuentzako neke ba da, askorentzako eginkizun bakarra da, eta jolashide bikaña. Egiatzko pintoreak, esate baterako, edo olerkari fiñak, lehenengo taldean daude; eta berai neke zaie diru bidean saiatu bearra. Baña Allande Luzarraga'k zer egin bear ote zuen gizajoak egun guzian zear, diru-kontuan lan egin bear izan ez ba lu? Urkatu egingo luke bere burua lehenengo arbolan.

Orrengatik Allandea'k garaitzen dute mundu on-tan, eta ez guk, Leartzo'k. Guretzako gogorra da mundua eta bizikera; aientzako berriz ederra, egokia, gozoa. Ona emen agerkari bat: ixtripu bat izan omen zuen gatzetan Allande'k, eta erren-maingu ibilli omen zan luzaro xamar. Bada, jakin nuenez, lan-tokira joaten omen zan egunero, etxean bestela aspertu egiten zala ta... Ura marka! Lanegiteko gauza ez izanik, Lizarreta aldera jo, esaterako, edo auzo paketsu batera joan?... ezta pentsatu ere. Zertarako? Dirurik ematen ahal du ori egiteak?

Nik ordea bizimodu artan berriki asita ere, nekaturia nintzan: eta bekaizkeriaz beterik begiratzen nituen itsas ertzean arrantzan jarduten zuten arrantzaleak. Nik baño gutxiago irabazten zutela? Bai. Baña berak itsasoaren lagun ziran, eta ni burnitegiarena. Pozik egingo nukean trukea.

Illabete artan emezortzi milla peseta irabazi nituen. Eta, zer? Eldarnioan gaua, Xabier'ekiko amets beltz ura etor zekidan bildur, eta... ianean eguna. Zertarako dirua? Noizean bein (atsegiñaren eskasa) ezagutzen enuen emakume batekin gaua pasatzeko?...

X

Orrela igaro ziran illabete batzuk. Urte bete t'erdi agian. Atzera begiraturik geroz eta gauza kon-tagarri gutxiago gertatzen zitzaizkidan uste nuen: lehen, lagunak, neskak, itsasoa, bazan zerbait. «Lupina»eneko afariak geroz eta gutxiago gustatzen. Nere kuadrilla zaharrear, lehen etziran batzuk etorrita, ura etzan nere giroa. Ez nuen ura maite, egia esan, ala aitortu dut lehen ere. Baña jolasbidetzat artzeko ere, Kepa bear nuen, edo Manu edo Mikel; auek ondo ezagutzen nituan, eta adarra jotzea errexat zitzaidan. Adiskidetzat, ortaz, bost ajola zitzaizkidan danak: zaharrak eta berriak; baña jolasbidetzat naiago nituen zaharrak. Eta auek, zoritxarrez etziran «Lupina»n geienak.

Beste aro batean, noski, beste batzuk arkitzen saiatu nintzakean. Baña orduko artan, enuen adiskiderik billatzeko gogorik, ezta astirik ere oso sobera.

Orregatik, atzera begiratzen nuenean pasadizu asko arkitu uste nuen nere gaztaroan, eta gero, azken iru lau urte artan, batere ez. Ori zala bide, nere oroimena atze artan finkatzen asi zan eta ni bihurtzen; zartzaroaren siñale neritzan-eta antziñan finkatze ari.

Baña ala zan: lehen asti geiago nuen edozertarako. Aspaldidanik berriz, enuen lerrorik batere ira-

kurtzen, esate baterako. Laburtu bide zitzaidan eguna, eta enuen artarako betarik arkitzen. Ezta lehen egin nezakean beste askotarako ere.

Biotzaren aldetik ere otza nintzan. Ahaztu egin zitzaidan maitemiña zer zan; eta erabat igarturik nengoen.

Baña etekin ugariak izaten nituela-ta kontsola-bide artan laguntzen ziran nere asarrealdiak: Illero illero ogei milla peseta eta geiago irabazten nituen. Eta oitu egin nintzan dirua erruz erabiltzen. Eta gezurra iruditzen zitzaidan Barrota eta Etxeberria'ren denboretako urria.

Baña zertarako dirua? Osasunez obetoxe ibilli nintzan bolada artan, baña noizean bein, amets bildurgarriak izaten nituen gauetz, bitan aul xamar gelditu arte, loegiterik ezpaineukan.

Eta, zertarako diru ura? Lehendabizi astean bein egin oi nion galdera ori nere buruari; gero astean bi bider, eta azkeneko egunero. Zertarako? Zertarako dirua, biziaz goza ez ba nendi?

* * *

Aurrezki etxean 180.000 pesta izatera eldu nintzan. Enuen ia deus xautzen, gauetz Olazarraga itsusi artan besterik. Gañerako denbora guzian negozioan, ari ta ari, negozio ura Jainkoa bera ba litz bezela.

Esan bearrik ez, nazkatuta nintzan zearo. Beste bide bat nai nuen, beste zerbait: ura ezin zitekean geiago eramán. Zertarako bizi? Burnitegi arek diru franko ematen zuen, bai, baña besterik ez. Eta arimarentzat balio ez duena ez da gauza bizi guzia artan gal dezagun. Dirua irabaztekotan egiten danik ezerk ez du ortara beartzen; biziera arimaren auzia da; eta egiteko ontan erabiltzen ez duenak bere burua iltzen du. Are geiago: dirua kobratzen edo erosokeri berezi ori sentitzen asten nintzanean, okazadura mingotsez betetzen nintzan: zer zan eta sasi-pake ura?

Allande, beraz, eraille borobilla zan. Berak onen garbi azaldu ez arren, bere egintzetan mintzatzen zan; eta Allande dirua irabazteko bizi zan; besterik ez; eta etzun besterik ezeren bearrik.

Onatx kakoa: mixiolariak Indietara dijoazenean, Jainkoagatik joaten dira: eta norbaitek galdetuko ba lie: «Bai, demagun Jainkoarengatik zoazte, baña Jainkoa zertarako?». Au erantzungo lioteke: «Jainkoagatik beragatik. Geiagorik ba ahal dago agian?».

Eta ala da, fededunentzat Jainkoa da dana, eta ez dago besterik ezer bera baño goragokorik. Bideak Argan dute elburua; eta oñarria: Bera da guzien kakoa.

Ba, Allande'rentzat, berebat, eta nere itzak ondo neurtuz diot, dirua zan Jainkoa. Zergatik lanegiten zuen? Zertarako bizi zan? Erantzun errexat: dirua irabazteko. Eta dirua, zertarako? Ori bai txatxukeria: dirua dagoen gauzarik ajolatsuena dalako. Dirua da absolutoa, ots dirua da guzien kakoa, asiera eta amaia.

Nor berera, baña biak bat. Allande bezelako diruzaleak, alabaña, zer ari dira? Ez ahal zan Allande bere utsaz konturatzen? Sumatu egiten zuen agian, eta bildurrak arturik, beste alde batera jo naiago zuen. Bizierak etzuen jomuga garbirik; baña alere, zerbaiten alde lanegin bear da. Gizonak beti egitekoen artean bizi bear du; eta eginkizunik gabe elitzake biziko. Ots, diru-bidean saiatu bearra dago. Allande'ri bildur ematen zion bere utsaren abotsak eta naiago zuen zarata eta eginbearretan mugi. Itsutu egin nai zuen: jakiñaren gañean aurrenik, oarkabean gero. Neuri ere auxe gertatu zitzaidan: oitu egin nintzala bizitzen, Allande'kin asi-berria nintzanean; eta kezkek itzalirik bezela gelditu ziran. Beraz, etzan arritzekorik ezer Allande'gan.

Bein eta herriz ibildu nintzan onelako pentsamentuan eta nere bizimodu arek luzatzerik etzeukala ikusita Allande'kin moztutzea erabaki nuen: nere tokamena eskatuko nion lehenbizi, eta aurrera. Bizi molde ura ezin nezakean-eta geiago jasan: ura

etzan bizitzea. Gure ondasunen jopu egiazkoak giñan. Esan dudan bezela, ez dakit bera, baña, ni bai. Aginduta.

Noiz egingo austeaa?

* * *

Allande'kin austeko eguna etorri zan. Eta urduri xamar igaro nuen bezpera. Pausu larria zan, alegia, eta bestetan baño geiago gal nezakean ezkerok bildur nintzan. Gaur enuke olakorik izango, agian; orduan bai.

Burnitegira baño lehenago Allande topatu nuen: ni baño irurogei metro aitzinaago zijoan oñez, eta bera arrapatzen enintzan saiatu. Arritu egin nintzan, alere, ezpaitzan askotan ala joaten, automobilla izaki. Gabardiña orixka zeraman eta sorbaldaren gainean zeramalako bearbada, oso motza iruditu zitzaidan: gauza arrigarria, zeren ni enintzan beñere orrelako gauzaz oartzen. Baña parragarri zijoan, belaunetatik gora zuen gabardiña alde batera eta bestera kulunka.

Sartu lantegian eta segituan Allande'gana joan nintzan, eta au esan nion:

—Egunon. Ajola aundiko gauza bat esan bear diat: lan oni uztea erabakita zeukeat. Sakonki aztertu diat eta tratuan erabaki genuen bezela esku-bidea badiat alde egiteko, ik dukan bezelaxe; eta egingo ere diat.

Zurturik begiratu ninduen.

—Baña adiskide: burutik egiña ahal ago? Abian jarri diagu negozioa, eta oraintxe alde? Baña, motel, nun edo nola bururatu zaik olako astakeriarik?

—Nai dukana, gaztaroa galdua diat, eta ez diat denbora geiago galdu nai. Bein bizi gaituk, bein bakarrik, eta adiuntz bakar au ezin diteke nolanai onda. Geiagi duk orain arteraño ere txatxukeriatan xautu dedan denbora.

—Baña ez aut ulertzen! Uste baño geiago irabazten diagu orain. Ara azkeneko illean: ogei milla

peseta ik, eta berrogei nik. Ez ote dakik au preza-tzen eta istimatzen? Etzekiat zer esan, benetan. Ire jokabidea ezin uler diteke.

—Bai, bai. Erreza duk ulertzen. Emen erruz irabazten diagu, bai; alabaña, onenbeste edo ainbeste irabaziagatik ere, zer? Zertarako? Emen dana utzi bear duk, ik egin dukan legez: familia, norberaren atsegiñak, eta zaletasunak, asti guzia, dana. Eta gero orren truke, asko irabazten dala? Noski! Besterik ezuan falta, alajaña; emen dana utzi bearra zegok; goitik behera: ots, bizia saldu egin bear duk. Ik truke ori egin nai ba duk, egin zak; baña nik ez. Nik ez diat biziera orrela ondatu nai.

—Baña, Peru: ez adilla kaiku izan. Astia, astia: beti ago ortan. Baña zertarako nai duk astirik? Noiz aspertu aiz igandeetan aña? Aitor zak: sekulan ere ez. Orra or astia franko ordea. Eta iguindu egin aiz, aspertu, norarik gabez nazkatuta. Orixe duk astia: aspertzeko aukera bat. Besterik ez.

—Ez —ukatu nion perrentean nik—; esan dukan ori, batzuekiko bakarrik.

—Nola batzuekiko? Eta eurekiko ere bai. Ala li-ferente ote aiz? —berak zakarki.

—Zer iruditzen zaik atomoa? Zer bururatzen dik erotasunak? Zerk bereizten nau ni zoroetatik edo tximuetatik? Ona emen egiazko kezka.

—Baña zer ari aiz orain? Orixe duk kaka: itz politik erabiltzen dituk, eta kitto. Orrela, ajola du-ten itzak erabilliz, besteok baiñoagoa bide aiz, eta akabo. Arrokeriak irents, txorakeriatan asti ori gal, eta gero... geu kaikuengana, diru billa etor. Bapo!!

—Ez, ez, ez. Oraindik ez diat nerea besterik es-ku. Neure partea nai diat, besterik ez.

—Bazekiat, baña sarritan ala gertatu oi zai-zue orrelakooi: beti ametsetan zabilatzatela. beti mundu-tik at; eta gero berriz munduratzean, geronengana jo bear izaten dezutela, gure laguntza eskatzera. Ez ote da ori geiegi? Ergeltzat jo aurrena, eta gero guk kostata irabazitako dirua eska. Eta orrez gañera,

erruz ez eman ezkeru, zikoizkeria aipatu, eta au eta ura. Ik euk egin ez ba duk ere, askok egiten ditek au. Etzak uka. Neri ere, zer uste duk, orrelako gauzaz itzegitea eta biziera pasatzea gustatuko litzaidake.

Izketa ura beti zeraman Allande'k bere diruaren saillera. Eta, konturaturik, berriz galdetu nion zirika naiean:

—Bai, nai dukana. Baña zer iruditzen zaizkik galaxien fotoak? Zer gogoratzen ditek? Agian ton-toarena egiten ari aiz i or berrogei milla peseta oiek irabazten. Zalantza beñipein ez al duk beñere sentittu?

—Ba, ba, ba! «Aitzekia ona, gauza ona» omen. Etzak igesik egin. Mundu ontaz ari gaituk: galaxietara ez gaituk oraingoz joango. Zertarako berengatik larri?

Eta au esaten zuela, lasaiago gelditzen bide zan: bere «sarean» arrapatzen ninduen berriro.

—Begira, Peru, nere iritzia: I alpertzar amorratua aiz, eta aitzekia bikaña duk kontu oietan. Baña ik badakik, nik baño obeto, alperra aizena, gauza guzietan biguña aizena, belaska, eskasa. Egitekorik geienak bukatu gabe uzten dituk, eta eure buruarekin motela aiz oso. Ik ez duk kemenik, eta, ez frakatsatzeko, iñori ajola etzaion iges-mundu oietan izkutatzen aiz. I ez aiz burrukalari.

Laztu egin nintzan. Arrazoi piska bat bazuen.

—Prueba bat jarriko diat: galaxiak aipatu ditek. Bai. Gauza izango intzakea bi orduz aietaz mintzatzeko? Seguru ezetz: burua jokatuko nitek.

Egia zan.

—I biguña aiz. Biguña aizelako ez duk lanegin bearra maite —ekin zion Allande'k.

Arrazoi zuen alde batzutatik. Ni alperra nintzan, zabarra eta gertaerai kontra egiten enekien. Gazteago nintzanean egiazko aitzekia bat arkitu nuen Gide'gan: unea bizi, miñutuaren gogara abandonatu... egokia zan nere alperkeria eta naimenik eza garbitzeko. Amets egin, atsegiñak dasta... Ots, burru-

karik ez egin, Allande'k zion bezelaxe. Berriz ere argia iruditu zitzaidan Allande, beste alde askotatik begiraturik ere ergeltzat ba neukan ere.

Baña bere jokabidea utsa zan, eskapabide bat, ez besterik. Alere, berak nik baño arrazoi geiago zuela ematen zuelako, zakarki eta minduta erantzun nion:

—Eta ik maite duk kaskagorra aizelako!!! Iri etzaik beñere dirua ematen duen lanaz besterik ezer bururatu (Berotzen asi nintzan). I ezer sentitzeko gauza ez aiz! Eu mogitzeko bai; baño aizeak ere ostoak inarosten dizkik; osto oriek ordea, ez ditek ezer probetxuzkorik egiten. I ez aiz ezertxo ere sakrifikatzen nik esan ditudan gauzai aldegitoko.

—Ez orixe. Guk sentittu egiten diagu; baño ez gaituk sentimentuaren jopu. Sentittu arren ez gaituk unearen katibu, i aizen bezela.

—Ez, ez Allande. Ik uste duk, eta ori oso zabaldurik zegok gaur, mogitzea berez ona dala, eta so egotea berez ere txarra. Alderantziz duk alabaña: igitzea duk txarra, ez egotea. Bearrezkoa dugula esatea besterik duk: baño gizonaren eginkizuna begiratzea duk, betestea obe; eta gero, begiratze ortan bere bidea agian topatzea.

Ondo defenditzen zan, egia esan.

—Ikusten? Alperrarena herriz ere: so, begira, etzan, egon. Oietxek dituk ire itzak. Nik ere artuko nizek! —iseka bezela.

—Begira, begira —otzean erantzun nion—. Ire egitekoak oro gezurrezko eginkizunak dituk. Dirua eukitzeagatik lanegiten duk, ezta? Eta diru ori inguratu dukanean, zer egiten duk? Ez duk ezer goxatzen, ez duk lana etetzen. Artu ta laister, beste negozio bat asmatzen asten aiz. Eta orrela beste bat, eta bi, eta milla. Noiz da ordea katearen azkeneko mailla? Nora lotzen duk bukatu eziñezko kate lantsu ori? Dirua irabazia duk. Eta, zer? Beste negozio batean sartzeko? Demagun; eta jo zangun ere ondo irten zaikala. Eta bi milloi ditukala, milloi bat.

milloi. Eta, zer? Zertarako dana? Segiko al intzake lan da lan?

—Zer nai duk ba egun guzian eta egunero egi-tea? —erantzun zidan Allande'k...

Uraxe zan kakoa! Zer egin bestela egun guziko orduetan zear? Ez aspertzeko, lana: azalpen sakona...

Onengatik erantzun nion:

—Eta sekulan ez ote duk pentsatu: eta, zergatik aspertzen naiz ba ni?

—Tira, tira motel... Utz dezagun, jai duk eta jarraitzea.

—Orra. Ik alere konturamena edo oarmena duk, galaxiak berak ez dutena... Batzuk bestalde, erorrek agian, arima illezkor batean siñisten duzute? Ez da ala? Eta au guzia zer? Deus ez?

—Oiek guziak bizia nahasteko bideak besterik ez dituk. Emen, Peru, gauza zeatzak dituk: mundua, bizi-bearra, jantzi-bearra, ongi bizi-naia eta abar. Auetxek dituk.

Amorratzen asiak giñan, biok, doñuan nabaitzen ez ba zan ere. Eta berak esan zidan:

—Baña zer ari gera? Nork berea siñis beza. Ik joan egin nai duk, ez da? Eta orretxek ekarri au gaur nigana.

—Bai —nik.

—Astakeria galanta egiten duk. Neregatik etzaidak ajola: au martxan zegok, eta i joan arren ondo xamar jarraituko zioat. Aste betean izango duk kontu-kittatzea; eta emango diat ire partea.

Eta alaxe gertatu.

Andik amar egunetara, nere dirua errezibituen: 674.000 peseta. Guzira zortzireun milla bat baneuzkan ortaz, gutxi gora behera.

Eta Allande'ri utzita, beste bizi-aro bat asi zan neretzat.

Geroztik oso gutxitan ikusi izan dut bera. Eta oraindik goizeko zortzietatik gaueko amarrak artean jarduten dalakoan nago...

Gizajoa!

XI

Geiago beñere ez lanegitea erabaki nuen. Ogei ta amaika urte nituen orduan, eta kalkulu au egin nuen: zenbat iraun dezaket nik? Ogei ta amar urtez? Berrogeiez? Lareun eta larogei illabetez geienez. Beraz, milla ta bosteun peseta baditut illean...

Baña gutxiegi zitzaidan. Eta orduan konturatu nintzan. Zer ari nintzan ni? Xabier'en eriotzaz oroiturik orrenbeste konturik ez egitea iruditu zitzaidan bidezkoena. Ura bai zala tentazio bat: «biar au egingo dut eta ura»; «eta geurtz bestea»... Ez. Ori ametsetan bizitzea iruditu zitzaidan. Nola enintzan lehenago konturatu? Gañera, nork sartu zidan nere erraieran lanaren ardura? Atsegiñari buruz bai: unea usiatu bear zala uste nuen; baña txolarteetan bakarrik, lanegin ondoren. Zergatik? Banekien: dirua irabazi bearrez. Dirurik ez izateak beartu ninduen, noski, eguneko orduak lanean erabiltzera. Eta, gero, denboran zear, lillura ezpada ere, eginkizun ertsia eta nagusia biurtzen da; eta azkenean oituraren indarrez, ezin utz ditekean betebearra.

Neri ere bide ortatixek, Gide eta atsegin-nai guziak astian erabiltzeko ideiak iruditzen zitzaizkidan, naiz-eta besterik uste ba nuen ere. Eta gizon burutsuen printzak nituen noizik bein. Orduan ikusi

nuen garbi lehenengoz: etorkizunaz ez dakigu tutik, eta unea ustiatu bear da goitik behera: «aldi joana ezta itzultzen», eta galdutako era ere ez. Lanegin bearra, berriz, ez da sasi-eginkizun bat besterik: Aillande topatu arte enekien au.

Eta, dirua? Dirua bear da ta... Lanegin bearra zigor bat da; baña ez lanagatik beragatik, geure burua eta geure egiazko prolema izkutatzen digulako baizik. Eta, zein da au ba? Onatx emen: denboraren igesa.

Eta enuen geiago pentsatu: denbora arin dijoa, eta etorkizuna gaitza da berez. Erabakitzeke etzan besterik bear.

Eta orrela bukatu zan nere lan-aldia.

Zuntzarri'ko edertasuna topatu nuen berriz, lehen baiño biziagoa nere ustez, gogozkoagoa, izpiritualagoa, gaitasunik gabekoa. Edertasun freskua zan, egun-sentiko aize fiñaren erakoa.

* * *

Alako batez, Monique arkitu nuen Anduaga-Parkean bi aurrekin. Bere semeak! Unkituta joan nintzan beregana!

—Zer dugu Monique? Nola zaitugu berriz emen? Aspaldi ontan ikusi gabe... —frantsesez esan nion.

Lehendabizi ezpide ninduen ezagutu, eta zer egin etzekiela begiratu zidan artega. Geroxeago konturatu zan, eta esan:

—Jesus: Peru zera zu! Barka. Oraintxe konturatu naiz. Zer moduz?

Izketan asi giñan zutik. Iru edo lau urtetako mutikoak etzigan lan aundirik eman; eta bestek ere ez, lotan ari zan eta. Ezin nindekean ni lasai: arriturik nengoen ni zearo. Monique ura ama biurturik. Ene! Gauzarik normalena uraxe zan, noski: Fraintzia'ra ezkondu zala ere banekien aspaldidanik. Baña gure amodio goxo artaz oroiturik gezurra iruditzen zitzaidan dana... Olejua ura... Irribarrez ikus nezakean azkenez. Zer gertatu ote zitzaion?

Monique'k bere xarma guzia etzuen gordetzen, baña ni zoratu ninduen bere begirada xamurra bai; baña... etzan ura, etzan «nere» Monique. Au beste bat zan: denborak billakatu zuena ain zuzen. Barne-zirrara sentittu nuen. Zenbat urte pasa zan alkarrekin ibilli giñanetik? Bost? Zortzi? Enekien. Enuen jakin nai. Etzidan berak ezer aipatu gure bolada artaz; baña atsegiña biok artzen genuela uste dut. Atsekabe atsegiña zan, gozo mingotsa; denbora pasea zalako tristura unkgarria. Ni enintzan «bere» Peru, ezta bera ere «nere» Monique; aiek biak illik ziran. Eta gure miña uraxe zan: betirako il giñalako segurantzjari zegokiona.

Lau pertsona giñan an, ez bi. Ni enintzan nere burua: ni bitasun bat nintzan; eta Monique beste bat. Gure nortasunaren batasuna norañoko ipuia dan egun artan ikertu nuen garbiki. Lau giñan; edo sei, edo zuk nai dituzun ainbat.

Atzera ezin itzultzeak orregatik ematen zigun miña: gauzak etziran noski lehenekoak berak; baña gu geu ere ez. Pasa egiten da dena, gauza guziak itzaltzen dira beti ere: ez dago irauterik! Eta geu ere berdin.

Monique, egiazki itzegin ezkerro, etzan Monique. Monique bein izan zan Monique, eta ni Peru; baña orduan beste bi giñan. Eta onetxek ematen zigun larrimiña. Esate baterako gu ez giñake geiagotan maiteminduko. Zergatik? Bera Monique etzalako. Gu Blas eta Josune, edo ipintzazu gogo duzun izena, eta oiek giñan egun artan. Ots beste bi; baña azaltzen zail dan zerbaitengatik, Josune onek Monique gogoratzan zidan, eta Blas, ildako Peru ura. Besterik ez.

Etzera joan nintzanean oso etsita nintzan: zeren iñork etzuen esaten; baña Monique illik zan. Etzegen dudarik. Eta ona bildurgarriena: Peru ere ni bizirik jarraitu arren, illa zan!!! Eta enintzan konaturatzen. Eten gabe iltzen nintzan.

Beti iltzen nintzan!!!

Ura txorabioa!

Dana iltzen ba da, dana akabatzen ba da, ezerk irauten ezpadu... Zer ote da au? Zer ote da iltzen dana?

Nere urduritasuna fisiko egin zan: zirrarak ahaztuak ziran aiek. Baña pozez bete nintzan: neu bainintzan berriz. Olejua'k, Barrota'k eta Luzarraga'k kolpatu egin ninduten bortizki; baña nere barnean urduritasunaren garra sutan zan berriz ere.

Gar ori itzaltzen saiatu nintzala oroitu nintzan, eta lotsaz bete ere: arrazoi zuen Xabier zanak. Eta zergatik il nai nuen ba gar ura? Azalpen bakar bat zegoela uste dut: nere bizimodu aiek eriotza eskatzen zuten, dirua irabaztea eskatzen zuten eta. Baña zer da diru bearra, sasi-bear bat baizik? Zer da jendeak «lana» esan oi duena, zigorrik gaistoena baizik? Orain enaiz arritzen: nere artan iltzea zan nere elburu bakarra: era artan ezin zitekean ezer desira. Eta desiratzen zanean, arimako goragaleak kezkatasun ura estaltzea eskatzen zuten. Kupida eman zidaten txiro guziak, ezpaitezateke bere diru-bear gorrian gorde gizonari dagokion kezka nagusi eta naturala, bere hein izugarriak bortxatuta. Beartsu eta errumes guziekiko sentittu nuen izugarrizko errukia, eta maito izan nituen.

* * *

Egun osoa nuen neure gisara ibiltzeko: ordu guziak libre nituen. Ez lanik, ez betebearrik. Zama aundi bat kendu zidaten nere bizkar gañetik.

Baña ura etzan nik nai izan nuena. Banuen nai aña astirik, baña artaz nola baliatu jakin ez; Olejua'rekin ari nintzanean egun guzia libre eskeñi ba lidate, ez dakit zer egingo ez nukean: egun osoa...

Zoragarria!

Eta bai, ala zan: zoragarria eta edozeñek desiratzekoa zan nere egoera ura. Baña egia esan, ez ote zitzaizkidan geiegi ogei ta lau orduak egunero? Goizean etxetik alde egiten nuenean pasean asten nintzan

alde batera eta bestera; baña eguraldiaren ederra nola ustia jakin gabe. Ainbeste urtetan nere denbora sasi-eginkizunetan enplegaturik, astiaren oitura galdu nuen; eta bazirudien zerbait falta nuela. Are geiago: gaizki egiten nuela bururatzen zitzaidan noizean bein; lanik ez egitea faltaren bat bailitzan. Zerbait egin bear nuen, zirudienez, nere bizi modu berri artan asi nintzanean batez ere.

Diotenez, orixe gertatu oi zaie gartzelan luzaroan katibu egon diranai: ara nai dutela berriz, azkatasunean izaten presondegi illunaren bearra ba lute bezela. Alere, kupidagarriagoak dira onengatik.

Eta ni ere, nere artan, lanegin-bearraren utsunean sentitzen nuela, gartzelatik irten-berria bezela, kupidagarria nintzan edozein baño. Ezpaita eria oiean dagoena, gartzelatik atera-berria baizik.

Geienetan joandako denboran tinkatzen nuen nere oroimena, eta orduak igaro oi nituen aspaldiko gertaerak nere barnean piztutzen. Atsegin zitzaidan joana zana gogoratzea: orduan bizi izan nintzala iruditzen zitzaidan; baña arrezkero geroz eta illago nenbillela.

Beste batzutan (oso oso gutxitan naiko etsirik bainengoen) etorkizunean egingo nukenez pentsatu oi nuen. Etorkizunak ikara ematen zidan: oraindik ere berrogei urtez iraungo ba nu, zertan enplega orrenbeste denbora? Egunero onela? «Ai ene: zeñen ederki bizi izan nintzan ni»... eta abar. Oiek guziak, bestalde, ipuiak ziran. Ni gaizki bizi izan nintzan gaztaro guzian; eta artaz tristerik oroitzea, oker bat zitzaidan. Baña beti atzera begiratu bear bolada artan.

Orrela, azken aldi artan beti nenbillen desgogara, noizpait Luzarraga'kiko denboran batez ere alderantziz ba zan ere; atzean egon edo etorkizunean, sekulan enuen bizitzen garaiko unea bera. Enintzan trankil. Beti urruti, beti at, beti lekorean. Noiz atzemango nuen oreka ta mementoan pausatzea? Noiz esango: «gera nadin emen, eta orain?». Ez, ordea beti urduri, beti kezkatu: «biar», «atz», «an»... Eritasuna

zan. Gizon asko unkitzen duen eritasun arrigarria. Iges-miña deituko nioke, edo orrelako zerbait. Orainak giarrik ez nunbait. Zahartzaroa segurki!

Nere elburuak urrunduz zijoazen: beñere baño urrutiago nekusen jo muga. Edaturik zegoen nere mundua, barne-eremua arrotz egin arte; eta bakarrik sentittu nintzan, bakardade bildurgarri artan.

Iges egin nai nuen, zeren ingurukorik ezer etzan nere garaikorik. Ura guzia mundua zan, baña etzan «nere» mundua. Pasata zan bera, eta ni neu ere bai. Adio gaztaro maitagarria!

Baña, alaz ere zerbaitez konturatzen nintzan: nere egoera ura etzala betirako egoera. Andik bost urtetara, edo amarretara, orduko egun uts eta triste aiek alai eta bete irudituko zitzaizkidan, eta gero ere berdin!

Denboratasunak tristatzen ninduen ni, ez bestek. Ni neu igaro ala, denborak gezurtaratzen ninduen. Baña nola? Nik denboratasun ortatik at ikusi nai nuen nere burua. Oarkabea, agian. Eta nola lortzen nuen? Nere burua atzean ikusiz, edo etorkizunean. Oroitzapenetan finkaturik nago nere artan, iadanik enaiz aldatzen, enaiz artatik billakatzen eta iltzen; eta onengatixek zitzaidan laket oroitzapenetan murgiltzea: denboratasunak ezpaininduen aietan zarpaltzen.

Denboratasuna gorroto nuen. Askok uste duenez, bein iltzen gaitu denborak: eriotzan. Baña ori ez da egia: egunero, beti, eten gabe iltzen gaitu. Ez gu bakarrik gañera: gure «nitasunik» ez da, eta gauzetan ere ez dago ezer dirauenik. Denboratasunak irauten du bakarrik: dana itzaltzen da, berak dana egiten du igarokor eta ilkor.

Orregatik nai nuen nik pakea: eta pake ura denboratik kanpora arkitu uste nuen. Oroitzapenetan ezer etzan aldatzen: oroitzapenak denboratasun ori il dute, eta argatik lasaitasuna ematen.

Baña oroitzapenak ez dira gure: gureak izan ziran bai, baña pasa egin dira ere; eta ni enaiz oroi-

tzapenetan gorde dan irudia, gaur bizi naizen presuna baizik. Beraz, ni enaiz neure igarokortasun ortatik libratzeko gauza. Uneari loturik nago; eta artan ezpalitz enintzake deus izango.

Ahatik alperrik da.

Baña, oargarria zan ura: denboratasunetik libratzekotan, oroitzapenetan bezelatsu egin bear. Une laburrak ez du ezer ematen, bere izanean bertan baitarama larrimiña eta bere utsa. Ezin iraun dezake. Geiago bear ahal da larrimiña nabaitzeko? Kontzientzian barna, ordea, oroitzapenen billa egiten dugun bezela saiatu ba nintz, zer?

* * *

Burusoil batekin itz egin nuen. Bere buruaren larru distirantea agirian zuen, eta elkarrekin ari ginaranean, bertago zekarren burua, eta nere aurre aurrean nuen. Nik bere aragia ikusten nuen: troskazko pitxar borobilla zirudien, larrosa kolorea, eta puntu batzutan illedun. Eta bapatcan nazka eman zidan. Troska ura beroxko zegoela pentsatu nuela, eta ikutzen nuela bururaturik, kiñu bat atera zitzaidan ziplo: alimalia soil baten burua nekusen.

Egun batzuez orixe iruditu zitzaidan buruaren kopeta. Batean adarrak zituela ikusten nuen, eta izugarrizko goragalea ematen zidan; beste batzutan katu bat, eta kopeta diztiratsua agertzen zitzaiola sumatu bezin laister, nolako goragaleak!... Kalparrik ez kopetan! Itsusia benetan! Bepuruak ere alaxe ikusten nituen, ille urriaren antzera: bat banaka ikusten nituen larruan: bat, bi, iru, lau,... ille aski ziran, baña danak alkarren ondoan. Belardi batean ere, umetan, alaxe ikusi nituen belar-aleak, eta aien artean lur-puskak agertzen zirala oroitzen naiz. Eta etsipen aundia nabaitu nuen, nik uste izanik mendia berdea zala guztiz.

Eta alako zerbait zan ura ere: etzan illea, ille asko baizik, eta kontagarri; etzegoen alegia, adatsik edo mototsik: ille edo billo aleak ziran.

Alimalia soilla zan gizona, ortaz, ille asko ez baña gutxi duena. Eta bere ataletan arpegia eta kaskoa ditu iguingarrienak.

Zergatik ez dugu beraz bizarra aunditzera uzten? Obe genuke, gure alimali-larrutasuna pittin bat berderen estal zedin.

* * *

Bitan izan nuen amets arrigarri bat.

Nik enuen emakume ura ezagutzen. Ezagutu naiean nere arreta guziaz begiraten nion arpegira; baña ezin ikus bere begitartea. Gañerantzeko guziagatik zoragarria zirudien, baña begitartea ezin ikus inola ere.

Atsekabe latzak igarotzen ninduen tiraka ortan, eta emakume ura enuen beñere ezagutu.

Nik oso beroan, eta indarka bizian besarkatu nairik besotik eltzen nion; baña berak indartsua izaki, bein eta berriz askatzen zan.

Eta asko nekatzen nintzan bitarte artan.

Azkenez, leher egiñik egon arren, lepotik eidu eta musu bat eman nion ezpañetan. Orduantxe arkitu uste nuen zorionik sakonena. Baña une artantxe, oñaze bildurgarri bat asten zitzaidan aoan, eta segituan, lipar labur batean, nere soin guzia betetzen zuen. Geza pozoitsua zirudien musuak: sartu-ala kal tetu eta mindu.

Esnatzen nintzanean, izerdi patsetan oi nengoen: alegiñaren aundia! Eta, atsekabearen mingotsa, gero...

* * *

Egun aietan au pentsatu oi nuen ere: etzala maitatzen. Ederra zan, bai, udaberria. Baña ura etzan, nere ustez, gartzetango nere oroitzapenetan gordetzen zan irudia. Otzagoa zan nunbait.

Seguru asko pentsatzen ari nintzana egia etzan. Neu nintzan maitatzeko gauza enintzana, ez besteak.

«Lilieta»tik pasa nintzan arratsaldean, Gandera-mendi atzean, eta alaxe: an ziran maitale beroak, alkarri musuka.

Baña alaz ere, mementoan bizi al ziran aiek? Ez dakit; baña ez dut uste. Berak ere ontan edo artan, iges zebiltzen eskierki: edo geiago naiak, edo tokiaren agiriak, edo zana zala, inor etzan an ere beren artan bizi. Aiek ere, nere iritziz, urruti, gero, biar, atzo... Eta berak ordea, beren une mamitsu artan bizi ez ba ziran, nor ote? Zertarako billa?

Marisa'z gogoratu nintzan, bere lagunaz, Bego'z beraz, eta... uraxe bai egia! Beñere ez lasai: batarekin edo bestarekin beti egon nintzan kezkatu, urduri, goraka naiean, edo beheraren bildur... Noiz atsede-na? Noiz? Enuen ezagutzen, egia esan, presenteko betetasunik.

Alaxe zan.

«Lilieta»ko aiek eta Lizarreta'n ikusten ziranak alere, urduri edo gogait, amodioa maite zuten beñipein: zerbaiten billa abiatzen ziran aruntz, gero igesi ba zebiltzen ere. Ni, berriz, ez. Bakarrik nenbillen; eta enuen ezerean faltarik sentitzen, zeren esperantzarik ez bai nuen; itz zaharrez esateko: «zahartzeak deus onik ez du», eta uraxe nabaitzen nuen nik ere: edozein aldetatik, au gezurra ba zan ere, obe lehenago orduan baño.

Osto igarrok zertarako iraun?

Amodioa ez baña nerau pasa nintzan.

Eta bai azkar!

Betirako!!

Enintzan gaztetasunik sentitzeko gauza: alperrik zan. Neu nintzan joana...

Betirako bukatua.

* * *

Eguraldi ona ari zuanean, itzuli luze bat egin oi nuen goizean. Etxetikan Lizarreta aldera jo; eta itsasertzetik beti Gandera-mendi atzera aurrena, Lilieta'ra gero; eta emendik aldapan gora kaiera baño.

lehenago Urrez aldera jotzen nuen, bere murru zahar-
rrak elburu arturik. Orrela almazena zegoen tokia-
ren ondotik igaro oi nintzan, baña aurre-aurretik
joan gabe: enuen Allande topatu nai. Beraz, Txaho'ren
kalera elduta, eskubi aldera jo, eta Olazarraga'ren
azpitik neure etxera iristen nintzan.

Bestetan, bidea aldatzeko, sartaldera jotzen nuen;
ots, Urrez ondotik Soraluze'ra. Au oso atsegin zi-
tzaidan: baserriak, gurdi zaharrek, itsasoa an aurrean,
eta egoaldean Urrez'ko gaztelu famatua. Eta Sora-
luze'tik Olaburu'runtz gero, eta Lizarreta'tik etxera.

Asko pentsatzen nuen au egitean; eta ia bide
guzian zear itsasoa zan nere gogoeta guzian lekuko
ixilla. Bizia betirako galdurik nuelako ustea, zindoki
finkatu zan nigan. Eta asko nozitu nuen.

Egia garratz ori ala zan jakite arren, saio bat
(azkeneko saioa) egin nai nuen, eta egiteko erabakia
artu nuen. Sekulako parranda asmatu egiñetara
nintzan.

Traba bat arkitzen nuen: enuela jenderik nai
batetik; baña bestetik kristaurik ikusi gabe, egia
esan, alako jairik ezin egin zitekeala.

Pattar botil bat inguratu nuen, eta Xonta'ko
arrietara abiatu nintzan bakarrik. Punta txiki bat
da au, Lizarreta'tik Anduaga'ko bidean dagoena ia
«Soloarte»ren azpian. Eta, be artan, kaminioa ita-
sotik ogei bat metrotara utzita, arkaitz aundiak dira.
Ekaitza danean an lehertzen dira olatuak geienik.
Arratsa zan, eta nere barnean eneraman kezka bat
besterik: lortuko ahal nuen gaztetango giroa ordu
batzuez beintzat piztutzea? Bestetan inarrosi ninduen
sukarra nai nuen berriz; oraindik ere zearo galdurik
nere burua ikus enezan. Eta, artarako edan egin
bear nuen, aurrenik, erruz edan, banekien. Artara
zetorren pattar fuerte ura. Uraxe bai illak piztu-
tzekoal!

Arri aundi baten gañean exeri nintzan, patta-
rraren botilla beti lagun, eta zurrutaka asi. Bereala
piztu ziran Zuntzarri'ko argiak, eta uraren ispilluan

dardar ikus zitezkean beren leñuruak zillar bizian antzo. Itsaso bare barea zan, eta aize epela. Izarrik ez goi illunean.

Arkaitzen errañu beltzak Zuntzarri'ko argitasu-nean agertzen ziran garbiki eta Lizarreta'ko argi-kollareak zuzi-prozesio ixilla zirudien.

Ni, zipitzik esan gabe, ari ta ari, botoilla ustuz nijoan. Soñu txiki txikia urak, zuloren batean sartzean oiartzun ñimiño berexiak egiñez...

Gizon bat pasa zan andik. Eta, ene gardiz izutu egin zan neregatik. Diximulatzekotan makurtu egin zan, nunbait nik ikus enezan. Eztakit nolako itxura nuen ba nik ikusten danez. Arrantzalea zan ura noski, eta alako garaietan andik joaten etzan lehenengo aldiz joana.

Edan ta edan errespetua galdu nion ez iltzeko senari; eta bestetan legez erorita ere miñik artuko enuela siñisturik ezertxo ere ikusi ez arren, arretarik batere gabe mogitzen nintzan arri zorrotz aien artetik.

Alako batez, irristatu egin nintzan goldio linburi artan behera, eta nekez eldu nion inguruan zan arri latz bati, eskuetan min artuz. Milla puskatan botoilla. Etzan ia ezer entzun: kask seku bat eta kitto. Ixilla sortu zan berriz. Zurrut geiago ezin eman; bukatu egin zitzaidan edatea. Burniazko eskallera zatar batetik igo nintzan Lizarreta'ra: eskallera otza eta ezea zegoen, eta argi motel artan berean sumatu nuenez, erdoiez gorritu zitzaidan eskubarnea: itsasoaren usaia zerion, eta burniarena ere, ez gutxiago.

Arin igo nituen mallak; igo bearrik ezpide zegoen gau artan, eta nagitasunik enuen ez besoetan, ez anketan. Bikote franko ere: Anduaga'tik batzuk, Anduaga'ra besteak. Bekaizkeria. Bego bururatu zitzaidan...

Oso zuzen eta artez ezpada ere, Olazarraga aldera jo nuen Lizarraga'tik. Aspaldidanik enintzan ara azaldua. Iritxi ta laister whisky bat edan nuen Baiaso; eta an nengocla, Jaine'k egin zidan begiaz kliska

bat; baña enintzan gauza bera nerekin berriz eramateko, eta ez-ikusia egin nion. Eztulka asteko aña kea zegoen. Alkol geiago bear nik: anak ariñak nituen, baña burua nere buruaren nagusi oraindik. Betiko leloa: nola itzal adimentuaren azkeneko printza aiek?

Pippermint doblea eskatu nuen, eta gero ron bat: eztarria sutan jarri zitzaidan; baña...

«Maitetxe»ra abiatu nintzan: izenak darakusana zan. Gizon geiegi zan an; baña gutxi irauten zuten geienak. Egia-esan atera ala, beste ainbeste sartzen ziran ere, eta lumeroa etzan aldatzen. Piano bat itxita zegoen, eta bere gañean emakume narratx bat ikusten zan, erretzen ari, eta sasi-manpiresaren antzean. Gazte bat gaistoki ondoratu zitzaion; baiña ostiko batez atzerarazi zuen bera. Itz zantar nardagarri batzuk entzun ziran, eta aldegin zuten sei bat gaztek. Danaz oroitzen naiz: siñale txarra, egun artan gero ezertaz ez oroitzea desiratzen nuen eta.

Etxe artako sukaldera joan nintzan ango neska gazte batekin: nola zeritzan eztakit.. Nik ordaintzen niola-ta koñak frantsesa atera zuen, eta biok buruz-buru, bereala ustu genuen. Zato bat atera genuen gero ez dakit nundik, eta koñaka geiago antxe sarturik, ona asmatu genuen jokua: urrutitik bota bear genion edaria alkarri. Goitik behera busti giñan biok koñakaz; eta bera bereala mozkortu zan. Ni ere aski.

Enuen alere oraiña bizitzen, ardo geiago bear nuen, edo zerbait: enintzan mementoan bizi orduan ere. Nai nuen bai, baña ezin. Ezin gal «gero»ko edo nolanaiko irrika etengabe ura...

.....

Biamunean buruko min izugarria nuen. Jaikirik, izutu egin nintzan: zulotxo bat ikusi nuen nere bekokian. Zauriaren itsusia! Gorri-beltz zeuden bere zakarrak eta iguiña ematen zuten. Erori? Jo norbaitek? Antzik ere enion ematen. Eneki. Eta oraindik ere ez dakit zer gertatu zitzaidan edo nolatan iritxi nintzan etxeraño. Loren'ek berriz ez dit artaz sekulan tutik esan.

Egun batzutan etzitzaidan buruko min izugarri ura pasa. Zauria bai; zuloa etzan sakona, larradura bat baizik.

Nere biaramunik tristeena uraxe izan zan. Bezperaz gogoratzen nintzan, eta gauza bat arkitzen nuen: Olazarraga bein edo bein atsegin izan ba zitzaidan, orduan etzitzaidala alakoa iñundik ere. Iadantik ez neraman ara Olazarraga'k berak, ezpada neure oroimenak, eta nere atsegin bear etsiak. Atzera biurtu nai nuen; baña berriz ere, ezin. Errefraua zertorkidan berriro: «aldi joana, ez duk berriro itzultzen!». Ala da!!

Eta ni enintzan izan nintzana. Agirian zan: Olazarraga'k etzidan ezer atsegiñik ematen.

Eta larrimiñez bete nintzan.

Itzalia zan betirako nere goibelaldietan gatz pittin bat eman ziona.

Eta, nere ustez, etzegoen besterik. Marisa, Sofia eta gañerakoak, lekutu ezkeron nun arkituko nuen nik atsegiña? Atsegiñik gabe ikusi nuen ba mundua, irenak antzo, eta larrimin izugarria eman zidan etorkizunak.

Nun palaka nik zorion miña?

* * *

Aspaldidanik ikusten enuen Kepa topatu nuen alako batez, eta ez-ikusia egin nion. Etzitzaidan atsegin eta are gutxiago azken bolada artan. «Lupina»ra enintzan ia joaten; ezta adarra jotzeko ere. Enuen umorerik artarako; eta azalkeria egiteko gauza ere enintzan.

Berak, berriz, etzuen au sentitzen. Eta otsegin egin ninduen lehenbizi; eta gero, ez-entzuna egiten niola igarrita, neregana etorri zan eta bertatik egin zidan agur.

Gauza askoz gogoratu nintzan eta otz-otzean erantzun nuen bere agurra.

—Zergatik ez ator gugana, Peru? Bakartiegi ago; eta gu pozik «Lupina»n i etorrita. Ator ara, motel.

Berak, berriz, itzontzi bihurturik au eta ua kontatzen zidan, nik «bai» eta «ez» erantzuten niolarik ere. Asko itzegin zuen eta piskanaka ere nere berri jakin. Arriturik zegon.

—Ik, Peru, ezkondu egin bear duk. Ezkondu artean beti ibilliko aiz ire ortan: umore ospindua, sasi-kezkak, eta abar. Nere ustez auxe falta duk ik: familia bat, emazte gozo bat, seme-alabak; eta orduan nik agintzen, eure zentroa arkituko ukek, eta zorakeria guziai utziko.

Nik zakar erantzun nion: «Ezkondu? Zertarako?»

—Begira, Peru. Zenbat urte duk ik? Ogei ta amar? Ogei ta amabost? Ortxe nunbait. Ba, garaia ba duk aita zentzudun eta zuhur bat bihurtzeko. Eta etzak dudarik egin: naturalezak ori eskatzen dik, eta ik ordaindu artean ez aiz ire bidean jarriko. Begira: oraindik ni ezkondu ez ba naiz ere, ezkontzeko zorian negok: eta siñistuta ago: orain bazekiat zertarako bizi.

—Ori duk —nik, gaixtoki—, orixe... Eta orixe bai gezurra! Orrela familia bat izan ezkerok, zerbaiten alde jokutzen duk. Ezta? Ots, ik diokanez, iadanik etzegok prolemarik, etzegok auzirik: Gizonaren mentura, ire ustez, egin bear onek agintzen dik. Ire bidea orixe duk: zerbaiten aide burukatu eta lanegin bearra zegok; bestela mundu au atsekabea eta bildurgarria izango ukek-eta. Ezkontzeak orixe ematen dik: seme alaben bizi bearra, etxeko kezkak eta abar. Ots orra or bide bat. Geiago ere: ortxe diagu, Peru, geure bidea.

—Ba, ba, ba —erantzun zidan Kepa'k nere esanak arbuiauz—. Seme bat zer dan ezdakikala ezagun duk. Besterik pentsatuko duk noizpait, aita, ba aite.

—Baña gizona, zergatik ori? —erantzun nion erdi etsita— Bide guziak berdiñak ba dira, danak dituk utsa, eta alperrik duk edozertan saiatzea. Ezerk ez dik merezi, eta obe duk il. Eta il baiño obe, beñere ez jaiok, sekulan ez sortu.

Nere erraiak larrikaraz betetzen ziran. Nik ori esan nezake, eta beste guziak berdin: ots, obe zuen munduak sortu ezpalitz. Biraua zan. Ez Jainkoaren aurka, ezpaita Jainkorik. Baña, neroni ere, gogoregia zitzaidan.

—Seme bat ba u, ez ukek ori esango. Begira: pozik biziko intzake; eta lanaren nekea jasatean, semeaz oroituko intzake; eta bapatean guztiz indarturik, alaiki eramango ituzkek biziaren atsekabe guziak. Ik ez dakik munduari gizon bat ematea zer dan. Gizon bat, ots, mundu bat, mundu guzietan interesanteena ain zuzen. Begira...

—Oiek guziak ipuiak dituk.

Asarre jarri ninduen Kepa'ren iñozokeriak, beti «begira», «begira»... bera erakusle... Eta nere arrapostua osatuz, erantsi nik:

—Ipuiak, bai! Zeregiñak izateko aski diagu alambre batetik ibiltzea. Baña ori ez duk kakoa; bide egiazkoa aurkitu bearra zegok. Bizierak pirritta ero bat ematen dik. Eta erokeriarik aundiena orixe izango litzake: ik abiadura ematen diok kurpillari eta sasi-mugak aukeraturik, itsu-itsuan aurrera oa, gurpillaren zurrunbillo eroan bueltaka.

—Ik esan duk, jarraitu nuen, ni ezkonduko ba nintz, eta seme alabak izango, liferente pentsatuko nukeala. Eta baliteke ala gertatzea. Baña orixe gerta ba ledi ere, gauza bat ikus liteke bakarrik: biziaren zirimola ero eta arin orrek arrapaturik ninduela. Besterik ez.

—Zer?

—Bai, ba. Nere auzia ortan urratzen baldin ba da, utsa duk bizia. Zertarako bizi izan zan nere aita, ik diokanez? Etzekikan gaztetan, egia esan; gero ordea guraso bihurturik, bere bidea arkitu zian: neronengatik, jakiña. Eta ni jaio nindukan. Eta azi ala poza artzen zian berak. Eta ni aziaz ninjoalako atsegin ortan zegoalarik, il egin ukan; eta bere eginbizuna burutu zian. Bapo!

«Nik berriz, zer? Orain ez diat ezer garbirik ikusten, eta gizonaren auzia zertan datzan, ez daki-

dala nabillek zalantza gorrian. Ezkon ba nadi, ordea, argi. Etzegok kezkarik. Semea jaio eta ortarakoxe biziko: nere seme ori az dedin.

«Baña kate ori noiz bukatzen da? Guraso guziak bizi izan ba dira beren semeak azitzeko edo azitzeagatik mundu au ez duk gurpil zoro bat besterik. Gizonak bere baitan arkitu bear dik bidea; eta beregan bertan ez dagoen azalpenak ez ditek deus balio. «Nortasuna» edo nitasuna naiago ba duk, gauza eskaxa duk, deus ez ia. Baña ori duk kakoa, alere, orixe baikera. Gizadi guzia sakonki begiratur, etzaidak neri ajolarik batere. Neri neure burua zaidak inporta: besterik ezertxo ere ez. Ni-tasun ori gainditzen duten azalpenak etzaizkidak deus.

—Gaizki abil Peru. Orrela pentsatzea, gañera, oso gaizki zegok. Irekoikeriaz beterik ago.

—Ez orixe. Nere «ni-tasun» ori, nere ustez, oso gutxi duk, eta ala aitortzen diat. Etzegok beraz «ni-keria»rik. Etzekiat zerbait egiazkorik danentz ere. Baña au esaten diat: nere betekizuna seme alabak izatean baldin ba datza, obe diagu «ni-tasun» eskas ori il. Ire iritzia egia ba litz... naiago nitek bideari ez jarraitu. Ez ote aiz konturatzen bere utsaz?

—Egiazki esaten diat Peru. Aspaldi ontan ez indudan ikusi, eta larritzen nauk. Izugarria duk egia ez ikustea. Onengatik ez diat nik geiegi pentsatu nai: ez diat arrokerian pakea galdu nai eta.

Amorro eman zidaten azkeneko itz auek, eta zerbait erantzun nion gogorki. Alperrik zan. Jainkoa berakin omen zegoen...

* * *

Cazave'ren dendaren aurrean gelditu nintzan. Kuadru famatuaren irudiak ziran eta aien artean Sisley'ren bi eder: ederki inprimatuak, oso ederki. Orratio pena nuen egiazko kuadrurik ikus enezakealako.

Zugaitz illara aiek etziran mendian ikusten diran bezelakoak: ederragoak dira oraindik eta amets

eragiten dute. Ezatasuna darie eta atsedena: ixtant olerkitsu bat tinkatu zuen Sisley'k eta an dago. Igarokortasun ori nabarmentzen da beretan: aldakaitz izan arren, unearen aldakortasuna atzemandu. Denboraren txistua ere entzun bide ditekete, orainari igeska, eta zahartzaroan bezela ikusten da Sisley'k berak bere garaiean memento batean ikusi zuena. Malenkonia gozoz betetzen da izpiritua.

Noiz? Zerbait gogoratzen zidaten ikuskari zoragarri aiek. Zer ordea? Noiz ikusi nuen mundua orren olerkitsu eta eder? Ain argi eta tristagarri batera? Enekien; baña noizpait bederen, mundu eder artan sarturik bizi izan nintzala iruditzen zitzaidan. Ezin jakin, alaz guztiz ere, noiz. Noiz izan nintzan zoriontsu? Zeren mundua Sisley famatuaren antzera ikusi ahal izateko, ez ote da bear zorion fin orren eza barnean noizpait sentittu? Olerkari-gogoa esan oi da. Eta, zer da gogo ori zoriontasuna garbiki sentittu duenaren utsunea besterik?

Zorion-min ori bortizki nabaitu ez duenak ez du Sisley'ren mundua ulertzen. Ederra eta uts-miña bat dira, eta bataren doloreak ikutu ez duena ez du besteak ere ikutu.

Luzaro egon nintzan begira eta begira: atsegin-boladak nabaitzen nituen. Iges egiña nintzan egiatik, eta onetxek pozten. Eta, agian, ez ote zan dana, Sisley'k denboratasunik ez duela? Igarokor da, bai, ikuskaria; bañan ez da igarotzen. Tinkatu egin da denboraren ixuritze ixilla, eta eten gabe dago bere artan berean, eta, batera ere, bere artatik at. Xarma arrigarria: uraxe da, eta ez da ura bera. Aldatzeke aldatu: bera ez, baña geuk aldatzen gure barnean. Ots: geronek ematen aldakortasuna, eta Sisley'k dirauena.

Noiz ikusi nuen nik mundua era artara? Noizpait bai bederen: neronen burua gogorazten zidan Sisley'k, lehenean izandu nintzana ain zuzen. Baña edertua.

Fite bukatu zan Sisley: oroitzapenak gorde dira, bere inpresio igeskorak bakarrik. Bañan auek,

eta bere mundua oro, joan egin dira. Orduko mementoak or daude finkaturik, irudimenaz baliatuz bederen guk ere ikus ahal ditzagun; baña, guziarekin ere... joan egin dira! Bukatu egin dira! Il egin da Sisley'ren mundu osoa. Zeiñen laister igaro zan!

* * *

—Kaixo, Peru —agurtu ninduen bein Errodrigo'k nere etxearen ondoan—. Goazemak bueltatxo bat ematera.

Enuen gogo aundirik; baña egun osoan iñorekin itzik trukatu gabe pasa ondoren, neregandik irtezeko era bat iruditu zitzaidan Errodrigo'k eskeiñi zidana. Banekien, bestalde, zertaz itzegingo genuen: neska au, neska ura, neska arekin, neska... Entrentenigarri, etzan gaizki. Bera, beti bezela, dotore jantzita zijoan: soñekoa berri, eta dan-danean eredu itxuraren aldetik.

—Zer duk? —galdetu zidan—. Oso kolore txarra duk. Ez al aiz konturatu?

Bildurra eman zidan bere arpegiak. Orren makal al nintzan ba?

—Etzekiat, ba. Ez diat ezer nabaitu —erantzun nion.

—Tira, motel. Zergatik ikaratu aiz?

Egia zan. Ikaratu egin ninduen bere arritzeak.

Eta nere izialdura ahantz-arazi naiean, neska batzuei buruzko gorabeherak azaldu zizkidan.

Eta gero, albiste jakingarria ba litzaio bezela, galdetu:

—Ba al dakik zein il dan?

—Ez. Etzekiat.

Eta, nolatan neri azalduko aleginduz, esan zidan:

—Gogoratzen al aiz mariñel batez?... Bai, motel. Burutik egiña zegokan azken gerratearen ondoren; eta, oker ez ba nago, eztabaida bat izan genian danok, eroa ote zanentz. Ez al aiz oroitzen?

—Bai, ba. Itotzeko zorian jartzen zan ura?

—Uraxe.

—Eta, il da? —nik.

—Bai. Ez, ordea, larrialdi aietako batean, oean baizik. Etzekiat zein gaitz zuen.

Pentsakor gelditu nintzan. Eta, gero, Errodrigo utzitakoan ere, pentsakor joan nintzan.

Zer pentsatu ote zuen gizajoak iltzera zijoalarik? Bere ontzia itsasoan ondoratzen zala? Uraren azpitik atera ezin zitezkeala? Bere aldia egin du alere, nola edo ala, eta eman zitzaion epea amaitu.

Eta, zer arkitu zuen azkenean? Zerk eman zion sentidurik bere bidaiari? Ez dakit.

Asko sufrittu zuen gizajoak, alabaña. Egunero izaten omen zituen alako ito-aldiak: gogorra zan ura.

Alere, orain dala urte batzuk esan nuena esango dut berriz: «egiazko etziran bere itsasoa eta ontzia ken ba litez, zer?». Berdin ilko, bai. Bañan, bizkitartean, atsekaberik ez berak.

Eta gutxi eskertuko ahal zukean mariñelak, oraindik bizi izan ba litz?

XII

Gaxorik jarri nintzan, Errodrigo'k igarri zidanez. Noiz oeratu nintzan azkeneko aldiz zio onengatik? Enaiz oroitzen: denbora luzea zan beiñipein ain gaizki izan enintzala. Eritasuna zer dan ahaztuta neukan, eta gaxorik zegoen norbaitez itzegiten zidatenean, neri etzegokidan gertakariaz bezela entzuten nuen dana. Oitura artu nuen osasunean ibiltzen, eta eritzean asarre antzean nenbillen: umore txarra ematen zidan nere egoerak. Eta lehenengo bizpairu egunetan, ala egon nintzan: zakar, errakor, gozakaitz, erretxin. Edozein uskeriak mintzen ninduen, eta nere onetatik ateratzen.

Gero okerrago jarri nintzan. Sukar aundia nuen, eta arratscan berrogei ta bat gradoak iritxi omen nituen bein. Egun ura etzait ahaztu, ezta ahaztuko ere. Ezin nezakean ia arnasarik ar, korrika-apustu batetik etorri-berria bainintzan: soin guziak ematen zidan min, eta ezin atsedenik izan minberatasun artan: etzan, da goruntz edo behereuntz, beti oñazeak nabaitzen nik, zer egin edo nola jarri enekiela.

Nere irudimena aize ero batek arturik eta astindurik zirudien. Erronka itsuan nahasten ziran egiazko oroitzapenak eta alegiazko asmazioak. Enekien nik azkenean zeri lot edo nora atxik, ezta zer zan

egia eta zer ametsa. Egitasunaren sena galdurik, neure barnean igitzen nintzan, errebelatzen obe norarik gabez, eta lillurarik eroenak siñistuz. Egoera go-goangarria zan ura.

Otzak nengoen, eta batera ere beroak. Sukarrak. Oso goraki entzuten nuen, ozenki: Loren'ek itzegiten zidanean bildur ematen zidan bere abotsaren orroak; eta, edozein gauzatxo lurrera erortzea, izugarritzko dunbada zitzaidan. Zoro ote nintzan pentsa liteke. Entzuteko beldur nintzan; eta berriz ere oiki entzuten nuenean, bildurrak arrapatzen ninduen: leheneko entzunaldi asaldagarria baldin ba letorkit...

Neure biotzaren taupadakin ere berdin gertatzen; eta, gero, arratsean, gauaren bildur...

Buruko miña asi zitzaidan arratsaldeko bostak aldean. Geroz ta gogorragoa. Loren'i otsegin nion, leiatillak itxi zitza eskatu. Alere, iilunpe artan berean, argirik txikienak galerazten ninduen foko batek ainbat. Ateko tinbreak kanpai-mordo ematen zidan, eta xirrikitu batetikako argiak eguzki ditziratsu bat. Sentikor nintzan, sekulan ez bezela.

Neure burua azter nezakean piska bat; baña bereala zetozten irudipenak erruz, eta dana ezabatzen. Aundituz zijoan nere buruko miña, eta beheraka ura neronek igartzen nuen: etzan termometroa jarri bearrik.

Gaua urbildu ala, ikaraz bete nintzan: noiz etengo ote zan beheraka nabarmen ura? Ala jarraitzekotan, nere iritiz, eriotzaraño joan nindekean artez artez.

Eta buruko miña sakonago egin zan: buru osoak ematen zidan oñaze ikaragarritzkoa, eta muiñak berak lehertzear ziran.

Gaizki ikusi nuen nere burua; bañan amets gaistoak etzidaten ezertaz zeatz konturatzeraz uzten.

Gau guzian enuen lorik egin. Ordu guziak jotzen entzun eta gaizki guztiz. Milla ordu izan zituen gau beltz arek, baña azkenean argi egin zan berriz eta buruko miña piska bat ematu.

* * *

Biaramun goizean obetoxe nintzan, eta buruko miñik gabe. Eta bezperako inka gaistoa aztertu nuan. Egia esan enekien deus nere eritasunaz, ezpainion oraindik medikuri ots egin. Baña gaizki ibillia nintzala iruditzen zitzaidan. Taupadak arin, arnasa nekagarri, irudimena ero, soin guzia otzez eta minbera... Agian... agian iltzear... Agian dana amaitzeko zorian... asalduz bete nintzan: akabatzeko zori-zorian izan naiz bear bada! «Eta il ba nintz, dagoneko, utsa. Dana illa nerekin... Ezpaita mundurik ni gabe... mundua ez da ezer ni gabe... Bada zerbait, bai; badakit. Baña ez da. Mundua, nerekin, «neure» mundua da, besterik ez... eta ni, gaur banaiz, eta biar ez. Ots mundua ere, gaur bada, eta biar ez. Ba al da ezer mundua bere baitan berean?...».

Baña, burutazio auek etziran guztiz bidezkoak: neu naiz bukatzen dana, ez mundua. Baña mundua ere, berebat, ez da bat, ez dirau. Monique arkitu nuen egunaz oroitu nintzan. Dana pasatzen da, dana dijoa: denboraren ibaiak ez du azkenik.

Ni il izan ba nintz, zalantzan nekusen il ondoko munduaren iraupera; baña zalantzarik gabe neronen akabera. Eta lastu egin ninduen pentsamentu onek.

Aspaldian, Barrota'kin nengoenean esaterako, ezer ere esango etzidan ideiak, erraietaraño astindu ninduen egun artan: agian nere bizian lehenengo aldiz eriotzaren begitartea bertatik ikusia uste nuelako.

Baña, gero, beste pentsamentu batera igaro nintzan; eta onetxek bai ikaratu ninduela. Eta arrezkero, bein eta berriz gertatzen zait.

Ideia arrigarria zan: Zer izango ote litzake au guzia mundua izan ez ba litz? Eta piskanaka asmatzen nuen ikuskizuna: asteko neure burua kentzen nuen mundutik, eta gero beste presuna guztiak. Ori kendurik, alimalia guziak, izarbelak, izarrak, dana; eta mundu beltz uts izugarri bat nekusen. Etzan ezer irudiz. Baña bazan oraindik zerbait: lekua, eremua, espazioa; eta denbora. Illunpe beltz ito artan ez-bide zegoen sorkaririk: baña baziran lekua eta denbora. Eta, orduan, nere barnera bildurik, bapatean ken-

tzen nituen bata eta bestea; eta pentsatzen: ez ni, ez au, ez ura, ez gaur, ez biar, ez atzo, ez astelehena, ez ezer... Badakust!!! Ezereza!!! Baña une artantxe, atzematen asten nintzanean, astindu izugarria nabaitzen nuen sabelean: ezteusaren goragalea. Adimentuak bakarrik ez; gorputz guziak ukatzen zidan ezteusa ikustea. Eta ezin ikus nezakean.

Eta berriz, ekiten nion: «eta au guzia ez ba litz. Dana nere irudimenean bakarrik ba litz... Agian ez dago ezer... Ez au, ez ori: ezer ez, deus ere ez. Eta uts beltz artan erortzen nintzan; eta erori ala, kentzen nituen illunpeak berak, eta arteak eta denborara...». Ikaraldi lazgarri bat nabaitzen nuen; eta berriz atzera... «Mundu au izan ez ba litz, ez-eta beste ezer ere». Bereganatu egiten ninduen Ezerezak; deitu egiten ninduen agian; eta, egia aitortzeko, Jainkoaren ideiak baiño bortizkiago inarosten ninduen bere otzikarak.

Ezer izan ez ba litz...

Dana itxura utsa ba litz...

Dana ala da gaiñera.

Zergatik zitzaidan ain atsegin illunpe aietan behe-ra amiltzea? Neure erraiak berak dardaratzen dira oraindik egun artako burutazio onekin.

Ezertarik ezer ere ez ba litz...

* * *

Arratsaldean, gaxoetan oi dan legez, okerrago jarri nintzan. Berriro entzuten nuen dana trumoiean ortotsak bezela: soñuak ikaratu egiten ninduten.

Gaueko amarretarako oñaze bizian nintzan, pote egiña, arnasarik lasai artu eziñean, ito bearrez... Enituen begiak ideki ere nai: nere lokamutsetan murgilduta nenbillen; eta nekatzen ba ninduten ere, enuen beretatik iges egiterik. Neure barnean bizi nintzan: kanpoko guzia etzitzaidan ajola. Kanpoan enekusen otsa ta zarata baizik; eta auen bildur nintzan. Gañerako guzia ezer ez.

Gizon sendor batek eskuaz eldu zidan nere bio-

tza; eta estutu egiten zuen. Nik nekea nabaitzen nuen biotzean, baña ezin nindekean mugi. Esturaren izugarria! Biotzaren ziztada etzijoakidan; eta burukoakin nahasi zan. Nere biotza eta burua alkarrekin oiñazeak lotuak ziran. Eta bata bestearen ondo-ondoan zirala iruditzen zitzaidan. Leporik ez-bide nuen; eta oiñaze-lokarri fin fin batez alkartzen ziran burua eta biotza.

Emakume bat sartu zan, Loren nunbait. Bere oinkadak mallukada eraman-eziñak iruditu zitzaizkidan. Izuikarak eman zidan. Ixil zedin nai nuen, baña amets zorotan arrapaturik, ezin nezakean auen katea auts. Pausuak, berriz. Dunba, dunba... Azkenean ezer etzitzaidan ajola: atsedena nai nuen bakarrik, atsedena arren!...

* * *

Geroko egunetan obetoxe jarri nintzan. Alde egin zidan sukarrak, eta oi bezela entzuten nuen. Ogei bat egun pasa nituen oean. Loren'ek ondo jokatu zuen, eta bere semea ba nintz bezelaxe zaindu ninduen.

Etzan iñor etorri ni ikusten. Egun aietan nabarmendu zan nere bakardadea: bakarrik nenbillela oartu nuen. Banekien au, jakiña. Baña besterik zan nere ein artan ala porogatzea.

Mindu egin zuen orrek nere arrokeria. Zozokeria bat zan: zein etor zitekean, ba? Iñor ez! Nik enuen adiskiderik. Betiko auzia zan; ez ordukoa.

Baña, mendekatu egin bearra zegoen neri egundako burla; eta, berriz ere, sekulan baiño tinkoago, iñorekin ez ateratzea erabaki nuen. Gizadia gorroto nuen: etsai zitzaizkidan danak, eta etsaitzat artu bear nituen.

Eta orixe egin: arrezkero, beti atera izan naiz bakarrik. Loren'ekin itzegitea bera bereala gertatu zitzaidan arrigarri. Siñis zazu: illabete batzutan, muntzatzeko oitura bera galdurik, totel xamar egiten nuen. Mutu biurtu nintzala pentsa liteke.

Ez itzik, ez lagunik... Neure burua, eta kitto.

XIII

Oetikan jaikita, pizkortzen asi nintzan. Parra-garri zitzaizkidan automobillak, eta motorrak batez ere. Apaiz bat auetako batean ikusi nuenean bati-pat... Minbera eta aul nituen belauin-koskorak: eskalleratan beherakoan nabaitzen nuen garbienik. Barandari elduz jetxi bear nuen lehenengo egunetan, eta alere nekez.

Alde batetik suerte ona izan nuen, eta eguraldi ederra toka zitzaidan pizkortze artan guzian. Goiz argitsuak, eta arrratsalde epelak: kexurik ez ba.

Lehendabiziko egunetan, oraindio eskas nenbillela-ta, enintzan sobera urruntzen, eta Lizarreta'n bertan gelditu oi nintzan. Gero urrutirago eltzen nintzan, Urrez'ko gaztelu zaharra, Zuntzarri'tik bi kilometrotara zan. Baña, alaz ere, eta aspaldian oso atsegin izan ba zitzaidan ere, azken bolada artan alderantziz zitzaidan; eta oso gutxitan ara oi nintzan; eta Soraluze'tik gora oso gutxitan.

Nere pizkortze artan, berriz, oso gogoko gertatu zitzaidan; eta enuen konprenitzen ainbeste denboraz ara gabe nola bizitu izan nintzan. Muño txiki baten gaiñean zan, Soraluze ondoan, eta andik Zuntzarri ondo ikusten zan. Urrez zan Zuntzarri'ko tontorrik altuena. Artatik dana bide zan urbil: Soraluze'ko au-

zoa antxe zan, eta Olazarraga ere ez urruti. Kaia, aurrean ikusten zan; eta, bide erdian, etxe zantar batean kamioiren bat: etzan ezer bereizten andik. Baña an ikusten zan puntu uraxe zan agian Luzarraga, lanean jo ta ke. Atzetik mendi anitz zan: Artegaña, Ollakaritz, Sueskuntze, Abaillondo, Gami, Erloñe... Eta Matxixako aldera Iaunko-Puntta bereizten zan urdin urdin. Etzegoen kamiñurik, eta bidexka txigor batetik iritxi bear zan. Gaztelu famatua izan zana zearo zarrakaturik zegoen: noizpait murru gotorrak izan ziranak, orduan artezituriak zeuden; eta toki askotan eroriak. Bere barnean, belardi goxoan, pozik etzaten ziran ara zijoazen mutikoak eta neskatxoak. Zugaitzak ere baziran, eta an eta emen, bakanka, ama batzuk josten.

Parke bat zirudien arek, eta biziki gogoangarri zitzaidan ango istoria. Banekien nik izugarritzko lekua izan zala gaztelu zahar ura kariista-gerratean, eta barrura sartzen zana etzala berriz andik bizirik irtetzen. Zenbat gizajo etzan an afusillaturik il? Ez dakit.

Orduko soldaduen arpegiak asmatzen nituen, ikararak gorrituak, iltzera joaki; eta besteak ere, iskillua beti lagun... Atsekabearen leku izugarria izan omen zan Urrez. Buru izan zan an bi urtez Irauzki kapitaiña: sona aundia eman zioten oni bere balentriak. Etziran danak, alere, kontatzeko oso egokiak. Gizon zitala izan omen zan; eta bere amorro guziak Urrez'en palakatzen omen zituen astakeriarik gaistoan egiñez, eta eragiñez.

Askok, gazteluan zaudelarik, au pentsatu zuten nunbait: «Bai. Ni baniak beste mundura. Baña ifernu au, beti izango duk, mendez-mende, eta sekula guzira, gaistoki bat, ifernuaren irudia. Gauza asko ahaztu duk munduan; baña Urrez'ko bidegabekeria auek ezin ditezke ahaz. Irauzki zital orrek ementxe ezagutuko dik bere galera, eta Zuntzarri'ko lotsagarritzat geldituko duk bere gaztelu madarikatu au». Alere, etzan orrelakorik gertatzen. Askok eta askok bere bizia an galdu arren, Zuntzarri'n bertan etzan

iñoz eta iñun Urrez'ko gazteluaz itzegiten. Gerra-tea bukatu rik, abandonatu egin zan Urrez, eta zarrakatu z eta ondatuz joan da dana ordutik onera. Larogei urte ziran, alere, ez geiago. Urte gutxi, egia esan. Sarrerako eskalleran, alaz ere, etziran mallak bereizten belarrak estalita. Eta iñork etzekien ezer Urrez'ko gazteluari buruz nere errian, zaharra zala besterik. Neronek ere, oietarako zaletasunik izan ez ba nu, enukean jakingo.

Aurak alaiki jostatzen ziran ormen artean. Ezerk etzituen asaldatzen ez amak, ez umeak. Trankil ibil zitezkean...

Uriko orroa doi-doia entzun zitezkean andik. Paketsua zan ura, eta arimarentzat lasaigarri. Eta, egia esan, uraxe bear nuen nik. Gaxotu baiño lehenago, asko irakurri nuen, eta diru franko gastatu liburutan; eta, orrez gañera, aski eragin nion buruari nere bakardadean.

Gañera, nere eritasunetik onuntz bi illabete ba ziran ere, enintzan oraindik ongi. Urduri nintzan, eta bildurti. Eta argatik, oso pozik joaten nintzan Soraluze'ra eta Urrez'a, ango pakean nerè artegasuna lasaitzera.

* * *

Gutxi iraun zuen alere Urrez'a joateak.

Pake ura, neska mutillik etzanean batez ere, geiegizkoa zitzaidan azkenean; eta izutu egiten ninduen. Ixil artan neronen otsa entzuten nuen; eta txitarrena bezelako burrunba etengabea nabaitzen nere belarrarian. Neure buruari entzuten nion, neure biziarren burrunba alegia, nigan barrera zijoalarik. Eta kezkatu egiten ninduen.

Eta, alako batean, an bakar bakarrik nengoenean, are izugarriago egin zitzaidan: neronen burrunban nahasita, neure biotzaren taupadak nabaitu nituen. Eta, bereala, Xabier'en zerraldoaz gogoratu nintzan: neure larrua zurruntzen nabaitu nuen, larritasunik

bizienean; eta iztarrak eta besoak ikutu nituen, gogortzen ari ote ziran jakiteko. Eta nolatan ez dakidala, astakeria galanta baitzan alakorik siñistea, zurruntzen asia nintzala iruditu zitzaidan. Eta orduan, bildurrak arrapaturik, jauzi bat egin nuen ango murru batetik behera, iges egin naiean; eta izugarritzko kolpea arturik, manki egiñaz jetxi nintzan, ariñago ibilli ezin nintzalako bildurrez. Ez dakit nola ez nuen ezurrik puskatu. Egun batzutan min, eta sendo berriz; baña, enuen iñola ere ikusi nai Xabier bere katibuan taupaka!!

Geroztik enaiz joan ez Urrez'a ez Soraluze'ra. Bakardade artan ixil aundiegia zegoen, eta nere biotza entzun zitekean neure biziaren burrunba etenerazean nahasita. Eta... ez!!! Naiago nuen il.

Bapatean, ortaz, gizonak alkarrekin egoteko duten gogoia ulertu nuen. Beren buruaren burrunba entzuteko bildur dira-ta.

* * *

Gutztiz ikaratu ninduen Loren'i entzun nionak. Nerekin mintzatzen etzalarik, bere lagun batekin baizik, au esan zion:

—Oraindik ez diot au iñori esan; baña onela ezin naiteke segi. Norbaiti esan bear diot, eta ontarakoxe deitu dizut.

—Zer, ba?

—Ene! Urte askotan dut emen, zuk dakizun beze-la, gazte bat. Beti izan da arraro xamarra, egia esan. Baña orain artean enintzan beragatik bildurdu. Orain, ordea, gauero ixten dut gela maratillaz; eta alere, bildur naiz. Gaxorik egon zanetik, eskas dakusat.

Bildurdu egin nintzan eta belarria atean ondo erantsi.

—Baña, zeren bildur, Loren?

—Ai! Ene Jesus, Maria eta Jose! Zuri esateko ere bildur naiz.

—Baña, emakume: lasaitu zaitetz.

Enuen bere arpegia ikusten; agian bildurgarria zuen. Baña nik ere... Entzun bearrez enuen ia arnasarik artzen. Nerau ere Loren baño izutuago nintzan. Zer egin ote nion ba nik? Ezin asma neza-kean.

—Lehengo egunean —ekin zuen Loren'ek—, eranegun zeatzago esateko, pausu batzuk esnatu ninduten. Gau miña zan: iru terdiak gero jakin nuenez. Urrats aztunak. Enuan gelako argia piztu ere nai izan. Nere arnasa etenduz ate aldera begiratu nuen: etzan an leioko xirrikitu batetik sartzen zan argia besterik ikusten... Pausu aiek geroz ta urbillago entzuten ziran, aztunki, eta ixil artan ozenago ziruditen. Gelako atea zabalik zegoen, askotan bezela, gaur arteraño ezpainuen nik bildurrik sentittu... Eta, ortan nengoela, bildurrak igarota, xirrikitu artatiko argi printza eten egin zan, eta gizon baten isla agertu zan oso nekez nabarmentzen zalarik... Nere ize-na aipatu zuen agian, bañan ezin agindu. Ezin eutsi ein artan: karraxi bat bota nuela pentsa lezake norbaitek; baña ikarak arturik, enintzan gauza. «Ibiltaria» geldirik egondu zala uste dut, pausukadarik entzuten ezpaitzan. Ni enintzan presuna: ni ikara utsa nintzan. Bera dar-dar bide zegoen, eta bere ortzen karraska entzun nezakean garbirik. «Zer da otz au?», galdetu zuen. Ez dakit orduan ikaratu ala lasaitu egin nintzan; Peru zan!! Neure maiztarra! Abotsean ezagutu nuen.

Enuen igartzen alere zertara zetorkean. Ni zaharra naiz, eta etzeturren, noski, atsegin billa, eta karraska ura, eta argirik berak ez piztutzea... ura ikara, Jainko maitea!

—Lotan dabil! —eten zuen bapatean bere lagunak.

—Orixe: lotan jaikitzen da, ikusten danez. Baña zazpi edo zortzi urte badira nere etxean bizi danetik, eta enuen beñere olakorik nabaitu.

—Ori bildurra, Jainkoa!

—Orixe bai bildurra! Dar-dar asia nintzan ni ere, bera bezelaxe. Baña nere karraska etzan aditzen,

maindireetan kosk egiten bainuen nik. Eta auek etzidaten oskirik ematen, oi bezela. Otzak nengoen, eta izerdi patsetan. Ezatasun otz-otza gorputz guztian.

«Bildurturik ikusten nuen bere islaren zatitxo bat. «Otzak nago» esan zuen berriz, eta gero ez dakit zer; au agian: «Zerua utsa dago eta otza».

—Eta zer egin zenuen gero?

—Itxo egin. Soñurik atera nai ezik, ezin igi nindekean, nere ustez. Pausuak asten ziran berriz, aztunki, eta urrunduz. Gero ixilla. Oeratu egin zan nunbait.

«Orduan, ixil-ixillik jaiki nintzan, eta, bildurra jario, maratillaz itxi nuen nere gela. Asperena. Arrezkero enuen lorik egin. Eta bart ere, oera joatean, izugarrizko asalduek inarrosten naute. Enaiz, besteko, ezer esatera ausartzen, agian gauzak okerrago jarriko diralakoan; eta emen naukazu zalantza gorrian, zer egin ezdakidala. Neri bildurra ematen dit berak, eta ez da arritzekoa. Badakit nere aurkakorik ezer ez duela; baña ezin iraun ontan. Eta etxetik bidaltzea ere, oso gogorra zait. Baña, azkenean, ez dut beste erremediorik izango. Ez al duzu uste?

—Bai, ala da.

Gutxiena zitzaidan neri etxea galtzea. Besterik zan kakoa: banekien azkenik zergatik ematen zidan bildurra gauak. Lehen enekien; orain bai.

Gaberoko nere ikara aunditu egin zan. Enintzan gauez nere buruaren jabe: nigan bi gizon ziran, eta alkar il zezateken alako batean.

Enintzan bat. Lehendik sumatzen nuena: bitasun bat zan nigan.

Bekokia ikutu nuen: izerdi otza neri ere.

* * *

Loren'ek etzidan alere ezer esan. Kalterik egingo eniolakoan, noski, atea ixten zuen gabero maratillez, oso ixillik, ni kontura enendin; eta besterik

ez. Bildurra etzitzaion paşa, seguru asko, baña mol-
dabide bat arkitu zuen.

Ni okerrago nintzan, eskierki. Eritasunaren on-
dorio jotzen nituen nik lo-jaikitze arrigarri aiek,
zeren ni enintzan sekulan altxa gabez eta lotan.

Medikuak, alere, besterik uste zuten; eta aztertu
ninduten iruak ao batez bezela esan zidaten: «Zuk
ez duzu ezer soñean; ariman bai, agian. Bañan au
ez da gure arloa: sikiatra batek argituko lizuke zer-
bait; eta «geiago agian kofesore batek» Untzeta'ren
ustez. Iñozoa!

Urduriegri nenbillelakoan, toki paketsutara joa-
ten nintzan, baña ez paketsuegitara, eta Lizarreta
eta Lilieta'tik paseatzen nintzan, eta itsasoari so gel-
ditzen ere.

Bein batean Anduaga'ra joan nintzan. Ene! No-
lako oroitzapenak! Zer ote zan Bego artaz? Gajual
Nitzaz maitemindu zan, baña nik erauzi egin nuen
asieratik sor zitekean arbola. Ondo egiña, gañera:
gertatua etzitzaidan damutzen.

Egun artan izan giñan lekuan pausatu nintzan:
nolako zirrara! Zergatik? Bego'ren gorputza berria
izan zan; bañan egite artan etzegoen neretzako be-
rritasunik. Eta, alaz ere, Bego etzan Marisa, ezta
besteak ere, noski. Bego, nik maitatu ez arren, bes-
terik zitzaidan. Lortu nuena neronek lortu nuen,
eta ez nere diruak. Ori zan agian.

Oroimena piztu zitzaidan. Xehetasun asko bu-
ruratu zitzaidan, eta arriturik gelditu nintzan, ez-
painuen nik uste orrenbeste gauzaz gogoratzen nin-
tzanik. Egun ura egun goxoa iruditu zitzaidan eta
Bego berriz ikusteko gogoa nabaitu nuen.

Berriz piztu nai nuen orduko eguna; baña etzan
posible. Ura pasea zan betirako ere.

Eta pasa zalako segurantzia onek berak piztu-
tzen zidan gogoa, eramán eziñezko biurtu arte. Atze-
ra ezin ura...

Gogoeta oietan nintzala, betiko gauza bururatu
zitzaidan: ni orain Bego orrekin ba nintz, orduan
baño aspertuago izango nintzake. Orduan beñipein

bere gorputzarenganako lera itsua nuen; gaur ezta ori ere. Eta, une aiek berriz zuzpertzeko? Lillura zan, alperrik gañera. Ura etzan berriz gertatuko: bein gertatu zan, eta akabo; sekula guzirako akabo.

Nahasi egiten ninduen onek. Betirako! Betirako!! Igarota, igarota, amaituta ortaz.

Eta zenbat-eta sakonago sentittu ori, ainbat-eta xamurrago zitzaidan lekua. Olerki jarioa! Ai, egun artan!

Baña, bereala jotzen nuen atzera: «Baña, arrano pola, Peru: zer ari aiz «egun artan» esaten? Ez adi tentazioan eror. Gogora adi: egun artan ez intzan zoriontsu izan. Ez uan, jakiña, gaurko kezka bera, i gaurkoa ez intzalako, baña kezkatu ibilli intzan, gogait, aspertuta ere esango nitek...»

Eta alaxe zan. Anduaga'ko nere urrutimiñ arek lillura batean zuen oñarria.

Ni enintzan Anduaga'n zoriontsu izan: ez, ez, eta, milla bider, ez.

* * *

Urrengo goizean, nere armairuan miatzen, kar-toizko kajatxo bat arkitu nuen: billatzen ari nintzana, ain zuzen.

Eta antxe zegoen Bego'ren erregalua: «Argiloain' go Ama Birjiña». «Peru-Bego»... Nun ote zan bera?... Aspaldi artan enuen ikusi, Zuntzarri'n ez balego bezela... Ezkondua zan seguru asko lau urte artan, eta andik joana...

Bildu egin nuen dana paper batean, eta berriz sartu bereala.

Mundu ontan zerbaitetan siñis ditekkelako prueba bat zan ura. Baña, zer balio zuen? Zergatik maitemindu zan Bego? Ni zerbait egiazkorik nintzalako? Ez, orixe, Mariñel arek bezela, berak sortu ninduen ni, bere «Peru» egiñaz. Baña bere «Peru» arek eta nik biok ez genuen alkar ezagutzen.

Eta, gero, piskanaka, piskanaka, bere utsaz kon-turatuko zan gajoa, asko sufrittuta gero.

O, gizonaren itsutasuna!

XIV

Andik egun gutxitara, baninjoan ni, oi bezela, Lizarreta aldera. Eguraldia bikaña zan, eta aidean kresal-usai sarkorra. Itsasoaren orro azkarra aundituz zijoan ni Lizarreta'ra ondoratu ala; eta, bapatean, atzetik zetorren soñu batek itzulerazi zidan burua. Nere atzean ziran etxe guziak, danak, illaran, une artantxe erortzen ziran. Kale artan ezpide zan kristaurik. Izugarritzko orro artan etzan karrasirik entzun. Eta bereala, so artan nengoela, nere ondo-ondoko etxe eder bat artezitu zan bapatean, eta tellak eta arriak erortzen asi ziran nere ondoan. Lasterrari eman nintzaion izututa, baña nik alde egin ala, behera zetozten etxeak eta zugaitzak eta dana. Korrika ninjoan ni, eta Lizarreta'ra allegaturik, berdin gertatu zitzaidan: Soloeder jauregia neure begi bistan erori zala eta berdin ere Aspe-Enea eta Soloarte. Etzan beretatik iñor ateratzen alaz guttiz ere.

Itsasoaren orroa geroz eta bildurgarriagoa zan. Aruntz begiratu nuen eta ura ikusgarria! Zulo eta artezi aundiak sortzen ziran plaian, eta olatuak segituan betetzen. Itsasoa irakiten ari zala zirudien; an-emenka, zulo bildurgarritan, amiltzen zan ura, uriko etxeak bezelaxe. Zerua, ordea, garbi, urdin eta bare zegoen.

Izugarrizko ikarak arturik, enekien nora jo; baña nere ondoan metro askotako zulo bat sorturik, korrika asi nintzan; baña izugarrizko lurrikara ura etzan pasatzen, eta nere aurrean, eta atzean, eta saietz guzietan, artezitu egiten zan lurra. Denbora askoz iges egin nuen, eta azkenean, launko-Punta'n, ots Zuntzarri'tik amar bat kilometrotara, pausatu egin nintzan, eta nekez kordea galdurik, erori.

.....

Gero, bildurrak igarota etxera nentorrenean, oso gaizki ibilli nintzan. Goizean erortzen ikusi nituen tokietan ezagutzen enituen etxe berriak ziran. Baña, urrengo egunean, etxe berri aukerak ere, zarrakatu eta erori egin ziran. Eta beti, neronen aurrean erortzen ziran.

Loren'i esan nion au, eta asaldaturik erantzun zidan:

—Peru: lanegin egin bearko zenuke. Denbora geiegi pasatzen duzu bakardadean, eta badakizu: «Alperkeria negar ainitzen ama da».

—Bai. Baña, erantzun: Ez al duzu zuk ere ikusi? Erori egin dira etxeak; neronen aurrean. Izututa nago. Eta berriz altxa zituzten etxeak ere, berdin. Zuntzarri ontan dana erori da!

Baietz erantzun zidan berak; baña nekez amor-emanaz bezela.

Alere, siñistuta egon, etxe guziak erori ziran egun aietan.

Gero ordea, nola ez dakidala, lehengo berera itzuli zan Zuntzarri. Egun gogoangarriak izan ziran, benetan: uri osoa desegin zan. Neronek ikusia da au.

Nola sortu ote zan berriz lehen zegoena? Au ez dakit, eta ala aitortzen dut. Ez dakit nola. Eta besteak ere orixe esaten dute: Askori kontatu diot nik au, eta danak, lehenago ala beranduago, azkenean bat datoz nerekin: Egun artan nola erori zan Zuntzarri guzia-eta, danak dakite; berriz nola billakatu zan lehen izan zana, au ezpide du iñork entenditzen.

Nik inportantzia aundia erasten nion oni, eta oraindik ere ematen diot. Baña beste guziak besterik uste duten ezkeru, ez dut geiago ekingo, zorotzat jo enazaten.

* * *

Askizu'ra joan nintzan atsedeen-billa. Zenbat ibilli ote nintzan araño iristeko?

Etxe mordo bat da, eta ikusgarria benetan. Andik ezpide da denbora pasa. Eliza zaharraren ondoan. mutiko batzuk jostatzen ari ziran. Sartaldera begiratuta, itsasoan urruti, Matxixako punta. Baserriak an-emenka sakabanatuta; eta danen aurrean itsaso zabala. Zuntzarri ez da alere andik ikusten.

Arratsalde ederra pasa nuen an; eta biziki iraitu nintzan. Ango agure zahar batekin itzegin nuen, eta Askizu'n dagoen trabena bakarrera zijoala esan zidan. Penaturik zegoen, Askizu'ko gazteak, andik alde egi-ten baitzuten.

Itzuleran enintzan Getaria'tik pasa; bide luzea nuen eta etxeraño. Eta mendian zear abiatu nintzan, egiñaletan, oraindik ere bostak ziralarik.

Baña berandu egin zitzaidan. Eta gauak bidean arrapatu. Ikusten danez urrutirago zan Askizu au nere Zuntzarri'tik uste nuen baño. Eta nere martxa arindu nuen.

Illargi betea zegoen, eta oni eskerrak bidea ikus nezakean. Erlojua begiratu nuen: amabiak... ordu-bata... ordubiak... Eta ni, izututa, ibilli eta ibilli, atsedeenik gabe, miñutu batez ere gelditu gabe. Ura etzan ba, ametsa: Askizu ura nik enuen egun artaraño ezagutu, eta lehen esan dudana da gutxi gora behera, eta Zumaia eta Getaria'ren artean. Nik ez dut ezer asmatu...

Orrela, ibilli ta ibilli, goizeko bostak laurden gutxiagotan sartu nintzan etxera. Nola liteke ura? Nola? Nolatan, arren? Zer ordutan irten nintzan ba goizean Anduaga'tik aurrera? Nere erlojua gaizki

ez ba zebillen, goizeko bederatzi t'erdietan. Nola entendi zitekean ura, beraz?

Eztakit!

* * *

Urrengo gauean gertakari arrigarri bat jazo zitzaidan.

Likaz loturik nintzan nere oean. Nere eskubian pareta luze-luze bat, eta ezker aldean itsasoa. Pareta eror zekidan bildur, oetik altxatzen saiatu nintzan lehenengo aldiz. Ezin mugi: lotua nengoen, eta ezin nezakean ezer egin arnasa artu besterik. Besoa luzatu nai nuen zerbaiti lotzeko, baña ezin zan. Burua jaso nai nuen, eta lepoa itsasita zegoen eta ezin jaso.

Ein artan nengoela, eun bat munstro bildurgarri ondoratu zitzaizkidan: erdi artz erdi tximu ziran. Diztiratsu zituzten begiak, eta danak begiratu zidaten neri. Nere oea artu zuten bortizki, eta itsaso aldera neneramaten zalaparta gorrian. Alegiñak egiten nituen nik nola edo ala andik eskapatzeko; baña ezta iñundik ere. Pegatuta nintzan, eta alperrik zan.

Ametsetan ari nintzala igarririk, gau-maiaren marmola ikutu nuen, agian iratzarriko nindukealakan; eta otz ura nabaitu nuen, bai, baña etzan naikoa. Kopetan jo nuen bein eta berriz metalezko nere kutxarekin, eta min artu arren, zearo zapaltzen ninduten munstroak. Ni iraultzera zijoazen, ba, algara gorrian; eta une artantxe altxa egin nintzan ni likarik itsaskorren artatik azkatuz. Neke izugarria nuen, eta otza. Polliki, polliki, ahal neurrian ibiltzen asi nintzan; eta tximutzar aiek arriturik begiratzen zidaten; baña argatik ere ni atzeman gabe. «Bota egin nai naute uretara» —nion nik nerekiko. Eta toki itxi batean nengoela antzeman nuen. Bapatean parrez asi zan tximu-taldea, eta beren irrien oiarzunak pareta luzean itzuli ziran, ni kezkatuz. Koloa zegoen arkaitz bat arkitu nuen nere bidean,

eta, indarka bizian, irauli egin nuen. Orduan, foko argitsu bat piztu zan nere aurrean, eta itsutu egin nintzan. Enuen geroztik ezer ikusi ahal. Entzun egin nuen bakarrik segundu batzuez.

Loren'en abotsa entzun nuen, oiuari ezin utzian. Eta nere ondotik egiñaletan pasa zanean ikaraz beretik zijoan: illunpe beltz artan bere arpegi izutua ikusi nuen aurrena, eta munstroai begiratu bearrean, neroni begiratzen zidan tinko. Zer ari zan an, ordea? «Esna zaitez, Peru, arren», esan zidan karrasika. Aia aditu nion nik eta entenditu ere bai. Baña munstroak antxe ziran oraindik neri begira; eta iges egin bearrez, Loren'i jarraitu nintzaion. Ni, eskierki, erdi lotan ari nintzala-ta, enintzan eskapa-bidea topatzeko gauza; eta Loren'en bideari ekin nion. Onek, nere ustez, obeto asma zezakean nik baño. Baña jarri egin zuen onek berriz bere tokian nik kendutako arkaitza, eta arrapatua ninduten tximutzar aiek. Abots asko entzun nuen, Loren'enarekin nahasirik, baña, bereala, munstroen marruma biurtu ziran...

Iges ezin egiñik, nere burua izkutatzea erabaki nuen; eta ango zoko batera joan nintzan, eta ugari ziran alokaz eta salmaz estali. Otzaren aundia! Kresal usai arek biziago egiten besteko.

Otzarengatik estali nintzan, bai; baña bildurra-rengatik ere ez gutxiago. Ezin iraun otz artan, eta... esnatu egin nintzan...

Gaueko bostak eta amar ziran. Zearo nahasia zegoen nere gela. Loren'en argia piztuta zegoen, eta arritu egin nintzan: ez argiagatik beragatik, baña neure gelatik ikus zitekealako. Nola ikus zitekean nere gelatik beretik, gauero Loren'ek berea itxita uzten zuen ezkeru?... Jaikita, aruntz abiaturik, nolako otzikara nere: kuntzak autsita, lurrean zan atea... igarri egin nuen ziplo: neronek botata!!! Loren etzan an. Eskallera zurrumurrua entzuten zan oraindik, eta Loren'en abotsa kontari... Negarrari eman nintzaion. Erdizka konturatua nintzan danaz: «Esna zaitez», belarrian nuen oraindik, eta bere arpegiaren irudi izutua ere bai. Baña, alere, beste era batera iku-

si nituen gertakariak: zuhurkiago jokatzeko gauza enintzan izan.

Bildur aundia artu nuen. Egunez nere bitasuna eskura ba nezakean ere, gauzez ez.

* * *

Biaramunean, Loren'ek deitu zidan, eta gertaera kontatzen asi zan. Baña bereala moztu nion nik:

—Ez. Ez segi. Danaz konturatu naiz gero. Nai duzun guzia esan dezakezu.

—Ba... Begira, Peru... nik...

Negarrez asi zan.

—Bai —segi nuen nik—. Ezin naiteke zure etxean egon. Ezta?

Etzidan erantzun, baña uraxe zan esatekoa...

Eta arropak bildu, paper asko zakar-tokira bota, eta, alde andik. Bego'ren domiña an zegoen ere. Eta gorde egin nuen.

Eneki en alere nora joango nintzan. Etsita etxerik etxe asi nintzan billatzen; baña etxe bat arkitzea zallegia izango zalakoan, ostantu eskas batera joan nintzan: «Pedro-Enea». Toki itsusia, alajañetan, eta Olazarraga'tik ez oso urruti.

Baña, zer egin bear nuen?

Atsekabe aundia artu zuen nunbait Loren'ek. Ni joanda, bakarrik gelditu zan segurki denbora askoz. Ni seme bat nintzaion. Eta nik andik aldeginde gero, oso tristerik gelditu zan bera. Nik ala uste beintzat.

Ni, berriz, nakar gelditu mintzan. Nere artan enituen olako xehetasunak baloratzen, eta ia tristorarik gabe utzi nuen zortzi urtez nere etxea izan zana.

Pena eman zidan uzteak; baña zioak kezkatzen ninduen geiago. Zer egin ote nezakean?

* * *

«Pedro-Enea»ko nere gela oso illuna zan. Etzuen leiorik, eta bazkaltokitik artzen zuen aidea. Sartzeko

eta irtetzeko berdin egin bear zan, ots artan zear; baña ostatuko andere narratxak agindu zidanez, etzan alere zer bildurturik, gauez atea zabalik utzi ezkerro aize-berritze ona zala ta.

Oso soluzio txarra iruditu zitzaidan ura; baña nere ein artan enintzan ezeri gogor egiteko gauza eta amor eman nuen, an geldituz. Besterik zan orratio nik nuen asmoa, zéren gauez nere gelatik solanbulo irten ahal izan ezkerro, zenbat iraun ote neza-kean an? Ez ote nuen egingo aurki Loren'en etxean bezelako astakeriaren bat? Bildur nintzan beñipein.

* * *

Argitasun guztizko batek argitu ninduen egun aietan. Nere inka gorri artan berean, garbiago nekusen munduaren kakoa beñere baño.

Asko pentsatu nuen mariñel gizajo artaz. Zergatik sufritu zuen? Egiatzko etziran katramillengatik larritzen eta ikaratzén zalako. Bere itsasoa etzan itsaso, ezta ontzi ere bere ontzia. Bere mundua berak sortzen zuen, barrutik kanpora; eta bere baitatik kanpora sortutako bere mundu artantxe itotzen zan. Bere eritasunak, alabaña, sendabide erraza zuen: mariñela komentzitu: «Zure itsaso ori eztago, eta zure ontzia ere ez. Zerorrek sortu dituzu mamu oick. Ken itzazu, ezaba itzazu, erauz itzazu, eta atsedén osoa dukezu».

Eta, orra or kakoa: Nik ere berdin egin bear nuen, eta gizon guziak berdin. Nere «Ni-tasuna», bein eta berriz porogutzen ari naizen bezela, ez da ezer. Nere ametsak eztira ia egiatik bereizten: ez dakit aspaldi ontan noiz ari naizen ametsetan, eta noiz ez. Munduan dagoen guztia itxura da; eta itxura orrek neronek nai dudán arteraño iraun dezake mariñelaren munduan bezelaxe. Neuk sortzen dut, ni gero zigortzen nauen mundua: neronen egintzen jopua naiz. Ots, mediku bat bear dut, mariñelak bezela, nere sasi-itsaso ontatik begira nazan.

Eta arkitzeko zori-zorian nagoela uste dut. Bañan ez dut oraingoz sendagillea aipatu nai, ikara lazgarria ematen dit-eta.

* * *

Baña ni adimentu argia ba nuen ere, enenbillen ongi.

Argitsu ikusten nuen dana, baña uraren azpian ba nengoen bezela: alegia, nere aurrean sekulan baño dirdaitsuago agertzen zitzaidan mundua, leñuru aldakorretan nekusen; gauzetatik lurrin urtsu batek bereiziko ba nindu bezela. Laku garden bateko ondolik gisa ikusten nuen, igikor, urduri, koloretsua; eta argi artegatan murgildua.

Eta ni ere, mundua bezela, koloka nengoen, aldakor eta bildurti. Nere barnea argitasunez beterik zegoen, baña ikaraz ere ez urriago.

Gauzez ain gaizki lo egiten nuen ezkerero, nekaututa nenbillen, eta aultzen asia nintzan begi bistan. Burutazio arrigarriak nituen geroz eta geiagotan; eta auekin batera, nere ametsak, eta Zuntzarri'n bolada artan gertatu ziran gauza arrigarriak bildurik, urduri ibiltzen nintzan.

Ildo edo joera ortantxe biziki arritu ninduen gertakari batek: ez dakit egiazki ametsa ala gertatua dan, eta ez dut onetzaz iritzi gogorrik edo zindorik emango.

Baña, nere ustez, Askizu'n gertatutakoa bezela au egiazko gertaera da, eta ez neure irudimenak sortua.

Alako batez, kanpora aterarik, txistu etengabea entzuten nuen, eta buruko miña nabaitu nuen. Oiturari jarraituz, eta gaxorik ote nengoen jakite arren, nere lepoko zaiñean ipiñi nuen beatz bat, eta... ikararen larria! Neure zaiñak eta biotzak berak egiten zuten txistu ura. Etzan taupadarik bereizten: soñu jarraiki bat zan bakarrik, dardara-edo bezelakoa. Baña ura etzan alere geien arritu ninduena: nere

taupadak kontatzekotan erlojura begiratu nuen. Alperrikako saioa zan, noski; baña arreta beste gauzatan nuen ezkerero, oartu gabe begiratu nuen. Enintzan asieran arritu, ezpainintzan inka artan bereala ezertaz konturatzen: taupadarik gabe bizi ni? Onetxek minduen erotuta: nere biotzak etzuen taupadarik ematen; eta, alere, ni sendo nengoan. Baña... zer zan ere erlojuan? Zirrara batek astindurik, erlojuaren orratzak ikusi nituen: arin zebiltzen, eta beste txistu-molde bat egiten zuen erlojutxuak ere. Orratz aundia azkar zebillen, eta miñuturen batean-edo bira osoa egiten zuen. Txikiak alaber, amabi bat miñututan egiten zuen berea. Zer ziran «Miñutu» aiek alere? Ez dakit. Baña erlojukuak ez beintzat.

Zurtuta ni, beiñere baño bortizkiago iñarrosirik. Nola leike ura guzia? Arrigarria, bildurgarria obe nigandik at ere ikusten zana. Bereala illuntzen zan, eta pentsatzen asi orduko, bazan berriz eguna. Automobillak azkar baño azkarrago zebiltzen, ia ia ikusten etzirala. Presunak ere, berdintsu. Ura txorabioa! Itsasoaren aldera abiatu nintzan: sei bat miñututan egin zan marigora, eta beste seitan maribera. Jendea eromodun zebillen alde batera eta bestera, denborari ezin atxikirik, denboraz baliatu ezin gorrian.

Eta berdin zirauen nere gorputzaren txistuak... Eguzkiak... Eguzkiak itxaferoa zirudien eta berealako batean sortzen eta izkututzen zan: bildurgarria. Enuen erlojura begiratzen, erlojuarekin batera baitzebillen dana; baña, nigan begiratzen nuen, eta, nik aginduta, zortzi edo amar bat miñutuz ibil zitekean egun-argiz. Gero gaua zetorren, izugarrizko gau laburra. Eta berriz ere eguna, egun sentirik gabe; eta berriz gaua, arratsik gabe. Asaldagarria zan ura. Jendea ikusteak, batez ere, nolako miña ematen zuen: sartu, atera, atzera, aurrera... eten gabe, atsedetik gabe. Nere gelara joan nintzan nere egun bat gutxi gora behera igaro zanean; eta biaramunean irtenda, arrituago gelditu nintzan: munduaren kliska zoroak berdin irauten zuen, eta udaberria igarora zan. Ne-

kagarria zan ura, benetan: eguzkia, illargia, bero, otz, euri, aize... Nolako biraka!

Eta txistua ari ta ari nigan...

Zerbaiti lotu naiean, aizeari eldu nion, baña, aizea ikusten ba nuen ere, ezin finka nindekean. Eta zerraldo erori nintzan. Automobillak tximistak bezela zijoazen nere ondotik, eta bildurrez bete nintzan.

Jendearekin ez txokatzeko, etxeen ormen ondo-ondotik itzuli nintzan «Pedro-Enea»ra, lauroinka, aizeak eramán nintzan bildurrez.

Eta gelan sarturik, ura guztia pasa artean berriz ez irtetzea erabaki nuen.

* * *

Pasa zan azkenean bolada gaisto ura, eta tran-killago nenbillen. Patxara aundian egiten nuen dana, eta auxe zan ni gelan larritzen ninduena: alako izugarrietara itzultzea. Zuntzarri'n ere obeto nekusen dana, eta, beintzat, etzan ezer arrigarririk gertatzen.

«Pedro-Enea»n gaizki: egun asko pasa nuen nere gela kiratsean gauzak normalago jarri zai; eta orrez gañera, lau pareta itxi aiek etzitzaizkidan atsegin. Atea idekita uzteko esaten zidan etxeoko andreak, asmo gaistokorik iñor etzegoela ta; baña nik naiago nuen arnasarik gabez il, nere burua agirian utzi baño. Eta usai txarra ba zan ere, naiago nuen alare ate bakar ura kisketaz itxi.

Orregatik, barruan era artara egon bear nuelako alegia, zearo ase ninduen kanpokorik ezer ikusi gabe bizitzeak; eta, osasunez ondo izanda laister maiz irtetzen nintzan «Pedro-Enea»tik: liburu bat arturik, ala artu gabe, kalera joaten nintzan andik igesi.

Agorril ura zoragarria izan zan; agian nere biziera guzian ezagutu dudán ederreña. Apar ugaria zegoen Olaburu'n, eta olatu aundi xamarra. Zeruan odei luze zuriak, oso goian; aize freskua, eta itzalak xahu. Paletako koloreak oro ugari.

Egun aiek galduak ziruditen, berez, ederregiak izaki. Arratsalde aien ederrak iges egiten zuen, zorian-izpiak bezelaxe. Sisley'z gogoratu nintzan: berak tinkatu zituen alako mementoak. Ura atsegiña berea! Nik, berriz, finkatu egin nai nituen ere arratsalde aietako pakea eta bikaintasuna; baña ezin... lgeska nabaitzen nuen dana, baita nere burua ere. Eta pena ematen zidan eguraldi aren laburtasunak.

Arek «betikotasun sakona» eskatzen zuen, atsegiñak bezela. Nietzsche'ren itzak dira; eta neureak ere bai. Eta bazijoan, ordea, egiñaletan, nigandik igesi, eta ni beregandik.

Alere, munduak etzuen neretzako atsegin-biderik. Agortua zan dana neretzat.

Argi-argitsu ura burla gaistoa zan ortaz, pena baño geiago. Orduko edertasuna tentazio bat zan, beste tentazio-modu bat...

Ortan nengoen ni eta ogei urtetako neska pinpirin eder bat igaro zan nere aurretik: ille gorria zuen eta soñekoa urdin urdiña. Piztu egin ninduten bere liraintasunak eta ibillera arriñak; eta oarkabean jeikitzeke zorian egon nintzan.

Zertarako ordea? Bizitzeko tentazioa berriz. Ura utsa zan, banekien, eta atzera jo nuen bereala. Zertarako? Zerk ots egiten zidan? Ederra zan, bai, giroa bezela, eta bere aurrean eskierki itzegiten ere ahaztuko litzaidake lillura utsean. Baña, zer? Nere gorputzak joan nai zuen, ez nik; ni ezpainaiz nere gorputza. Pentsatu aurrean beste gauza bat iruditu arren, nik banekien tinko munduak edo emakumeak neretzat etzutela atsegiñik. Eta oroitzapenen eta lilluren jopu enuen berriz izan nai.

* * *

Halztoi'ra joan nintzan, Soraluze ondoan. Paketsu zan ura, beti bezin paketsu... Etzan ezer entzuten. Eurikara zan, baña ateri.

Ezerk enau nere bizian egun artan ikusi nuenak ainbat unkitu. Ixillak ez dit geroztik bildurrik eman, ezta neure taupadak entzuten baditut ere.

Halztoi'ko errekaen gaiñetik, arrizko zubi bat dago, eta ni an gelditu nintzan erreka aldera begira.

Ura oso garbia zegoen, guztiz gardena, obeto esan, eta ondoa ere berak ikuzita erraz ikusten zan.

Eta onatx gizonak ikus dezakean ikuskaririk zoragarriena: etan gabe ixuritzen zan ur laister garbi ura zubiaren azpitik. Ibaiaren ondoan arri koskor batzuk ziran, beti tinko. Ura bazijoan, baña ondoa ez. Ezer etzan aldatzen, egia esan, ura ere jetxi ala baitzetorren goitik ere...

Bazijoan ura, baña ibaia ez! Ibaia alere etzan ezer urik gabe...

Luzaro egon nintzan begira; eta geroztik etzart ikuskari ura bizi guzian ezabatuko eta ahaztuko.

Ura joan, ibaia gelditu. Ibaia ez da ezer ordea urik gabe.

Agian alegiazkoak dira biak; eta ez dira ez bata eta ez bestea... Agian neure desiren erraño besterik ez dira biak!!!

Zeren nere gauzak badijoaz, baña ni ez. Ni alabaña, enaiz ezer, nigan zear igarotzen diran oiek guziak baizik.

* * *

Ibai baztergabe bat iruditu zitzaidan dana: geure bizia ez ezen, gañerako guzia ere. Ilkor da dana, eta etengabe billakatzen da; egia esan mundua ez da billakatu bakarrik egiten, billakatzea bera ere baita. Etengabe iltzen eta akabatzen dalako billakatzen da ain zuzen.

Ibai ortan, alere, ez da ikusten, nik Halztoi'n bezela tinko dirauen arri koskorrik. Ibai ortan dana dijoa. Dana da ura eta ezer ez ondoa. Dana zarrakatzen da eta erortzen eta ezabatzen.

Alboetara begiratu arren, ez da legorrik ez tinkorik antzematen: ibaieko ura dijoa zabalera guzian behera eta behera. Ibaietik atera nai dugu; baña munduan ez da ibai ori besterik. Ots, zer ari gera billatzen? Ezereza!!! Zerua ez da beñere asaldatzen utsa dagoelako...

Guziok oartzen gera gañera beheraka eta igitze guztizko oietzaz, nola ez dakigularik ere, ezpaitugu tinko-lekurik arkitzen. Baña senak esaten digu jaio egiten dala dana, eta azkenik akabatu. Suntzitzen ez danik ez da; ots, ez dago dirauenik.

Alabaña, gugan eta gauzetan ere, ba al dago, iduriz, denboran zear dirauen zerbait? Gugan dagoen zerbaitetik, pausa gaitezen eskatzen du, baña, alperrik. Gelditzea naiko luke: amaitzea etzaio atsegin.

Eta zer da ori?

Agian ere, erdi-izate maillan dago au: nere «ni» a, nere «nitasuna». Nere gorputza, esate baterako, badijoa, neronek ala nabaituz; eta min ematen dit amaitu bear orrek. Ni enaiz ordea nere gorputza.

Alaber ere, ni enaiz ezagu ditekeanik ezer. Nerea edo besteena dan guzia piskanaka itzaltzen ikusten baitut nik kanpotik bezela. Ots, nere «ni» ori besterik bide da, eta ez dut ezagutzen. Ezagutu eziña da.

Baña, ezagutzen dudan guzia iltzen baldin bada, nere «ni»tasun ori ez da ezer egiazkorik, ezagutzen dugun guzia iltzen baita.

XV

Biaramunean euri gorria erori zan; eta, ni jaikitzean, itsasoak eta gañerakoak odol freskua ziruditen. Zenbait odeiek, orratio, laranja kolorea zuten. Ikuskari ederra.

Lilieta aldean eseri nintzan. Andik igaro zan idi batek begiratu zidan, eta gero jateari eman zitzaien berriz. Zer jan ote zezakean? Odol antzeko ixurgai itsaskor artatik?

Odeiak mogitzen asi ziran izugarri azkar. Ikarak artu ninduen. Eta letra batzuk sortu ziran goi urdiñean, laranjaz ildoturik: «Pausa adi».

Nork jarri ote zizkidan? Nork zekikean nere kezka eriozkoaren berri?

Igesari eman eta gorri labain artan irristatu, eta erori egin nintzan. Begiak idekitzean artezi bat ikusi nuen zeruan; eta atzean beltza besterik ikusten etzala. Beltz lodi eta itoa!

Nengoen nere artan gelditu nintzan, goiari so, eta odola jario zirudienez.

«Pausa adi»...

«Pausa adi» esan dit ahalmen gorderen batek. Nun ordea? Eta, aipatzeak berak dar-dar jartzen

nau... Nork izkribatu du ori ortzean? Pausatu egin naiko nuke, ordea... Nere kezka ontan ezin iraun dezaket. Zergatik enaiz presentean bizi? Zergatik enaiz sekular orainean bizi izan? Ezin geldi naiteke, ezin pausa. Pausa lekurik eztut topatzen.

Atsegin izango litzaidake, ordea, noizpait gelditzea, atsedena ar...

Baña, agirian dakusat, pausatzea eta akabatzea bat dira. Pausatu nai izatea, amaitu nai izatea da; zeren ezer ez dagoen geldirik, deus ere ez.

Ortaz, zergatik naiko nuke geratu? Zerk kilikatzen nau? Zerk artaratzen? Pakea eta zoriona lortzeko dudan itxaropen zoro onek... Baña, ezin...

Artezia zabalago egin zan ortzea urratuz, eta beltzagoa bear ba da.

Nundik datorkit ba geratzeko eta atsedena artzeko irrika au? Nola bete ote dezaket ortzean bertan esaten zaidana? Nori idarokiko diot nere bidea, azkenean ari lot nakion? Irrika onek, nun du oñarria eta nun elburua?

Agian, neure adimentuan finkatzen da. Sekular sortu bear eztuen Oreopitheko bat naiz, munstro bat, tximuai saldukeria egin dien munstroa ain zuzen.

Baña, zein parte da nigan okerra? Adimentuarena ala Oreopithekoarena? Bi gera-ta. Lo jaikitzeetan nork, nor darabil? Eta, orain?

Nere eskuak begiratu nituen. Odola bide zerien: gañezka nuen munduko sasi-odol gorri itsaskor ura. Esku batez txukatu nuen bestea; eta tanto gorrien artean, illeak ikusi nituen: Oreopithekoen ille bustiak ziran!! Goragalea eman zidan nere alimaltasunak.

«Nork pausarazi nai du nere buruaren oreopithekoa?», esan nuen karrasika. «Ille-tasun» onek akabera eskatzen du, illetasuna da-ta». Bañan inork etzidan erantzun. Nere oreopithekoa badijoa, nola ez; dan guzia bezela. «Iraun-naia munstrokeria bat da! Dagoen guzia amaitzen dan ezkeru, amaitzen ez

dan zerbaitek eskatzen du ez amaitzea. Bañan onek, derrigor, ezin dezake izaterik izan; alegia, ez da. Zerk nai du ni geratzea? Adimentuak; ots oreopitheko sendoa munstro bat egin duenak!».

Jaiki egin nintzan odol itxurako nahaste artatik. Lilieta'n etzan kristaurik: ura bakardadea.

Orduan, goratik, ekin nuen:

—Askatu egin nai dut nere oreopithekoa!!! Nork nahastu zuen? Zerk eman dio bere bitasun asaldagarri au?

Neronen oiuen oiartzunak garbi entzun zitezkean gorritasun guzizko artan.

Goragotik nik:

—Nere adimentua ez da ezer, ezpada Ezdeusaren deia!...

«Ezdeusaren deia» entzun zan Gandra menditiko oiartzunean.

«Ni enaiz, alere, oreopithekoa, ez nere gorputza, ez nigan igarotzen eta itzaltzen danik ezer ere... Ni, gizonok, Ezdeusaren dei orixe naiz!!!

Dirdai itsugarri batek bete zituen bazterrak, eta aidean bezela utzi ninduen.

Nere bitasunaren kontra jarduten duelako gorroto izan dut denboratasuna. Denborak agertzen digu oreopithekoa eta Ezdeusaren deia ezin alkar ditzekeala.

Askotan frakasatu naiz bitasun ori aurrera eramanean. Il bedi munstroa! Il bitez denboratasunaren aurrideak!! Il bitez denbora eta oreopithekoa!!!...

«Iges egin bezate ilkor guziak. Zarraka bitez Zuntzarri'ko jauregiak oro eta bijoaz elitan eta zapasaltoka jaiotzen eta iltzen diran sorkari guziak. Finka nadin Esdeusean. Bete dezadan nere deia... Badakusazkit... nere ondolik... izututako piztiak bezela... zalapartan aruntz joaten. Eta neure oreopithekoa ere... berakin dijoa. «Eman nere adimentua gelditzen da bakarrik; eta mundua ustuta, atzeko

illunpe baten gisara, ezereza!!... Alkargana ditza-
dan!!!», esan nuen deadarka.

Nekatua nintzan. Eta ortotsak entzuten ziran Anduaga aldetik, joandako sorkarien zalapartarekin nahasiak.

Eta odol-auria berriz asi baño lehen, «Pedro-Enea»ko gela illunera joan nintzan; gorri artaz blai-blai egiña, eta nere gogoetan barna tematurik.

* * *

Iribarre otzen bat ikusi nuen nunbait, eta ikaraz bete.

Eta, nere barne muñetatik, goratik esan nuen: «Ez!!! Ez dut nai!!! Ezin diteke!!! Ez, arren!!! Geiegi da eskatzen didazuna».

Baña, irribar otz asaldagaitz ura, etzan aldetu...

Sekulan sentitu enuen otzez bete nintzan. «Ez au, ez ori, ez ura... Ez gaur, ez biar... Ez denborarik... ez ezer... Eta, esdeus artan murgil eta neure burua itzal...

«Geiegi!», esan nuen karrasika.

Eta kordea galduta, zerraldo erori.

* * *

Urrengo egunean afal ondoan liburu guziak artu nituen, eta bizpairu joan-etorritan, Xonta'ko arri-tarte batera eramane nituen. «Samyutta-Nikâya», «Mílinda Pânha», «Visuddi Magga», «Dhammapada», «Upanishads», eta beste olako asko, alde batetik; eta filosofiari buruz nituen beste amar asko ere bai. Aiez gain, etxean nituen nobela guziak, irurogei ta amar bat (Gide, Camus, Huxley, Malraux, Moravia, eta abar) Xonta'ra eramane nituen ere. Gelan enuen libururen aztarrenik utzi.

Pillo aundi bat egin nuen ango arkaitz baten gañean, eta pospolu bat pizturik, su eman nien. Eta bereala, legorretik itsasora zetorren aizeak puz-

turik, aundituz joan zan sua, eta bereala sutzar bat egin. Soloarte dantza-lekua doi-doi nabarmentzen zan argitasun txiki artan, dar dar bezela.

Alaitu egin nai nuen, bañan ezin. Garrak goruntz altxatzen ziran. Beroa nabaitzen nuen, eta begietan azkurca, baña sutzarrera begiratzen nuenean alere, erdi bildurturik nengoen. Ura etzan aski; neure bu-
rua bota bear nuen surtara...

Suak zenbat iraundu ote zuen eztakit. Erretzen ari ziran liburuak eta beren jakinduria guzia mada-rikatzen asi nintzan ni, eta «Madarikatuak izan zai-
tezte betirako» nere indar guziez esaten ari nintza-
nean, detenitu egin ninduten, su egitea debeku zala bide; eta ergel aiek, sua itsasoaren ondo-ondoan ze-
gocelarik ere andik baztertu ninduten indarka.

Eta, «lehenengo aldiz zalakoan» etxera joatera utzi ninduten.

Eta ala egin nuen.

* * *

«Pedro-Enea»ko nere gela illuneko oean enin-
tzan. Iodoformoaren usai sarkorra zan an, eta «za-
gutzen enituen batzuk begiratzen ninduten. Ixil osoa
zan.

Kepa eta Manu sartu ziran.

—Zer moduz ago? —esan zidan Kepa'k—. Atse-
dena komeni zaik; beraz etzak geiegi itzegin.

Zertara aiek? Zer nai ote?

—Alde! —esan nien goraki—. Alde emendik!
Zer da komeria arrigarri au?

Eta cearen ondoan nuen kristalezko txarro bat
arturik, bota egin nien nere egiñaletan.

Gero jaiki nintzan, eta aien ondotik joan, xehe-
xehe egiteko asmotan.

—Zer nai duzute emen, zitalok? Nork otsegin
dizue? Jarrai zuek, zeron txatxukerietan. Oreopithe-
koaren alderdia artua duzutenok: alde, alde emen-

dik! Itsuak zerate eta zuen eritasuna ez dut ikusi ere nai.

Eskallera behera zijoazten berak korrika eta noizean bein neri begiratzen zidatarik.

Nik Xabier'ekin itzegin nai nuen; ez kaiku ergel uts aiekin.

* * *

Biaramunean Zuntzarri'ko kanposantura joan nintzan. Xabier'ekin itzegin bear nuen. Nolako bearra gañera!

Goibela zan zerua. Elosua'ko burontzak beltzak ziruditen.

Kanposantuan sartu nintzan. Kristaurik etzan an. Illarriak errenkada luzetan. Ango pakea urragarri zitzaidan: An-emenka, illarrien tarteetan, belar-izpi batzuk. Ezea zegoen ura oraindik, negarrari utzi berria balitz bezela. «Emen datza»... «Emen datza»... «Emen datza»... Ahaztuta an. Are geiago: jendeak aldegin. Nerau ere, noiztanik enintzan joan Xabier'en illobira?

Eortzetaren egunetik beretik, ain zuzen.

Eta an, beste askoren artean, arri urdin txiki batean, irakurri nuen:

«Emen Xabier Zufia datza».

Alboetara begiratu nuen: Etzegoen iñor, kanposantuko izkiña batean eortzallea besterik.

Orduan, neure baitara bildu ondoren, esan nuen:

—Xabier: sekulan enauk zalantzan jarri. Ire ideiak enautek beñere unkitu. Eure ideiak oiek siñisten itualako miretsi aut, ez egiazkotzat nituelako. Baña zalantza bear diat, eta euk dudaraziko nindukek bakarrik. Inka izugarri ontatik irten bear diat. Ik egia ba ukan, orain ere bizi aiz eta ikus nazakek; eta lagun urkoa maitatzeko ire betebearrak ni lagun-tzera beartzen au.

Eta goragotik:

—Xabier! Arren Xabier! Mintza akit!!!

Ezer etzan entzun.

—Esaidak zerbait arren! Akabatu al aiz, ortaz? Zalantza bear diat: eruki adi, Xabier, nitzaz!

Illerriko pakea etzan asaldatu. Negarrari eman nintzaion, eta Xabier'en illobiaren ondoan jaurti, zotinka, asperenka, min etsian. Eta ezatasunaren otza nabaitu nuen saietsean...

Berriz esnatu nintzanean minbera nuen saietsa. Berriz irakurri nuen: «Emen Xabier Zufia datza».

Ipuiak! Xabier Zufia bukatu egin da guztiz; emen ez datza iñor, eta dakusadan idazpuru orrek ez du sentidurik.

Ate aldera jo nuen, eta illarriak irakurriz ninjoan.

Eta bapatean, zauskada latz batek iñarrosi ninduen. Arri eskas batean, «Emen datza Begoña Iratzubarrena». Bego!!! Illa ere? Noiz ala? Irakurri nuen eta bost illabete aurretik illa zan.

«Bego» esan nuen ahapeka. Gañean zituen txotxigar batzuk kendu nituen.

«Gajoa!» —ahapeka.

Illuna zan arratsaldea eta joatea erabaki nuen.

Eta, biotza erdibiturik, enuen idazpuru geiago begiratu bildurrez-eta beste ezagunen bat ager zedin.

* * *

Gurpillak ikusten nituen bakarrik, beti jiraka. Dana itzaltzen da, itzaltzea bera ezik. Dana iltzen da eriotza ezik.

Guzia bukatzen da, eta bereala ezabatu eta ahaztu egiten da. Atsegiñak, miñak, lillurak... eztira munduan xegundu labor bat baizik.

Eta, ez dago au besterik!!!

Gure «Ni»a ez da, ain zuzen, alegiazko lillura edo tximista bat baizik: erdi-izate bat, munstro gorrotagarri bat, umekai itsaskor bat.

Sakyamuni'k du egia eskerki.
Galduta nago.

* * *

Egun gaistoak pasa nituen. Nere oreopithekoa ain okaztagarri ikusiz ezin nindekean iñora joan, eta lorik enuen artzen. Iguñak bete ninduen, eta gaez amar bat aldiz jaikitzen nintzan egunero ezin egonik.

Nere besoetako illeetan usaintzen nuen, eta kirats zitzaizkidan. Gizonak kalez-kale ikusten nitueanean, kanguruez gogoratzen nintzan: zergatik auldu ote zaizkigu onenbesteraño aurreko anakak? Mustracak geralako!

Gizonak parragarri zitzaizkidan ibiltzean: zintzilika daramazkite besoak, eta balantzan; are parragarriago emakumeak: aurreko anakak bilduta eramaten dituzte. Lauroinka jarri nintzan, eta egoki nituen besoak; baña ibiltzen asirik, bereala nekatzen.

Pena zan; zeren normalago iruditzen zitzaizkidan aurreko nere anakak lurraren gainean ipiñita, aidean zintzilika baño.

Etzetik irten nintzan. Eta algara ederrak bota nituen jendea ikusita. Kanguru ugari dotore jantzita: Kanguruen iñauteria!

Arrezkero lauroinka ibiltzen nintzan kanguroen itxura ura ez artzeko, eta bereala oitu nintzan.

Baña Sakyamuni'ren irudia aurrean nuen lauroinka ibiltzean ere: «Ori ez duk bidea. Ez aiz abetuko. Oreopithekoa aberetuz eu ez aizena aberetuko duk, ez besterik. Gizonaren Ezdeusaren Deia bete bear duk. Orra bidea».

* * *

Pentsamentu oiek zirala-ta lehenekoez gañera, gauetan izugarrizko bildurra pasatzen nuen. Geroz eta biziagoa.

Sakyamuni ager zekidan bildur nintzan. Argia itzali bezin laster, bere irribarre otza ikusi uste nuen argi epeletan, eta azkenean, eta argia itzali gabe, nekez loakartzen nintzan. Gero, alere, bein eta be-

rriz esnatzen nintzan, neure erraiak berak oka egin bearrez. Eta enuen ezer jaten.

Begi bistan ari nintzan, beraz, aultzen eta iltzen.

* * *

Eta, ezin egon artan, Sakyamuni agertzeko ikarra ura nere erraietaraño sartu zitzaidan. Auxe zan aspaldidanik ni urdurien jartzen ninduen; baña enuen aitortu nai.

Nere burua iltzea pentsatu nuen. Nere artan ezin segi. Ezin!!!

Eta gau batean Gandera mendira abiatu nintzan, nere bizia betirako moztutzeko asmotan.

Gau izartsua. Nik, bidean, bi aldiz oka egin nuen. Beazun utsa botatzen nuen, bospasei egun artan ezpainuen mokaurik artu; eta galda gorria beheitik gora zetorkidala pentsa liteke. Nolako erredura!

Eta, alere, jangartsu. Uraxe zan arrigarriena.

Biotztarra kiskalgarriak erretzen ninduen, eta, zerbait artzekotan ur freskua opa bakarrik. Besterik ez. Goragaleak erronka zetozkidan, arnasarik ezin arturik jarri arte. Eriotza bear nuen. Bestela Sakyamuni'ren irribarre jela ikusiko nukean gau artantxe.

Gandera'ko Mateia-Punta altuan exeri nintzan. Beian leize illuna, eta goian izartegia diz-diz. Gauda ba zan ere, bildurrik ez. An zan arri aundi bat nik artu, eta bota egin nuen. Andik iru segundutara, «klok» entzun zan, eta segittuan ixilla. Nere gorpuzak ere berdin egingo... eta kitto! Jauzi egiteko desira bizi bat piztu zitzaidan.

Itsaso aldera begiratu nuen: beltza. Azkeneko aldiz... Baninjoan ni ere illunpe beltz batera... Zuntzarri etzan andik ikusten. Lilieta eta kaia bai; baña beranduegi zalako, argi gutxi zan, eta ozta-ozta ikus zitezkean aiek ere, illargia oraindik aterea etzan eta.

«Kemen izan» esan nion ahapeka nere buruari. «Segundu bat duk, eta akabo. Eta geroztik ez duk nabaituko ez penarik, ez goragalerik, ez bitasunik,

ez kezkarik, ez ezer. Jaio aurreko pake berbera inguratuko duk berriz; eta ori gutxi ez duk».

Baña, zalantza asi zitzaidan: nahasita zetozkidan askoren izenak: Nagasena... Xabier... Zer zan ura? Nundik nahaskeria ura?

Goragaleak berriz, eta sua iranoiean eta urdaillean...

Behera begiratu nuen: «Amaitu bearra... Bestela», goragotik ekin nuen: «Gautama!...». «Eta egia ba litz...». «Baña, Xabier'en itxaropena galduta, zer ari naiz ni zalantzan? Sakyamuni! Ez!!».

Eta jaiki egin nintzan, eta atzera joan, abiadura artzeko. Ariñago asi zitzaidan biotza lehertzera bai lijoan; eta, amorraturik oiur egin nion nere bularrean joaz; eta nere abots betean:

—Ixil adi, zoro ori! Pausa adi!! Geldi akit betirako!!!

Pausu batzuk entzun nituen atzetik, eta ondoren:

—Geldi adi eu —abots batek ziola. Eta besotik eldu zidan bortizki zibilla batek, galdetuz:

—Zer ari aiz emen karrasika? Ero al ago? Ortik erori ezkerro, akabo. Asieratik ikusi aut, onera aizenetik beretik; eta gaizki abillela uste diat. Marmarka entzun aut lehen, bakarrik egon arren. Eta, orain ere, zer ari intzan esaten? Ator nerekin, eta akabo.

Askatzeko egiñalak egin nituen, baña alperrik izan zan. Orduan amorroz beterik, eta birau asko esaten niola, nik errepikatu:

—Utz nazazu!! Nere burua il bear dut. Bestela Sakyamuni ikusiko dut gaur gauean, eta orduan bai akabo.

Irakiten ari zan nere odola eta izate guzia.

Berak, orduan, iñarrosi egin ninduen zakarki, eta besoetan min ematen zidala, esan:

—Au burutik egiña zegok. Asmatu egin diat detenituz.

Eta berakin eraman ninduen.

Beazun eta lerre jario iritxi nintzan bere Burutzara. Gandra'tik jeistean, berak bultzatzen ninduela-ta, bi aldiz erori nintzan lurrera.

Gela aundi batera pasa minduten; eta an, mai zabal batean, berrogei ta amar urtetako gizon bat zegoen. Komesario ura ere etzan izan bestea baña xamurragoa, eta bere lagunaren kondaira entzun ondoren, esan zidan:

—Zer ari aiz esaten Sakamoni edo dalako orri buruz. Zein da Sakamoni ori? Edo zer da? Mamuren bat?... Eta... ori guzia... ordu auetan... eta Mateia'n. Konturatzen al aiz?

Pizkortu egin nintzan une artan, nere zioak azaltzeko era bat ematen zitzaidalako, eta nere biotza bera mintzo zala, erantzun nion:

—Gautama ager dakidan baiño lehenago il bear dut nere burua! Utz nazazu nere burua iltzera; eta zureaz nai duzuna egin zazu; baiñan ez nereaz.

Eninduen ulertu. Eta zeatu nion:

—Bai, jauna. Gautama ikus ba neza, aspaldidanik bildurtzen nauena egiztatuko litzake. Neri, ala ba ledi, gogorregia irudituko litzaidake gizonaren askabidea. Eta orregatik naiago dut il.

Etzuen ulertu.

Goragotik azaldu nion:

—Cuziz akabatzea baldin ba da bidea, nik ez dut eskierki jakin nai! Gizona munstro bat baldin ba da, eta bere burua zearo eta era guzietara akabatzekoa baldin ba da bidea, ez dut ezer nai. Azken ontan, ordea, ortara iristen ari naiz. Ots, agerkunde batean Gautama ikusiko ba nu, alaxe izango litzake eta, ori gertatu ondoren, enuke iges egiterik izanen. Frakasu eta Ezdeus-Deia izango litzake orduan zalantzarik gabe gizonaren betekizuna eta bidea. Eta orra kakoa: orixe gerta dakidan bildur naiz. Ez al zera ikaratzen?

Orduan, otz otzean, au erantzun zuen komesariorioak:

—Arrazoi zenuen. Burutik egiña dago. Eraman zazute emendik...

A M A Y A